Gernika Gogoratuz | GERNIKA SAREA

BUSTURIALDEA-URDAIBAI ESKUALDEKO IKUSPEGI INTEGRALA

LURRALDERA ETA BERTAN BIZI DEN GIZATERA HURBILTZEKO DIZIPLINA ARTEKO BEGIRADAK

Xabier Arana Eiguren, Rosa de la Asunción Sanz
eta Ramón Zallo Elgezabal



BUSTURIALDEA-URDAIBAI
ESKUALDEKO IKUSPEGI INTEGRALA

LURRALDERA ETA BERTAN BIZI DEN GIZARTERA HURBILTZEKO DIZIPLINA ARTEKO BEGIRADAK

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (AVCD-Elankidetza), Gernika-Lumoko Udalaren, Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazio Publikoaren, Gernikatik Mundura elkartearen eta Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkartearen finantzaketari esker egin da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

GERNIKA LUMO
gure sustraiak

kulturetxea
gernika-lumo

gernikatik mundura

Gernika Gogoratuz
Bakearen Aldeko Aztertegia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center

BUSTURIALDEA-URDAIBAI

ESKUALDEKO IKUSPEGI INTEGRALA

LURRALDERA ETA BERTAN BIZI DEN GIZARTERA HURBILTZEKO DIZIPLINA ARTEKO BEGIRADAK

Xabier Arana, Rosa de la Asunción eta Ramón Zallo

Gernika Gogoratuz

Gernika Sarea Bilduma

Bildumaren zuzendaria: María Oianguren Idigoras

Itzulpena: Artez Euskara Zerbitzua Koop. E. eta Bakun, S. L.

Argitaratze-koordinazioa: Mercedes Esteban.
Diseinua eta maketazioa: eMeriel.
Azaleko irudia eta piktogramak: goikipedia.

© Xabier Arana Eiguren, Rosa de la Asunción Sanz
eta Ramón Zallo Elgezabal, 2021

© Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkartea Gernika Gogoratuz, 2021
Artekalea, 1-1. solairua • 48300 Gernika-Lumo
Tel.: 946 25 35 58
Posta elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org
http://www.gernikagogoratuz.org

ISBN: 978-84-09-37317-8
Lege gordailua: BI 02193-2021

aurkibidea

HITZAURREA
Jokin Alberdi Bidaguren 11

UDAZKENAK BUSTURIALDEAN
Xabier Arana Eiguren 19

A. BEGIRADA EKONOMIKOA.
BUSTURIALDEA-URDAIBAI, BIDEGURUTZE SOZIOEKONOMIKOA
Ramón Zallo Elgezabal 21

1. BEGIRADA BAT EKONOMIA JASANGARRIAREN IKUSPEGITIK 23
   1.1. Erreserba 24
   1.2. Abiapuntuak 25
   1.3. Nondik pentsatu 26
   1.4. Pandemiaostea aukera gisa 27

2. EGOERAK, INDARGUNEAK ETA AHULEZIA SOZIOEKONOMIKOAK 29
   2.1. Egitatezko egoerak 30
   2.2. Indarguneak 31
   2.3. Ahuleziak 34

3. HAMAR DILEMA ETA EGON DAITEZKEEN AUKERAK 39

B. BEGIRADA SOZIALA

Rosa de la Asunción Sanz 51

1. BIZTANLERIA 53
   1.1. Adin egitura 55
   1.2. Jaiotzak eta heriotzak 56
   1.3. COVID-19 pandemia 57
   1.4. Migrazio-mugimenduak 57

2. ESKOLA-JARDUERA 59
   2.1. Hezkuntza sistema udalaren arabera 60
   2.2. Helduen Hezkuntza (HHE) 64
   2.3. Ikasle migratzaileak 64
   2.4. Irakasleak 65
   2.5. Ikasle ez diren biztanleen ikasketa-maila 65
   2.6. Euskararen erabilera 66

3. GENERO-DESBERDINTASUNA 67
   3.1. Amatasuna 68
   3.2. Mugikortasuna 68
   3.3. Emakumeen enplegua 69
   3.4. Desberdintasun ekonomikoa 72
   3.5. Beste datu batzuk 74

4. ETXEBIZITZA: EGOERA 75
   4.1. Ezaugarri nagusiak, instalazioak eta zerbitzuak 77
   4.2. Etxebizitza politika 79
   4.3. Lurzoruaren erabileren banaketa 79

5. INGURUMENAREN EGOERA 80
   5.1. Hiri-hondakinak 80
   5.2. Energia-kontsumoa 84
   5.3. Beste ingurumen-adierazle batzuk 86

C. SOZIOINGURUMEN BEGIRADA.
EMAITZEN AURKEZPENA FORMATU ERRAZEAN
Xabier Arana Eiguren, Rosa de la Asunción Sanzekin eta Urdaibai Taldearekin lankidetzan 89

1. LURRALDEA, POPULAZIOA, ETA NATURA- ETA KULTURA-ONDAREA 91
   - *1.1. Geografia eta populazioa* 91
   - *1.2. Geodibertsitatea eta biodibertsitatea* 93
   - *1.3. Naturagune babestuak* 95
   - *1.4. Ingurumen- eta kultura-ondarea* 97

2. NATURAREN ABERASTASUNA ETA INGURUMENAREN FUNTSEZKO BALIABIDEAK 98
   - *2.1. Airea* 98
   - *2.2. Ura* 99
   - *2.3. Lurzoru naturala* 100
   - *2.4. Baso-paisaia* 101

3. INGURUMENAREN EGOERA 103
   - *3.1. Airearen kalitatea* 103
   - *3.2. Uren kalitatea* 103
   - *3.3. Lurzoruen kalitatea* 105
   - *3.4. Landa-, itsasertz- eta hiri-inguruneko paisaia* 106
   - *3.5. Uraren, lurzoruaren eta energiaren kontsumoa eta hondakinen sorrera* 107
   - *3.6. Ingurumen-arriskuak* 110

4. SOZIOEKOSISTEMEN IKUSPEGIA 111

5. NATURAREN ZERBITZUAK ETA GIZA ONGIZATEA 112

6. KULTURA-PAISAIA 112

7. KLIMA-ERRONKA 113

8. INGURUMENAREN GOBERNANTZA 116

8.1. Erakunde publikoak eta partaidetza-organoak 117

8.2. Gizarte zibileko sozioingurumen arloko erakundeak 118

8.3. Sozioingurumen arloko erakundeak eta ikerketa-zentroak 120

8.4. Eskualdeko baliabide naturalak erabiltzen dituzten enpresa-sektoreak 122

9. ONDORIOAK 123

D. BEGIRADA ESTRATEGIKOA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK SUSTATUTAKO PLANAK ETA JARDUERAK (2000-2020)

Xabier Arana Eiguren 127

1. PLANGINTZA PUBLIKOA 130

2. PLANGINTZA INTEGRALA 130

3. INGURUMEN ARLOA 132

4. KULTURA ARLOA ETA EUSKERA 136

5. ARLO EKONOMIKOA 138

6. ARLO SOZIALA 141

7. LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ETA AZPIEGITUREN ARLOA 143

8. PLANGINTZA IKUSPEGI INTEGRALA 147

9. GOBERNANTZA HORIZONTALA 151

10. ONDORIOAK 152

11. DOKUMENTU ERREFERENTZIAK 153

I. ETA II. ERANSKINAK 157

HITZAURREA

Jokin Alberdi Bidaguren

Jokin Alberdi Bidaguren Zientzia Politikoetan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), eta Zuzenbide Konstituzionaleko eta Europar Batasuneko Zuzenbideko irakaslea unibertsitate horretan. Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Ikerketa Elkarteko presidentea da eta Gernikatik Mundurako zuzendaritza-batzordeko kidea.

Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Ikerketarako Zentroan ari garenok gure ekarpena egin nahi dugu, Busturialdea-Urdaibai eskualdearen egungo testuingurua hobeto ulertzen laguntzeko, eta asmo horrekin aurkezten ditugu Rosa de la Asunciónek, Xabier Aranak eta Ramon Zallok egindako ikerketa hauek. Hamaika plan estrategiko «desarrollista» ezagutu ondoren, eta azken hamarkadetan bere kabuz ibiltzera abandonatuta, eskualdea gainbeheran da gaur. Hori ikusita, gure asmoa da lurraldeak dituen gaitasunak suspertzea, bizi-alternatibak eraikitzen jarraitzeko.

Argitalpen hau 2018tik Urdaibaiko talde eragilea «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuaren baitan aurrera eramaten ari den azterlanetako bat da. Talde eragile horretan eskualdea ezagutzen dugun eta bertan bizi garen hainbat aktibista eta mundu akademikoko kide elkartzen gara.

Busturialdea-Urdaibai eskualdeko komunitate, gizarte eta erakundeetako eragileen elkarlana indartzeko asmo horretatik abiatuta, talde hau osatzen dugunok orain lau urte direla heldu genion ikerkuntza, ekintza eta partaidetza proiektu honi, eta hemendik sortu dira hamaika tailer, topaketa, elkarrizketa, ikus-entzunezko dokumental, argitalpen eta komunikazio- eta zabalkunde-jarduera, helburua politikan eragitea dela. Horiek guztiak esteka honetan aurki daitezke: <https://territoriolab.org/urdaibai-euskadi/>. Prozesu horretatik honako mugarri hauek nabarmendu nahi genituzke:

- *Urdaibai: Oreka Bizian* dokumentala. Eskualdean gure agintariek proposatzen dizkiguten ekimen «desarrollisten» alternatiba gisa artikulatzen ari diren hainbat esperientzia komunitario erakusten ditu. FMK Mediak ekoitzi duen lana da, hain zuzen ere, eta zenbait ekimenen berri ematen du: ondarea oroitzeko eta berreskuratzeko, Astra (lehengo arma-lantegia) izandakoaren egoitzan sorkuntza sozialean eta kulturalean ari diren gazteen kolektiboek proposatzen dituzten ekimenak; Jangurie, eskola-jan-

toki jasangarriak, osasungarriak eta tokian-tokikoak, inguruko ekoizle eta merkatari txikien ekonomia suspertu dutenak; eta Kolore Guztietako Basoak herritarren plataforma, basogintza-politika ekologikoagoa planteatzen duena, bertako basoa sustatuko duena, eukaliptoaren monokultibo kaltegarriaren alde jokatzen duten «forestalisten» eta haien jokoa babesten duten administrazioen asmoei aurre eginez.

■ *Kasu-ikerkerketa: Urdaibai (Euskal Herria). Egitasmoak ezagutuz eta diagnostikoak kolektiboki partekatu* argitalpena. Liburu honek, Gernika Gogoratuzek argitaratuta (2019), modu sistematikoan jasotzen ditu arazoen, erronken eta alternatiben mapak, eta identifikatzen ditu hainbat proposamen komunitario alternatibo, 2018-2019 bitartean hainbat kolektiborekin egindako tailerretatik sortutakoak; eta, horiek osatzeko, eskualdean erreferentzialak diren edo «zubi-lana» egiten duten hamarren bat lagunekin egindako elkarrizketak eskaintzen ditu. Ikerkuntza, ekintza eta partaidetza prozesu honek bigarren fase batean, 2020an eta 2021ean ere, jarraitu du aurrera, eta beste tailer batzuk egin dira, beste eragile batzuen partaidetzarekin (kudeatzaile eta ordezkari publikoak adibidez), eta berriro ere eztabaidatu dira eskualdeak eta habitat desberdinek (landa, itsasoa, hiria) dituzten erronkak eta dilemak. Horietan entzun ahal izan ditugu, modu aktiboan, bestela isilarazi edo aintzat hartzen ez ditugun hainbat ahots, eta gogoeta egin ahal izan dugu, gure eskualdea kolektiboan birpentsatzeko prozesu hau aurrera eramateko moduari buruz.

Bigarren fase horren emaitza lantzen ari garen zenbait ekimen daude, eta hementxe aurkezten ditugu.

■ Laster aterako den argitalpen bat, *Metodologías para la construcción de alternativa de vida. Enfoques para el acompañamiento de proceso y consolidación de narrativas sobre sostenibilidad de la vida.* Atalez atal jasotzen ditu Hegoaldeko gaitasun kolektiboen eta epistemologien ikuspegien aplikazio praktikotik ateratako ikasbideak, sektore arteko ikuspegia, eta arte-ekintza herritarren partaidetzarako tresna gisa Busturialdea-Urdaibai eskualdearen eraikuntza komunitarioko prozesu honetan.

■ *Gereizpetatik 11 izpi: ahots isilduak Busturialdea-Urdaibaiko bizitzaren narratibei gehituz* esperientziaren sistematizazioa. Ekimenaren ardatza izan da gure artean bizi diren pertsonen eragintza politikoa eta duintasuna aitortzea eta indartzea, pertsona horietako asko, hain zuzen ere, ustiapen

kapitalista, zisheteropatriarkal eta neokolonialaren dinamikek —gure eskualdean ere badira-eta— jotzen, gutxiesten eta ezkutarazten dituztelako. Irakaspen metodologikoak partekatzeaz gain, argitalpen hauen helburua da agintariek aintzat hartzea herritarren eskaerak eta proposamenak —era berezian, baztertutako kolektiboenak, immigratzaileenak, gazte eta emakume nekazarienak, etxeko langileenak…— eta, batez ere, jardunbide diskriminatzaile horiek eraisten laguntzea.

Lan-multzo horri guztiari gehitu behar zaio argitalpen hau, orain ohore eta plazer handiz hitzaurre honekin aurkezten dudana. Bertan bildutako lan hauek giza garapenaren ikuspegia eskaintzen dute, eta haien abiapuntua gure lurraldeak naturaren, gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren aldetik duen aberastasuna da. Eta hauen irakurketa, zalantzarik gabe, funtsezko tresna da eskualdea ezagutzeko eta haren etorkizunari buruzko gogoeta eta eztabaida pizteko. Lan honen egileak adituak dira, eskualdea ondo ezagutzen dute, eta zorroztasunez eta konpromiso osoz aztertzen eta ezbaian jartzen dute gure administrazioetatik proposatutako hamaika datu sozio-ekonomiko eta plangintza estrategiko. Horrenbestez, Busturialdea-Urdaibai eskualdearen argazki eguneratu bat zabaltzen dute gure begien aurrean, eta zenbait alternatiba eskaintzen dizkigute hurrengo hamarkadetan heldu beharko diegun auziei erantzuteko.

Ramon Zallok Busturialdea-Urdaibai eskualdeak bizi duen une sozio-ekonomikoaren interpretazio oso interesgarri bat proposatzen digu. Testuingurua ekonomia jasangarriaren ikuspegitik aztertzeaz gain, atal honek eskualdearen indarren eta ahulezien azterketa bat jasotzen du, aipatutako datuen eta planen analisi zorrotz batean oinarrituta, eta horren ondoren zenbait alternatiba planteatzen ditu, ikerlan honetan identifikatu diren dilema nagusietarako. Egileak berak adierazten duenez, aipatutako kapituluaren ideia nagusiak lehengo lan batetik atera ditu, hain zuzen ere, 2021ean argitaratutako *El declive económico de Busturialdea-Urdaibai: dilemas y propuestas* lanetik. Eta lehen emandako zerrendan sartu ez badugu ere, Ramon Zalloren liburu hori, zalantzarik gabe, «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuaren mugarrietako bat da, eskualdeko gizarte-eragile publiko eta ekonomikook pizten eta gogoeta egitera eramaten gaituena.

Rosa de la Asunciónen jakinmin zientifikoak Busturialdea-Urdaibairen errealitate sozioekonomikoaren alderdi guztiak aztertzeko gonbitea egiten digu. Datu eta estatistika ofizialak erabiliz, atal horrek hamaika informazio, injustizia eta desberdintasun agerrarazten ditu, askotan geu-

re begien aurrean ditugula ere, ezkutatuta geratzen zaizkigunak. Datu demografikoak, hezkuntzakoak, generokoak, bizitokiari buruzkoak eta ingurumenari dagozkionak aztertzen dira —hogei urteko eta aztertutako hogei udalerrietako aldaketak jasotzen dituzten estatistika-tauletan oinarritutak, <https://territoriolab.org/bestelako-baliabideak/> kontsulta daitezkeenak— errealitate horietako asko azaleratzen dituztenak, eta gogoeta egin eta gure eskualdean gertatzen ari dena interpretatzea eskatzen digutenak.

Sozioekonomiaren eta ingurumenaren gaineko diagnostiko hori osatzeko, eta eskualdearen ikuspegi estrategiko bat izateko, Xabier Aranak XXI. mendeko lehen bi hamarkada hauetako garapenerako plan integralak eta sektorialak (herrialdekoak, eskualdekoak eta udal-mailakoak) aztertzen ditu, eta zehaztasunez azaltzen du zer egin duten ondo eta zer geratu den bete gabe. Planeamenduaren azterketa horrek ikuspegi integral bat ematen digu, ikusteko zer egiten ari den, baina batez ere, zer ez den egiten ari, eta zer dagoen egiteko, ingurumenari, kulturari, gizarteari, ekonomiari, azpiegiturari, lurralde-antolamenduari, gobernantzari eta parte-hartzeari dagokienez. Lan horrek agerian uzten du ezen, zenbait inbertsio handi samar egin badira ere, ez direla gauzatu oinarrizko hainbat proiektu estrategiko eta ez dela aintzat hartu gizarte zibil antolatuaren eta herritarren iritzia.

Lan hauek biltzea lagungarria zaigu egoera hobeto ezagutzeko eta gure lurraldeak zenbait arlotan dituen dilemei buruz gogoeta egiteko.

Ekonomiari dagokionez, gure senak horien batzuen berri ematen bazigun ere, errealitate batzuk azpimarra ditzakegu, besteak beste nekazaritza- eta arrantza-sektoreen beharrei ez erantzutea, industriaren gelditasuna, ingurumen aldetik jasangarria ez den eta eskualdearentzako onura gutxi ekartzen duen turismo masibo baten mehatxua, gazteen eta emakumeen langabezia, lan-prekarietatea, lurzorua eta etxebizitza lortzeko zailtasun gero eta handiagoak…Aurkitu ditugu ere plangintza integral batzuk, helburu sektorial apal batzuk betetzera beste inora iristen ez direnak, eta ez dagoela ekonomia garatzeko estrategia partekatu bat (lidergo ezaren eta «eskualdeko *lobby*» indarrik ez egotearen adierazle).

Alderdi sozialetik, lan hauek zenbait alderditan arreta handiagoa jartzea eskatzen digute: pobrezia- eta bazterkeria-poltsak, ezkutuan gordeta baititugu, bai gizartearen aldetik, bai agintarien aldetik ere; lan gero eta prekarioagoak zenbait sektoretan; emakumeekiko bazterkeriak, astiro, oso astiro, borrokatzen ari direnak; gazteen lan-exodoa, haien dohainak ez direlako aprobetxatzen gure eskualderako; gero eta zaharragoak eta menpekotasun handiagokoak diren herritarren sektore

bat; kolektibo immigratzaileen inklusioari ezartzen zaizkion eragozpenak, eta eskola- eta espazio-bazterkeriak…Agerian dago agintarien eta administrazioen erantzuna oso eskasa izaten dela gai horietako batzuen aurrean, eta ez dakitela nola aurre egin dilema berriei.

Ingurumenaren arloan, eskualdea Urdaibai Biosferaren Erreserba izendapenaren babespean egonda, plangintza-jarduera bizia izan da administrazioen aldetik. Hala ere, liburu honen antzeman ahal dugunez, uren kutsadura eta defizit hidrikoa, basoen monokultiboa, azpiegitura eta kulturari lotutako proiektu handien —esaterako, Guggenheim Urdaibai— eragina… ezkutaraziak edo bigarren planoan daude, garapen-plangintzetatik eta eztabaida publikotik kanpo.

Alderdi kulturaletik, erantzun berriak eskatzen dituzten gaiak planteatzean dira, hala nola, kultura-ondareak hartzen duen arreta eskasa, jatorriz immigratzaileak diren familien inklusio soziokulturalak eta haiek euskara ikasteak planteatzen dituen erronkak, kultura-nortasunaren galera eta euskarak bizi duen gainbehera, kultura globalaren kontsumo pasibo gero eta handiagoaren eraginez.

Eta gobernantzari eta herritarren parte-hartzeari dagokienez, azterlan hau irakurri ondoren, honako hauek ikusten ditugu: ez dago eskualdeko subjekturik, ez eskualdeko ikuspegirik, erronka horien aurrean; erabaki estrategikoak kanpoan hartzen dira, eta eskualdea Bilboko hiri-periferia bihurtuta geratzen da; parte hartzeko espazio formalak ugari izan arren, komunikazioa eskasa da gizarte-eragileen eta administrazioen artean; eta ez dago eragile desberdinen artean partekatutako eskualdeko diagnostikorik, ez eta estrategiarik ere.

Laburbilduz, balantzea negatibo samarra da, eta gainbeheran, dinamismorik eta proiektu sozioekonomiko publiko nahiz pribaturik gabe dagoen eskualde bati dagokio. Ramon Zallok berak jaso duenez, eskualdeko sistema ekonomikoa egoera txarrean dago 70eko hamarkadaren amaieraz geroztik, eta ez du irtenbiderik aurkitzen giza garapen jasangarriaren ikuspegitik. Eta gizarte- eta kultura-sare indartsu, bizkor, kualifikatu eta irudimentsua izanda ere, eskualdeko herritarrek ez dute solaskiderik aurkitzen erakunde ofizialetan, horiek betiere errutinaren eta diskurtsoen kudeaketak katramilatuta daudelako; era horretan, ez dute lortzen eskualdeko proiektu kolektibo bat zehazteko eta ardazteko lana burutzea.

Eta Xabier Aranak dioenez, erakundeen arteko koordinazio gero eta handiagoa sumatzen bada ere, plangintzaren arlo batzuetan, oraindik ez dira gauzatu oinarrizko proiektu estrategikoak, eta ez dira sustatzen, ez herritarren parte-hartzea, ez eta lankidetza komunitario-publikoak ere.

Horiek, ordea, haize berria ekar lezakete eskualdearen ongizate kolektiboarentzat.

«Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuarekin desberdinen arteko eztabaida-gune inklusiboak eratzen jarraitu nahi dugu, jarrera amankomunak lortzeko eta modu kolektiboan prestatzeko eskualdeko erabaki estrategikoak, geure alternatibak definitzeko eta eraikitzeko, jasangarritasunean eta justizia sozialean oinarrituta. Liburu honekin, gainera, Ramon Zallok proposatzen duen elkarrizketa iraunkorreko mahai soziala aldarrikatu nahi dugu, uste baitugu lankidetza-gune mota horretatik hasi ahal izango garela eraikitzen epe motzeko talka-planak, edo epe luzeko plan estrategikoak, biak ala biak behar-beharrezkoak, gure eskualdeak dituen dilemei erantzuna giza garapen jasangarriaren ikuspegitik emango dien planteamendua egiteko.

Gernika-Lumo, 2021eko abendua

UDAZKENAK BUSTURIALDEAN

Xabier Arana Eiguren

Udazkena Busturialdean? dokumentala plazaratu zen 1978. urtean. Filmean Busturialdeko bizia eta bizitza erakusten da, besteak beste, paisaia dibertsitatea, gizarte-ohiturak eta aldaketak, itsasadarra portu industrial bihurtzeko egitasmoa eta lurraldea jasaten ari zen ingurumen-inpaktu negargarriak. Horien artean, pinuaren hedatze mugagabea landa-eremuan eta Eako paper-fabrikak itsasora isuritako orbanen irudiak ikus zitezkeen; bits horixkak, bainua hartzen ari ginenon narrua granoz estaltzen zuen.

1983. urtean uholde handiak izan ziren Busturialdean. Zerua hodei trinko beltzez bete zen abuztuan, udazken aroan, eta mendietatik basatza etorri zen ibaien ubideak gainez eginez. Basoen ordez pinu- eta eukalipto-landaketak zeuden, eta horien uzta batzeak uzten duen landaretzarik gabeko mortua ohikoa zen. Urak ez zeukan baretzeko eta lurperatzeko modurik, eta libre etorri zen arroan behera, lupetza eta bidean tope egiten zuenaren guztiarekin. Kalteak izan ziren ugari; bestalde, hildakoak ezin izan ziren bueltan ekarri.

Sute handiak eta negargarriak «piztu» ziren 1989an, udagoieneko azken egunetan. Urdaibai Biosfera Erreserbako legearen estreinaldi urtea zen. Azalera oso zabala kiskali zen artadiko basoan eta pinu- eta eukalipto-landaketetan. Ereñozar mendixkan erretako artadi kantauriarraren irudi tristea dugu oroimenean. Mendiak paletako gris kolo-

reetan zeuden eta enbor belztuek maniki biluziak ziruditen. Hamaika baserri erre zen. Harrigarria bada ere, sua oraindino begietan, pinuak sukoiagoa den eukaliptoez ordezkatuak izan ziren; suteen ostean kostaldean eta, azken hamarkadetan, eskualde osoan.

Tartean, ura kutsatuta dago erreketan eta estuarioan, uholdeek kalteak eragin dituzte, ur gabezia nabaria da eskualdean —emari ekologikoa galdua, aspaldi—, baserriak itotzen ari dira zuhaitz-landaketen artean, suteak izan dira mendietan eta, baserriaren atzeraldiarekin bat, paisaiaren kalitate eszenikoa eta alternatiboa pobretzen joan da, salbuespenak salbu.

Orain, 2018ko udazkenean, urtarorik erakusten ez duten pinudi berdeek, kolore arrea jantzi dute. Pinuak marroixka eta gorrixka ikusten ditugu, kudeaketa traketsak zein onddoek jota gaixotzen eta hiltzen ari direlako. Milaka eta milaka, azalera etengabean, kostaldetik Autzaganera doan Oka ibaiaren erresuman, Urdaibai Biosfera Erreserban.

Busturialdeak bere historia itsasoko bits horixkatik, arlo guztietako eraldaketa sakonak bitarteko, mendietako irudi nabarrera igaro du. Orain, Busturialdea-Urdaibai eskualdeak du bidea egiteke, kolore guztietako pertsonen, bizimoduen eta paisaien alde.

Busturialdea-Urdaibai, 2018ko udazkena

A

BEGIRADA EKONOMIKOA. BUSTURIALDEA-URDAIBAI, BIDEGURUTZE SOZIOEKONOMIKOA

Ramón Zallo Elgezabal

Ramón Zallo Elgezabal (Gernika-Lumo, 1948) Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua eta Informazio Zientzietan doktorea da. 1974an analista ekonomikoa izan zen Caja Laboralan (Arrasate). Ikus-entzunezko Komunikazioko katedraduna izan da, eta, duela gutxi, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle emeritua. 1978az geroztik, egitura, ekonomia eta kultura- eta komunikazio-politiketan espezializatu zen, eta Komunikazioaren Ikerketarako Espainiako Elkarteak omenaldia egin dio bere obragatik 2020an. Konpromiso sozialaz eta komunikabideetan egindako azterketez gain, euskal politikari eta kulturari buruzko hainbat liburu argitaratu ditu *(Euskadi o la Segunda Transición; El Pueblo Vasco, hoy. Cultura, historia y sociedad en la era de la diversidad y del conocimiento);* eta, kulturari eta komunikazioari buruzko hainbat lanen egilea da, horietako lehenengoa *Economía de la comunicación y la cultura,* eta azkena *Tendencias en comunicación. Cultura digital y poder.* Eusko Jaurlaritzako Kulturako aholkularia izan zen, sailburuorde gisa, 2002-2009 legegintzaldian.

1. BEGIRADA BAT EKONOMIA JASANGARRIAREN IKUSPEGITIK

Busturialdeak 20 udalerri hartzen ditu, mendeetan zehar gizatiartutako eskualdea da, eta ez dator guztiz bat uren banalerroekin. Urdaibai, aldiz, ibaiek (Oka ibaiak batez ere), mendiek, itsasoak eta giza ekintzak modelatutako eremu geografiko eta fisikoa da; eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba, berriz, opari bat da eta nazioarteko komunitatearekiko konpromisoa du lurraldea eta eskualdea jasangarritasun jarraibideen arabera kudeatzeko, giza ekintzaren, ekonomiaren eta naturaren arteko orekari eutsiz, horietako bakar bat ere ahantzi gabe.

Erreserba baten tokiko kudeaketa, ezinbestean, espeziearen eskuordetzaz egiten da, eta ezin da tokiko interes hutsen emaitza izan. Ez da bertan bizi diren eta gozatzen duten bizilagunena, biosferaren eta gizateriaren ondarea baizik. Euskal Herriko erkidegoak Busturialdeko agintariei eta biztanleei, gozamendunei, eskatu die erreserba hori behar bezala kudeatzeko, kontserbazio eta garapen jasangarriko jarraibideen arabera.

Hemen darabilgun tokiko garapen jasangarriaren kontzeptua desarrollismoaren antipodetan dago, edozein preziotan. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da dinamismo ekonomikoa, jarduera askotan hazteko eta jasangarritasunarekin bateraezinak diren jarduerak murrizteko. Jasangarritasunaren kontura Busturialdea baino azkarrago hazten ari diren eskualdeak ez dira konparatzeko eta imitatzeko eredu.

Dilema faltsua da hazkundeak edozein preziotan aukeratu behar izatea, lurraldearen eta bertako ekosistemen degradazioa edo pertsonen esplotazioa barne, bertan bizi diren espezieetako bat baitira; edo, alderantziz, Urdaibai eta Erreserba pribilegiatuentzako eta adinekoentzako bizileku isolatutzat hartzea, haien ekonomiaren eta gazteen etorkizunaren kontura. Badira bata eta bestea ezkontzeko bideak, eta horixe da UNESCOren enkargua. Bestalde, Gobernuaren eta Foru

Aldundiaren erantzukizuna da eskualdeari konpentsazioa ematea ekonomia sinesgarri batekin, erreserba zaintzeko kolektiboki hartutako ahaleginagatik.

1.1. Erreserba

Erreserba ezinbesteko abiapuntua da gainerakoei heltzeko orduan. UNESCOk Biosfera Erreserba kalifikazio aparta eman zion 1984an, Man And of Biosphere (MAB) programaren barruan, naturaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko harremanean munduko arazoei tokian tokiko irtenbideak emateko. Garapen jasangarriaren eredua zentzu hertsian izateko aukera duen laborategia gara. Programa horrek hiru funtzio bereizten zituen: «Biosfera Erreserbek tokiko komunitateak eta plangintzan eta kudeaketan interesa duten eragileak inplikatzen dituzte, hiru funtzio nagusi integratuz: biodibertsitatea eta kultura aniztasuna kontserbatzea; garapen ekonomiko jasangarria gizarte, kultura eta ingurumen arloetan; eta garapen jasangarrirako laguntza logistikoa ematea, ikerketa, jarraipena, hezkuntza eta prestakuntza garatuz». Horrek esan nahi du natura babesteaz gain, garapen bateragarria bultzatu behar dela, eta bigarren zeregin horretan huts egiten ari gara, nahiz eta tresna formalak izan.

Eta hori, Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekin garaiz eta egoki babestu bazen ere. Horrela, gero arau berriak garatu ahal izan dira, baina neurri batean bakarrik bihurtu dira aldaketak ekarri dituzten ekintza. Plan eta araudi asko, baina gauzatze txikia.

Erreserba adierazpenak berez dakartzan hiru eskakizun haiei aurre egiteko, hiru tresna handi jarri ziren martxan.

1. *Ingurumenaren* alorrean eta gobernuak onartuta, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) —azkena 2016. urtekoa da— erreferentziazko esparrua dira plangintza orokorrerako eta lurraldea kudeatzeko. Lehenengoa Eusko Jaurlaritzaren (Ingurumen Saila) eta eskualdean espezializatuta dagoen haren besoaren ardurapean zegoen, eta aholkularitza, zaintza eta abisu funtzioak ditu, erabakitzeko gaitasunik gabe (Urdaibaiko Patronatua). Bigarrena, berriz, kudeaketa, azken erabakia, Aldundiaren (arduradun bakarra, baso politikan, esate baterako) eta udalen (hirigintza planak eta erabakiak) esku geratu zen.

Ikusten denez, baterako gobernantza baino gehiago, plangintzaren irakurketa minimalista egiteko zumeak jarri ziren kudeaketan oinarrituta, etengabeko presioa eginez interes edo pertzepzio instituzionalak eta estrategia partikularrak edo *lobby* estrategiak (Forestalisten edo tokiko eraikitzaileen elkartea, esate baterako) asetzeko. Arazo horrek eskumen birformulatzea (ia ezinezkoa) eskatuko luke —Lurralde Historikoen Legea ukitu beharko litzateke—, edo erakundeen erregistro mentala aldatzea, gaur egun balazta eta talka jarrera sistemikoak direnak indar proaktibo partekatu bihurtzeko konpromisoaren bidez.

2. Arlo *sozio-ekonomikoan*, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Programa (JSEGP) oso interesgarria egin zen (1998ko iraila), bai eta Urdaibai Estrategia (2009-2015) ere, Eusko Jaurlaritzak 2009an egina, edo Tokiko Agenda 21 ilusionagarria, edo *Urdaibaiko Garapen Jasangarrirako Proiektua: garapen sozioekonomikoaren eredua*, 2010ekoa (Patxi López etapa). Kudeatzeko eta gauzatzeko tresna espezifikorik gabeko plangintza programak dira horiek guztiak, eta, betiere, foru aldundien edo toki erakundeen inplikazioaren zain daudenak, haiek baitira aurrera eraman ditzaketenak. Halatan, programa horien gomendioetako asko gauzatu gabeko edo ekintza partzialeko diskurtso erreferentzialak dira. Kapitulu hau da —txosten honen egilearen iritziz— etsigarriena Biosfera Erreserba adierazpena egin denetik.
3. *Ikerketaren eta hezkuntzaren* garapenari dagokionez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Garapen Jasangarriaren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Planaren (PICE-IGHP) 2015-2025 helburua da «herritarren pentsamoldea aldatzea, garapen jasangarrira hurbil dadin; lurraldearen ikuspegiaren norabidea aldatzea, holistikoa izan dadin; eta baliabide naturalen erabilera ez jasangarria aldatzea eta birbideratzea». Arlo horietan asko aurreratu da ikerketetan eta gomendioetan, baina oraindik asko dago egiteko arlo praktikoan eta sozializazioan.

1.2. Abiapuntuak

Hiru abiapuntu hartu behar dira kontuan:

- Bat defentsiboa: klima aldaketak eta ekosistemen degradazioak eragindako biodibertsitatearen galerak sortutako gizarte eta in-

gurumen krisiei aurre egin behar zaie Busturialdean (Urdaibain ere). Han, gainera, erantzukizun gehigarria dago, biosferarako garrantzitsua izateagatik zaintzeko agindu zaiolako.

- Beste bat positiboa: tokiko giza garapen jasangarriaren aldeko apustua, hau da, lurraldetasunaren aldekoa.
- Eta hirugarren bat, konbikzio gisa: ezagutzaren aroan, pertsonen jakintza da baliabide nagusia —baliabide materialetatik edo azpiegituretatik harago—, eta aprobetxatu eta egokitu egin behar da autogestio ekimenetatik, kapital publiko ekintzailetik eta ikuspen handiko kapital pribatutik. Busturialdeak laguntza eta turismo zerbitzuak beste etorkizunik ez duela pentsatzea, bertan dagoen ezagutza mintegia gutxiestea da. Tituludun, langile, profesional, ikasle… asko dago bertan, eta Euskal Herriko batez bestekoen gainetik dago ehunekotan, biztanleria aktibo eta landunean, emakumezko biztanleria aktiboan…, baina horietako askok egunero beste eskualde batzuetara joan behar izaten dute lanera. Eta, beste leku batzuetan bezala, biztanleriaren zahartzeak eragina badu ere, badatoz ordezkoak, EAEko batez bestekoen gainetik baitago haurren batez bestekoa. Erreserbako erreserba ikusezina da.

1.3. Nondik pentsatu

Ez dago ekintza publikorik interpretazio eta inspirazio ideiarik gabe. Hemen proposatzen ditugun batzuk, eta horiek erakusten dute Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburu (2015) laudagarriez gain, beste era batera bizi behar dela, honako hauen bidez: lehentasuna emanez ingurunea eta ingurumen jarraibideak mantentzeari, barne hartuta ingurumen hezkuntza; ondasun komunak babestea; publikoa dena babestea; lurraldea zentzuz antolatzea; bizitza duina ematea, bizitza eta bizitza horren erreprodukzioa kapitalarenaren aurretik jarriz, gutxieneko kolektibo batzuen barruan bakoitzaren bizitza proiektuetarako gaitasunak sustatzea; berdintasunezko bultzada demokratizatzailea; partaidetzako gobernantza; jabetza pribatu arduratsuarekin bateragarriak diren autokudeaketa espazioak sortzea; hau da, interes orokorrari edo komunari eragiteko mugek zedarritzen dutena; era guztietako zaintzetan elkartasuna izatea; genero berdintasuna; elikagaien ekoizpen eta banaketa kateak lurraldeka banatzea, hurbileko merkatuak sustatuz; belaunaldien arteko elkartasuna; mugikortasun jasangarria; energia eta baliabideak aurreztea; sektore publikoari balio handiagoa ematea politiken erreferente eta ekimen

eragile gisa; gatazkak justizia eta ekitate irizpideetatik konpontzea; norbanakoaren askatasuna defendatzea; subiranotasun kolektiboa erabiltzea (alderdi nazionaletan, demokratikoetan, sanitarioetan, teknologikoetan, kulturaletan, energetikoetan, ekonomikoetan edo elikadurakoetan…).

Baina beste erreferente batzuk ere onartzen dira, aurrekoekin bateragarriak direnak, kontuan hartuta jasangarritasunaren printzipioak informatu eta baldintzatu egin behar duela oraingo edo etorkizuneko edozein jarduera ekonomiko: balio erantsiak sortzeko beharra, sektoreen arteko orekak, enpleguaren hazkundea, kontratuen kalitatea, enpresa ezarpen jasangarria, behar besteko okupazioa, lehiakortasuna ez galtzeko produktibitatea, oreka demografikoak, errenta maila, teknologia… Eta hori guztia beharrezkoa da habitat orokorrak kalitatea izan dezan eta gazteek lan aukerak izan ditzaten, baita eskualdean ere, eta ez dadila bizitzeko lekua bakarrik izan, kapital sozialaren haztegia edo aisialdi osasungarrirako gunea.

1.4. Pandemiaostea aukera gisa

Jakina, Administrazioaren ikuspegiak, tradizioz merkatuaren logika hutsa hartu baitu kontuan bideragarritasunaren zigilua duten proiektuak bultzatzeko orduan, ikuspegi handiagoa izan beharko luke pandemia osteko garaian, eskualde arteko irizpide orekatzaileak ere txertatuz, espero den eraginkortasuna ekitatearekin konbinatuz, logika komunitarioa duten proiektuei eta ekimen propioei laguntza emanez kapital publikotik gainerakoei eragiteko. Zain geratu beharrean, edo soilik baldintzak sortu beharrean (elkartegiak, aholkularitza), etorkizuneko ikuspegiak dituzten proiektuak sustatzeko eginkizuna hartu beharko lukete beren gain lurralde, eskualde eta toki administrazioek.

Busturialdean, denboran zehar, eta batez ere XX. mendean, lurzoruaren erabileraren aldaketa desegokia gertatu da, naturaren eta biodibertsitatearen giza kudeaketaren arteko oreka katea hautsiz. Urdaibaiko Biosfera Erreserba —natura eta giza kultura ekosistema babestu gisa, esparru legegile bat duena— murriztapena da erabilera desegokien aurrean, baina «azpiegitura berdea» ere bada (eremu naturalen eta erdi-naturalen sarea), onura orokorra ematen duena (uraren eta elikagaien hornidura, auto-erregulazio naturala, paisaia eta kultura), eta hori abantaila gisa ere uler daiteke natura errespetatzen duen erabileran oinarritutako ekoizpenerako, hori ezinbestekoa baita, inolako aitzakiarik gabe, ekosistemen degradazioa geldiarazteko, klima aldaketa

arintzeko, oreka ekosistemikoak berrezartzeko, eta inbertsio ekonomiko produktibo gisa, osasunean eta ongizatean errendimendu soziala izanik, ondasun eta zerbitzu komunak baitira.

Orain, pandemiarekin, konturatu gara zenbait arlotan egindako gastua —osasun sistema publikoa, oinarrizko produktuen eta produktu estrategikoen stocka, elikagaien hurbileko hornidura, azpibaloratutako lanbideak, informatika ezagutza orokorra…— inbertsioa zela; eta produkzio batzuen globalizazioa, berriz, akatsa.

Are gehiago, pandemiaosteko testuinguru berria honako hauetan dituen eraginen arabera neurtzen da: osasun sisteman gainerakoen baldintza gisa, harremanen zati baten digitalizazioan, trantsizio energetikoan eta ezagutzaren eta prestakuntzaren zentraltasunean. Bada, horrek guztiak Urdaibaiko ekosistemaren balioa handitzen du bi esanahirekin: zuzeneko bizitzaren eta osasunaren ondare altxorra izatea; eta, bestetik, pertzepzio soziala, uste izatea aktiboa izateaz gain, 47.700 zaindari dituela «ekoherritar» bihurtuak, garapen jasangarriarekin bateragarria izan dadin.

Landako triangeluaren (nekazaritza-basogintza-artzaintza) antzinako oreka, baserrien bidez lurraldea zaintzen zuena, desagertu egin da, eta leku egin dio ia esklusiboa, arreta handirik gabea eta, hein handi batean, esternalizatua dagoen bi laborantzako baso ustiategiari.

Busturialdean gai sozioekonomikoez hitz egin behar da berriz ere, baina ez korolario gisa edo nostalgia moduan, baizik eta Erreserba deklaratzeak nahitaez dakartzan betebeharren oinarri diren hiru hanka nagusietako —biodibertsitatea, garapen jasangarria eta gizartearen inplikazioa— bigarrena gisa. Gainera, nazioartetik kargua hartzeko edo betebeharrak ez betetzeagatik Erreserba izaera galtzeko arriskuarekin.

Horren harira, gogora ekarri behar da Urdaibaiko Saneamendu Planak aurrera jarraitzen duela modu sumingarrian urteetako atzerapenarekin, degradazio hidrografikoarekin urritasunera iritsi arte, errepide azpiegiturak erdi eginak, parke industrialen proiektuak geldiaraziak, eukaliptoaren inbasioa… Hori guztia ez da, noski, Urdaibaiko Erreserbaren errua. Alderantziz, gertatu egiten dira Biosfera Erreserba deklaratu arren, eta pentsa daiteke 70eko hamarkadako industria ereduaren gainbeheraren ondoren —globalizazio garaian ekoizpen modu berrietara egokitu ez zelako eta estrategia berriak atzeratu zirelako— nolako hondamendia bizi izango zen Erreserba bere inbertsioekin ezarri ez bazen. Patronatuak egiazko eskumenak izan bazituen —eta ez soilik informatzekoak edo aholkuak ematekoak—, seguruenik ez ziren erantzukizunak desagertuko. Berriro diot, gure arazoak ez datoz

Erreserbatik, baizik eta kapital publiko eta pribatuen inplikazio faltatik eskualdeko proiektuak definitzeko eta gauzatzeko. Baina, jakina, haiek badute euren zabarkeriaren errua nori bota.

Harrotasunak, asko edukitzeagatik, ez ditu ezkutatu behar alde ilunak eta akatsak. Izan ere, ikerketa honen beste egiaztapen bat da diskurtso instituzionalaren —formalki akatsik gabea, modernoa, legitimatzailea, etorkizun handikoa eta positiboa— eta errealitatearen arteko kontrastea —askoz ere itsusiagoa, problematikoagoa, desberdinagoa, etorkizun txalogarririk gabea…—, diskurtso fikzionatu bihurtu baita, interesez betea, eta horrek, gainera, zaildu egiten du errealitatea ikustea: padura inbadituak, mendi hondatuak, garapen jasangarririk gabeko ekonomia, landa bizimodu artifizializatua, makrodendak, atzeraka doazen tokiko ekoizpenak, errepide desegokiak... Ilargiaren beste aldea da hori. Hau da, gainbehera doan eskualdea, zoriaren esku utzia ia. Fikzioaren eta errealitatearen arteko kontraste hori da, hain zuzen ere, alde batera utzi beharko litzatekeen lehenbiziko gauzetako bat Busturialdeko arazoei aurrez aurre begiratzeko eta herritarrek eta erakundeek elkarren artean aurre egiteko. Horretarako, eragileek, erakundeek eta alderdiek elkar hartu behar dute toki mailan, baina hori ez da iristen.

COVID-19k produkzio aparatuan ere izan duen eragin suntsitzailearen ondoren, balorazio sozialeko irizpide berriak planteatu beharko dira. Bizitzaren ahultasuna ikusita, aukera izan daiteke irizpide horiek modu seguruagoan formulatzeko arazo garrantzitsuenetan oinarrituta. Esku hartze publikoaren eragile izateko aukerak, zero defiziten mozalik gabe, are beharrezkoago egiten du Euskal Herrian eta Busturialdean arazoak birdefinitu beharra, egoki bideratu daitezen eta Biosfera Erreserbaren jasangarritasuna kontuan hartuko egin behar izateko erantzukizun erantsiarekin gainera.

2. EGOERAK, INDARGUNEAK ETA AHULEZIA SOZIOEKONOMIKOAK

Badira faktore batzuk, indarguneak edo ahuleziak baino gehiago, egitatezko egitura egoera desberdinak besterik ez direnak. Horiek aipatu ondoren, zenbait indargune edo ahulezia aipatuko dira, barnekoak direlako. Mehatxuak eta aukerak, aldiz, AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarguneak, aukerak) matrize deskribatzailearen kanpoko faktore gisa, ez dira Bizkaiko beste eskualde batzuen oso bestelakoak, eta, beraz, ez ditugu aipatuko.

Balantzea negatiboa da, eta gainbeheran dagoen eskualde bati dagokio, dinamismorik eta proiektu ekonomiko-sozial publiko nahiz pribaturik gabea.

2.1. Egitatezko egoerak

- Biztanleriari dagokionez, Busturialdean nolabaiteko *gaztetzea gertatzen ari da behetik* (jaiotza tasa) Bizkaiarekin alderatuz gero, baina, beste leku batzuetan bezala, gora egin du *zahartzearen* ehunekoak eta 75 urtetik gorakoen kopuruak, bizi itxaropena luzatzearen ondorioz, nahiz eta pandemiak *hainbat hildako* eragin dituen urte batean (60 inguru).
- 2008-2015 aldian *salmentak eta balio erantsia* nabarmen jaitsi ziren eskualdean, baita ekonomia ere, oro har. Baina 2016an bakarrik berreskuratu zen 2008ko pc BPGd, ez ordea Gernika-Lumon, 2017an oraindik ez baitzen 2008ko kopurura iritsi.
- *Busturialdeko lehen 100 enpresen* erradiografia 2015. urtean hauxe zen: 2 enpresa handi, 4 enpresa ertain-handi, 11 ertain, 28 txiki eta 65 mikroenpresa. 100 langile baino gehiago zituzten 9 enpresa baino ez zeuden. Horietako 6k Bermeon zuten egoitza —Wärtsilä Iberica izan ezik, kontserba enpresak beste guztiak— eta beste hirurek (Maier, Losal eta Ebaki) Ajangizen, Gernikan eta Muxikan, hurrenez hurren. Lehenengo 20 enpresek eskualdeko fakturazio osoaren % 80 hartzen zuten, eta gainerako 80 enpresek (enpresa txikiak eta mikroenpresak) fakturazioaren % 20. Enpresa handi eta ertainen eskasia dago, eta ugari dira (100etik 55) urteko bi milioiko diru sarreretara iristen ez direnak. Gernikaldean askoz ere handiagoa da enpresa txikien proportzioa.
- Bermeo, 30.803 eurorekin, eskualdeko batez bestekoaren gainetik zegoen *per capita barne produktu gordinean* (pc BPGd), eta Gernika-Lumo baino askoz ere lehenago (23.381 euro), han bereziki txikia baitzen, EAEn baino ia 10.000 euro gutxiago. Krisiak eragin handiagoa izan zuen Bermeon (–% 8,53 2010ean) Gernikan baino (–% 3,5), baina 2012an eta 2017an gora egin zuen arrantza kanpaina bikainengatik. 2008ko krisialditik, ordea, itxura laua du Gernika-Lumok. Produktu gordinaren eta tokiko enpleguaren beherakadari biztanleria landunaren parte batek egiten dio aurre (asko dira horiek), kanpoan lan eginez.
- *Hiperespezializazioagatik* kaltebera bada ere, Bermeok eredu funtzional bat izan du lehen sektorea eta industria sektorea integratuta (al-

tura handiko, alturako eta baxurako arrantza, batetik, eta kontserba fabriketako eraldatze industrialak eta markadun merkaturatzea, bestetik), enpresa armadore handien laguntzarekin. Era berean, hainbat eremutan finkatu da Muxika. Mundakak turismoa aprobetxatu du, eta Lamiaranen kokapenagatik, Bermeoko kontserba-fabriken berrikuntza. Gernika-Lumok ez du eredurik, zerbitzuetan izan ezik, non eta ez den Maier zenbatzen.

- Gernika-Lumoko *zerbitzuek* balio erantsi gordinean (BEG) duten pisua Bizkaiko batez bestekoa baino handiagoa da, Busturialdean eta, bereziki, Bermeon ez bezala.
- Korrelazio falta dago pc BPGd eta errenta rankingen artean. Pc BPGd-ren indizea ez bezala, *errenta pertsonal erabilgarriarena* Bizkaiko batez bestekoarekin bat dator. Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) 20 eskualdeetatik 11. eskualdea da, eta horrek esan nahi du eskualdeko biztanleria landunak sortutako errentez gain, biztanleria landunaren parte batek eskualdetik kanpo sortutakoa gehitu behar dela, bai eta beste mota bateko errenten rol gero eta handiagoa ere (transferentziak pentsioetara, ondare errentak…). Biztanleria aldaketen adierazlea da hori, inolaz ere.
- Per capita produkzioan ez bezala, hartan Bermeo nabarmentzen baita, 20 herriek ez dute desberdintasun izugarririk *per capita errenta erabilgarriari* dagokionez, baina alde esanguratsuak badira, muturrekoek 122,2 (Sukarrieta) eta 84,7 (Elantxobe) indizeak baitituzte, 100 izanik EAEko indizea. Ez dago tarte handirik Gernika-Lumo (97,2) eta Bermeo artean (93,7), eskualdeko rankinean 14. eta 18. lekuetan baitaude horiek, hurrenez hurren.
- Errentaren banaketan dagoen *genero desberdintasuna*, eskualdean egon badago ere, ez da EAEn eta Bizkaian bezain nabarmena —Bermeon izan ezik—.
- *Euskararen* presentzia nabarmena da gizarte bizitzan, baina ez eremu guztietan. Erronka nagusia da euskara lanbide eta harreman eremu guztietan sozializatzea, immigrazioaren ondorengoetan, bai eta migratzaile eta emigrante gazteenetan ere.

2.2. Indarguneak

Biztanleria

- *Hazkunde demografikoa* Bizkaikoa eta EAEkoa baino handiagoa da, 80ko eta 90eko hamarkadetako joera hautsiz. Horretan lagundu

egin dute immigrazioak, jaiotza tasa hobetzeak eta beste eskualde batzuetan baino hazkunde begetatibo txikiagoa izateak.

- Busturialdean jaiotako *biztanleria lurraldean finkatua* dago.
- Eskualdea, neurri batean, *biztanleriaren eta ekonomiaren aldetik deszentralizatu* egin da burualdeekiko —Gernika-Lumo eta Bermeo— eta, aldi berean, eskualdez kanpoko fluxu gehiago ditu biztanleriak.
- *Biztanleria atzerritarra* etortzearekin batera, aldaketa handia gertatu da lurraldeko produkzioan eta zerbitzuetan eta biztanleria gaztetzeko, haien bi heren 40 urtetik beherakoa baita.
- EAE osoan, *Europako immigrazioa* nagusi den eskualde bakarra da, eta, oro har, kualifikazio handixeagoa dute beste eremu geografiko batzuetatik datozenek baino.

Zenbait gizarte eta azpiegitura baliabide

- *Unibertsitateko* erdi eta goi mailako *ikasketak* dituen biztanleriaren indizea EAEko batez bestekoaren parekoa da (% 25,7), baina Bermeon txikiagoa da indize hori. Gernika-Lumon, berriz, Bizkaian baino handiagoa da (% 29,7). Ezagutzaren eta giza baliabideen lurralde mintegia da eskualdea, inolaz ere.
- Biztanleria aktiboaren eta biztanleria okupatua izan daitekeenaren ehuneko oso handia gehitzen bada, *giza faktorea* da eskualdeko baliabide nagusia, zaindu eta kudeatu beharreko Biosfera Erreserbarekin batera.
- *Biztanle euskaldunen* ehunekoa oso handia zen 2016an, % 73,3, EAEko batez bestekoarekin (% 42,2) alderatzen badugu. Hori balio kolektiboa da Euskal Herriarentzat.
- *Emakumeen jarduera tasa* oso handia da, eta, beraz, langabeziak ere eragin handiagoa du emakumeengan, eta feminizatu egin da.
- Bizkaian, eskualde bakar batek ere ez du *emakumeen okupazio koefiziente* handiagoa (% 74,4) Busturialdeak baino. Busturialdean emakumeen autonomizazioaren martxa luzea azpimarratu behar da, beste eskualdeetan baino nabarmenago egin baitu aurrera. Baina, normalean, erantzukizunaren eta dedikazioaren gainkarga izaten du, eta horrek ñabartu egiten du izaera emantzipatzaile hori, eta are gehiago etxeko ekonomiaren eta adinekoen zaintzen kudeaketa gehiena gehitzen bazaio.
- *Genero arrakala* Bizkaikoa eta EAEkoa baino txikiagoa da biztanleria aktiboan. Nabarmen murriztu da hogeita hamar urtean.

- *Bizi kalitate* handia dago, paisaia ingurune erosoa eta balio ekologiko handikoa.
- *Herritar aktiboak,* kapital soziala, hiri irekiaren esperientzia positiboa eta mugimendu asoziatibo zein artistiko-kultural handia ikusten dira.
- Busturialdeko *biztanleria lurrarekin identifikatzen* da, eta paisaia, natura eta kultura balioak estimatzen ditu. Garapen jasangarriko proiektuei ekiteko ahalmena dakar horrek.
- *Garraio publiko* nahikoa eta bidaiarientzako trenbidea ditu.
- Enplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko *agentziek* trebakuntza dute ardatz (Behargintza-Lanbide Ekimenak, Gernikan eta Bermeon), eta prestakuntza eskaintzen dute garapen jasangarriaren, enpleguaren edo sektore turistikoaren esparruetan.

Egitura ekonomikoa

- *Jarduera sektorial mistoetarako* joera dago (lehen sektorea eta industria) hainbat herritan (Muxika, Nabarniz, Murueta, Ea, Ajangiz...), baita hiru sektoretan ere (Gernika-Lumo, Bermeo), jarduera garrantzitsu bakar baten ereduaren aurrean.
- Busturialdeko *lehen sektoreak,* ingurunean, paisaian eta kalitate handiko ekoizpenetan dituen ondorioekin, Bizkaiko batez besteko pisu espezifikoa baino handiagoa du balio erantsi gordinean: eskualdean sortutako balio erantsiaren % 15 nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzako jarduerei dagokie, eta hirukoiztu egiten da biztanleria landunak sektorean duen pisua (% 3,11 2018an). Bermeok boskoiztu egiten du. Arrantzaren artisau irudi sozialak ez bezala —eskualdeko lehen sektorean pisu handiena duena— produktibitate handia du.
- *Ustiategien kopuruak* eta erabilitako azalerak hobera egin du 80ko eta 90eko hamarkadekin alderatzen baditugu, ekoizpen berriekin (txakolina, labore ekologikoak...) eta behi-aziendaren espezializazioarekin, baina egonkortzeko joera du. Garrantzitsua da nekazaritza ekologikorako azalera handitu izana. Zuraren ustiapen intentsiboak jarraitzen du, baina lurzoruetarako kaltegarriak diren espezieak dira nagusi. Zura eraldatzeko industria dago, baina balio erantsi txikikoa, Egoin izan ezik.
- *Arrantzak* pisu erlatiboa handitu du Bermeoko ekonomian, eta EAEn liderra da alturako arrantzan eta atunontzi izoztaileetan; ez, ordea, baxuran, non, hala ere, zati esanguratsua baitu.

- *Industrian lan egiten duten eskualdeko biztanleen* ehunekoa (% 20,6) Bizkaian baino lau puntu handiagoa da eta EAEko batez bestekoa baino (% 19,2) zertxobait handiagoa. Baina biztanleria landun horren zati handi batek eskualdetik kanpo lan egiten du. Biztanleria okupatuak ez du bere oroimen industriala galdu, baina ia lan aukera bakarrak eskualdetik kanpo aurkitzen ditu; izan ere, garapen autozentraturik ezean, eskualdea ez da hazi ahal izango lukeen bezala.
- *Errenta erabilgarria* lurralde historikoaren batez bestekoan dago.
- Urdaibaik, *ondareari* dagokionez, natura ondarea, ondare historikoa, artistikoa eta kulturala izaten jarraitzen du, biztanleen bizi kalitate onerako eta jardunean ari diren pertsona kualifikatuak, balio erantsi immaterial handiko enpresak eta adinekoak erakartzeko, bai eta turismo ez masiboa erakartzeko ere.

2.3. Ahuleziak

Biztanleria eta bere mugimenduak

- Zahartze tasa Bizkaikoaren antzekoa da, baina *mendekotasun demografiko* eta ekonomiko handiagoa du.
- *Etorkinekiko* komunikazioa bultzatzeko neurri batzuk hartu beharra dago, ghettoak edo inkomunikazio iraunkorrak saihesteko.
- *Gazteek lan itxaropenik* ez dute eskualdean, ez baitie lan aukerarik ematen.

Egitura ekonomikoa

- Busturialdea, oro har, *gainbehera ekonomikoan* murgilduta dago, eta ez dago ekoizpen sare koherenterik edo autozentraturik, ez eta inbertitzeko kapitalik edo proiektu kolektiborik ere. Eskualdeko eskulanerako aukerak galarazten ditu. Ez da atzeraezina, baina ekimenak behar ditu beste politika askoz ere proaktiboago eta zentratuago batetik abiatuta.
- *Pc BPGd* Busturialdean EAEn baino (33.835 euro) % 18,7 txikiagoa zen (27.521 euro) 2017an. EAEko 20 eskualdeetatik 18. lekuan dago rankingean. Gainbehera ekonomiko orokorraren adierazlea da hori, inolaz ere.
- *Enplegua* da Busturialdearen gainbeheraren beste adibide bat. Gelditu egin zen. Lanpostuen kopuruak ez du gora egin 17 urte-

tan. 2000. urtean eskualdeak 16.668 lanpostu zituen, eta 2017an 16.741 lanpostu ditu, soilik 73 gehiago, hau da, Bizkaiko establezimenduetako guztizko enpleguaren % 3, eskualdeko biztanleria lurralde historikoaren % 4 denean.

- Eskualdeko herriak oso desberdinak dira *per capita produkzioari* eta *enplegu sorrerari* dagokienez, eta bost udalerritan biltzen da: Gernika-Lumo, Bermeo, Ajangiz, Muxika eta Mundaka, eskualdeko enpleguen % 86,4rekin. Hori nahikoa ez denez, biztanleria landunaren zati handi bat kanpoan ari da lanean.
- Toki mailan, *per capita BPGd-ren eskualdeko batez bestekoa* oso desberdina da. EAEko indizea 100 izanik, kontraste handia dago Ajangizko indize handiaren (637,7) —Maier efektuagatik— eta Mendatako indize oso txikiaren (30,1) artean.
- Lanpostuak etengabe galtzen ari dira *lehen sektorean*, eta nekazaritza sektorera bideratutako hektarea kopurua etengabe eta poliki murrizten ari da. Nekazaritzako ustiategien garapenean, gaur egun, geldialdia dago. Salbuespenak txakolina eta bazkarako artoa dira.
- *Basoaren degradazioa* nabari da —eukapiltoaren ezarpen handia—, eskasi hidrikoa eta landare espezie inbaditzaileak (*Baccharis halimifolia* eta *Cortaderia selloana*), horiek gero eta gehiago baitira.
- *Industria* gainbehera doa eskualdean, lehiakortasuna galtzen ari da, baina berrikuntza bidez hobetu liteke. Hala ere, orain arte ez da berrikuntzara eta nazioartekotzera bideratu.
- *Industriaren pisuak* balio erantsi gehigarrian eta enpleguan pisu handiagoa du Bizkaian baino, baina gero eta txikiagoa da. Azken 20 urteetako egoerak alderatuta, aldaketa handia izan da: industriaren pisua 8 puntu jaitsi da Bizkaian eta 11,7 Busturialdean. Hiru bosturtekotan industriaren pisu ekonomikoak 8 puntu egin du behera Gernika-Lumoko tokiko balio erantsi gehigarrian, eta 7 Bermeon.
- Nolanahi ere, balio erantsi gehigarri industriala % 19koa izanik, EAEkotik (% 20,9) hurbil dagoen batez bestekoa sortzen du eskualdeak. Beraz, *eskualde industriala* izaten jarraitzen duela esan dezakegu, baina desindustrializazio kezkagarria gertatzen ari da pixkanaka eta etenik gabe. Gernika-Lumoren kasuan, ia 3 puntu berreskuratu dira 80ko eta 90eko hamarkadetako porrotaren aldean. Izan ere, garai hartan, industria ugari itxi ziren, kuberteriak, metalurgia, automobilgintza, motorrak… eta eragin handia izan zuen horrek. Baina egungo % 15ekin eta azken urteetako geldialdiarekin ez da iristen Bizkaiko batez bestekora (% 19,3). Kalte handia egin dio 2008-2014ko krisiak.

- *Eraikuntzak*, eskualdeko indarguneetako bat izan zena, 5 puntuko beherakada handia izan du. Hala ere, Bizkaiko batez bestekoa baino hiru puntu handiagoa da oraindik.
- Ez dago *balio erantsi handiko industria* eta *zerbitzuak erakartzerik* (enpresentzako ekoizpen zerbitzuak, ingeniaritzak, I+G laborategiak, industria adimendunak, sormenekoak, kulturalak edo 2.0 edo 4.0koak), ezta espero ere, eskualderako industria edo garapen politika errotik aldatu ezean.
- Ez dago *zerbitzu sektorean* indartu beharreko adarrei buruzko eredurik, baina bereziki interesgarriak izango lirateke balio erantsi handiena dutenak (osasuna, profesionalak, zientifikoak eta teknikoak), bai eta artistikoak eta aisialdikoak ere.
- Gehitu beharreko beste kontu bat da *zaintza zerbitzuei* balioa ematea, pertsona askoren bizitzarako —zainduak eta zaintzaileak— beharrezkoak izateaz gain, lanean intentsiboak baitira.
- Instituzionalki ez dago argi zer *turismo ereduren* inguruan oinarritu nahi den: masiboa edo jasangarria.

Zenbait gizarte eta azpiegitura baliabide

- Ezin da *tokiko talentu* ihesaz hitz egin biztanleria beste euskal eskualde batzuetara lanera joaten denean, baina bai esan daiteke tokian ez direla aprobetxatzen bertako *giza baliabide* garrantzitsuak. Euskal Herrirako haztegia, baina barruan gutxi aprobetxatua.
- Busturialdea 8. lekuan zegoen Bizkaiko 11 eskualdeen *langabezia maila erlatiboan.* Eta hori, kontuan hartuta Lurralde Historikoari ere ez doakiola batere ondo; izan ere, EAEko Balio Erantsi Gehigarriaren % 48,2 izanik, EAEko langabeen % 57 zituen 2018an, eta EAEko batez bestekoa baino puntu bat-bi handiagoa da azken urteotan izan duen batez besteko tasa. EAEko eskualde guztiekin alderatzen badugu, Lanbideren sailkapenean 30etik 21. lekuan dago Busturialdea, txikienetik handienera, langabezia mailan. Hau da, ez doa ondo.
- Hala ere, arazoa areagotu egiten da *emakumeen langabezian.* Langabeziak betidanik emakumezko aurpegia izan du Busturialdean gizonezkoa baino gehiago, biztanleria aktiboan duen pisuagatik. Pandemia hasi baino hilabete bat lehenago, emakumeak ziren langabeen % 54,6 eta langabezian ez zeuden enplegu-eskatzaile garbien ia bi heren.

- EAEko errenta txikienen eta handienen arteko *barne desberdintasunak* leku txarrean jartzen du Busturialdea eskualdeen arteko rankingean (18. lekuan 20tik).
- *Hirigintzako lurralde plangintza* ez da eskualdekoa, etxebizitza huts ugari daude eta hirigintza presio handia dago Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gainean, egungo etxebizitza parkearen birgaitze energetikoan aurrera egiten den bitartean.
- Bizikleta bezalako *garraio alternatiboa* gutxi erabiltzen da, eta bidegorrien sarea handitu beharra dago.
- *Lurzoru industrialaren* eskasia (Bermeo) eta lehen industrialak ziren eta orain ia aurri egoeran dauden (Gernikako ibarra) edo berrerabilgarriak diren (Inama) eremuetako lurzoruen berrerabilpen eskasa.
- Hainbat bosturtekoko konpromisoen ostean, oraindik egiteke dago Bermeoko eta Gernika-Lumoko *errepide bidezko komunikazioen* hobekuntza, ondo konektatutako eskualdea izatera iristeko.
- Ez dago unibertsitate *ikasketetarako zentrorik,* eta eskari berrietara egokitutako goi mailako lanbide heziketako zentroen eskasia dago, bai eta graduondokoena ere.
- Adierazgarria da eskualdean *huts egin duten proiektuen* zerrenda. Batzuk interesgarriak (Urdaibaiko interpretazio zentroa Gernika-Lumoko Idigan); beste batzuk, zalantzagarriagoak, bideragarritasunagatik (herri kirolaren interpretazio zentroa edo Ibarrola museoa, biak Kortezubin), edo aukeratutako kokalekuagatik eta izan zitzaketen inpaktuen beldurragatik (Guggenheim Museoa, Sukarrietan); eta beste batzuk, tamalgarriak izanik, zorionez, gainbehera etorri zirenak (padura lehortzea, golfa, estropada eremua, 1 Formula Kanpantxun).
- Arazoak daude *hornidura elektrikoan, saneamenduan, gasifikazioan eta telekomunikazioen estalduran.*
- Badira herriak elikagai *denda* bakar bat ere ez dutenak.
- *Bidezidor* asko daude seinaleztatuta, baina haietan ez da mantentze lanik egiten.

Baliabide ekonomikoak eta instituzionalak

- Ez da berreskuratu atzeraldi handiaren (2008-2014) aurreko establezimendu ekonomikoen kopuruaren hazkunde erritmoa, eta horrek beste eskualde batzuekiko *deslokalizazioa* adierazten du. COVID-19k azpimarratu egingo du.

- *Enplegu maila* Busturialdeak Bizkaian duen batez besteko populazio maila baino txikiagoa da, eta langabezia Bizkaiko eta EAEko batez bestekoa baino handiagoa da.
- *Per capita errenta erabilgarria* desberdina da, eta nahiko polarizatua dago errenta handiko udalerrien eta pobretu diren beste batzuen artean. Lan errenten pisua jaitsi egin da, geldialdiaren eta zahartzearen neurrira.
- *Errenta pertsonal erabilgarriaren* alde nabarmenak daude *sexuen artean:* 24.576 euro gizonek eta 20.175 euro emakumeek.
- Langabezia femeninoagoa bada, *Diru sarrerak Bermatzeko Errenta* jasotzea ere femeninoa da.
- *Gazteen langabezia* EAEko batez bestekoaren antzekoa da, baina Bizkaikoa baino handixeagoa.
- *Saltoki txikiak* etengabe ixten ari dira, eta pandemiaren ondoren are okerragoa izango da, jarraitzeko zalantzak zituztenetatik harantzago ere izango baitu eragina.
- Badirudi *ostalaritza eskaintza* desegituratu egin dela, establezimendu ezagunak itxi baitira eta zenbait hotel proiektuk huts egin baitute.
- *Turismo eskaintza* ez dago oso egituratua, eta kudeaketa erakundeen artean deskoordinazioa dago. Turismoaren urtarokotasun handiegia.
- Urdaibaiko baliabide naturalei eta kulturalei *balio nahikorik* ez zaie ematen produktu turistikoetan.
- *Urdaibai markaren* nabaritasun eta erregistro ofizialik eza, baina gero eta enpresa gehiagok hartzen dute marka hori.
- *Ekimen ekintzaile eta proiektu kolektibo* gutxi daude eskualde berritzaile bihurtzeko.
- *Patronatuaren* eskumenak berrikustea komeniko litzateke —informaziotik eta aginduzkoa ez den aholkularitzatik harago joan dadin—, eta saihestu beharko litzateke erantzukizunak udalen, Aldundiaren eta Gobernuaren artean desagertzea, lidergo argia izanda.
- *Ekintzailetzarako, autoenplegurako eta enpresa haztegietarako laguntzak* ez dira suspertzeko tresna nahikoak. Suspertzeko plan estrategikoa behar da, garapen konpromisoekin, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak batera bermatua.
- Ez dago *garapenerako agentzia integralik*, ez eta enpresen inkubagailu indartsu eta eraginkorrik ere eskualde mailan.

Azkenik, argi baino itzal gehiago egon arren, erremediagarriak dira borondate politikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta soziala badago, norabide komun eta partaidetzakoan aurrera eginez.

3. HAMAR DILEMA ETA EGON DAITEZKEEN AUKERAK

1. Nola lortu parametro horien arteko oreka, gaur egun desoreka handian egonik?

Eskualdeko eraikin soziala sostengatzen duten lau euskarrietatik (espazio fisikoa, egitura ekonomikoa, arlo soziala eta sare instituzionala), *ingurumenak* arazo enkistatuak ditu, baina, gutxienez, habitata zaintzeko nolabaiteko protokoloa badu; arlo *ekonomikoak*, berriz, okerrera egin du 1970eko hamarkadaren amaieran hasi zuen agonia luzean, eta egituratzen duten sektoreetako bakar batean ere ez du irtenbiderik aurkitu garapen jasangarrian oinarrituta; arlo *soziala* da sendoena, giza eta kultura baliabide ahaltsuak ditu, bizia, kualifikatua eta irudimen handikoa da bere ekimenetan, baina berdintasun ezak ukitua; eta sare *instituzionalak*, berriz, tresna garrantzitsuak dituen arren, ez du proiektu kolektiboa definitzen eta egituratzen, gelditua baitago errutinazko kudeaketa diskurtsiboaren bidez.

Atal honen azken puntuan parametro horien guztien arteko oreka, dauden bezala, nola lortu iritzia eskaintzen da.

2. Zein jarduera sektorialetan komeni da apustua egitea?

Basogintzaren alde bakarrik egin behar al da apustu, barne hartuta zuraren industria, arrantzaren alde, kontserba fabrikak ere, laguntza eta turismo zerbitzuen alde eta automobil industria osagarriaren alde? Industria utzi, lehendik dagoena izan ezik? Eta hala ez bada, zein industria hartu beharko litzateke: balio erantsi handikoa edo txikikoa? Hobe al da elikagaien eta zur manufakturatuaren industria bakarrik aztertzea? Edo, harantzago joatea komeni bada, zein industria berrirantz deskarbonizazioaren garaian?

Ez du batere laguntzen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko *Lurralde Plan Partzialean* aipatzen zen ereduak. Arrantzan, basogintzan, turismoan eta laguntza zerbitzuetan espezializatzearen alde egiten zuen, dibertsifikazioari eta industriari uko eginez. Ez zuen industria jarduera berririk ikusten, ez eta I+G+B eta 4.0 ekonomiako jarduerarik ere, baina jarduera horietarako ondo hornitua dago eskualdea giza baliabideetan eta bizi kalitate erakargarria du —balio erantsi handiko enpresak eta kanpotar enplegu kualifikatua erakartzeko—; horiek dira gaur egun edozein plangintzatarako aldea egin dezaketenak. Eta, noski, telelangileentzako, autonomoak edo soldatapekoak, egoitza izan

liteke, berdin dio zein sektoretan, bizi kalitate ona eskaintzen duelako. Horretarako, espazio berean lan egiteko *(coworking)* instalazioak prestatu beharko lirateke. «Jakintzaren gizartean» jakintza da edozein lurraldetako baliabide nagusia. Arrantzan, basoan eta zerbitzuen sektorean soilik oinarritzea, batez ere turismo zerbitzuetan, desindustrializazioaren alde egitea da higaduragatik.

Busturialdeko zerbitzuen sektoreak —sarbide unibertsalizatuaren ideian— eskatzen du arlo publikoak bereganatzea etxeko lanak eta zaintza lanak, eta osasun, hezkuntza, laguntza arloko zerbitzu sozialak… aztertzea ere.

Izan ere, irudi turistikoa indartzeko lagungarri izan litezke honako hauek: Bermeoko kirol portuaren garapena, bigarren Guggenheim bat Gernikan Erreserbari eragin gabe, Juntetxea bisitatzeko esperientzia hobetzea, Foruko Curtiduria museoa zaharberritzea. Errematea, berriz, ametsa gehiago, *Gernika* Gernikara izango litzateke, txokolateaz gain.

Ekimen posible horiek, oso garrantzitsuak izanik ere, ez dira beharrezko proiektu integralagoaren ordezko. Proiektu integral horrek industria aurreratuan oinarritu behar du, lurraldea, jasangarritasun baldintzak eta giza baliabide egokiak baititu horretarako.

Industria sektorean, eta haren geldialdia ikusita, zenbait gai berrikusi behar dira industria lurzoruari, plangintzari, pabiloien aprobetxamenduari, baliabide hidrikoei eta era guztietako azpiegiturei buruz, edo sektore publikoa indartu sektore eragileetan. Azken berri ona da 25 milioi eurorekin ekingo diotela Sollubeko sarbideak hobetzeari.

3. Busturialdeak Biosfera Erreserba —kontserbatua eta izoztua— edo etorkizun ekonomiko jasangarria besterik ez al du?

Giza baliabide kualifikatu ahaltsuak izanda, nola ez baliatu ekonomia propio baterako? Historikoki ingurune naturala eta soziala elkarrekin joan diren —modu baketsuan edo gatazkatsuan— Europako erreserba bakarretako bat izanik, nola ez aprobetxatu esperientzia hori munduari begira eredu izateko?

Ez nator bat *soilik ingurumena zaintzeko* estrategiarekin, inbertsio produktiborik gabe; izan ere, eskualdearen etorkizuna parke tematiko izatera zigortuko litzateke, bertako gazteen lanaren kontura, emigratu egin beharko bailukete edo kanpora joan lanera.

Beste era batean esanda, garapen jasangarriko estrategia behar da, sektore batzuetan hazkundea eta beste batzuetan beherapena izango dituena.

4. Busturialdeari abantaila ematen al diote digitalizazioak, elikadura berriak eta trantsizio berdeak, kontuan izanda Biosfera Erreserba eta giza baliabide kualifikatuak daudela eskualdean?

Busturialdea-Urdaibai ondo kokatua dago munduko ekoizpen eredua aldatzeko bi prozesu nagusietan: *trantsizio berdea* eta *digitalizazioa.* Lehenengorako eskualde babestua eta itsasoa ditu, eta eredugarria izan daiteke deskarbonizazio prozesuetan eta nazioarteko jasangarritasun konpromisoetan. Etorkizuneko ekoizpen sareak bat etorri behar du ikuspegi horiekin. Urdaibaiko Patronatuak eta Ekoetxeak aniztasuna eta ingurunea zaintzeaz hitz egiten digute. Gainera, bere marka irudia du elikadura berrirako produktuetan. Digitalizazioa aukera bat izan daiteke, herrigune jendetsuenekiko distantzia fisikoagatik eta kualifikazio mailagatik.

Urdaibain garatzeko leku egokia izan dezakete ekonomia zirkularrak, birziklapenak, jarduera jasangarriek, energia garbiek. Era berean, ez da ahaztu behar pandemiaren ondoren estrategiko bihurtu behar direla funtsezko ondasunen birkokatzea —hornidura eta erabaki segurtasunagatik— eta giza baliabide kualifikatuak eta ezagutzak izatea, ziurgabetasunak kudeatzeko.

Eta kudeaketa kolektiboari dagokionez, nabarmena da *eskualdeak balio sinbolikoa* duela gizalegezko eta bakezko balioen kulturarako eta euskal askatasunak erakusteko, gai hauen inguruko biltzar txikiak, mintegiak eta abar egiteko egokia baita, gai ekologikoekin batera.

Eta horretarako hortxe dago azken 30 urteetan izan duen *biztanleria aldaketa,* oso maila desberdinetan: eskualde banaketan, nolabaiteko deszentralizazioarekin; adinen araberako osaeran, zahartzea nagusi izanik, baina behetik gaztetuz doana; jaiotzen jatorrian, Europako ekialdeko pertsona asko baitaude, eskualdeko batez bestekoa baino gazteagoa eta lan egiteko adinean; biztanleria landunaren bolumenean, batez ere emakumeak lanean presentzia masiboa duelako, eta, horren ondorioz, lan eskaria batez ere femeninoa delako; ikasketa mailan, eskualdea biztanleria okupatuaren eta kualifikatuaren haztegia baita; euskararen erabilerari eustean, kuantitatiboki hobetzea zaila dirudiena (ezagutza maila sozial handia duelako), baina bai kualitatiboki (jarduera eremuetan eta etorkinen taldeetan sartu behar da).

Merezi du biztanleria aldaketa hauek aprobetxatzea inguruko baliabideak sortzeko.

Busturialdean eskuragarri dago giza baliabide nagusia, hauxe da, kualifikazio maila, eta horrek haztegi baliagarri bihurtzen du euskal komunitate osoarentzat, eskualdearen biziberritze ekonomikorako, baldin eta proiektua(k) eta kapital publiko sustatzailea baldin badaude, eta kapital pribatua, kooperatiboa edo soziala (inbertitzailea) baldin baditu, etorkizunari begira apustu egiteko prest.

Hala ere, Euskadi NEXT (Euskal Berreskuratze eta Erresilientzia Programa 2020-2026) proposamenean jada EBEPE-PERTE (Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldaketarako Proiektu Estrategikoa) publiko-pribatuak ziren zenbait ekimen biltzen dituenean, badirudi inbertsio horiek ez direla Busturialdeatik igarotzen eta, horrenbestez, hamarkada baterako galduko litzateke aukera. Euskal programa honen arabera —Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin (BEEP-PRTR) lerrokatua, zeinak hurrengo belaunaldiko Europar Batasuneko Europako funtsen inbertsio-proposamenak jasotzen dituena, COVID-19 pandemiaren ondorioei eta etorkizunari aurre egiteko, trantsizio berdea eta digitalaren bidez—, eskualdea erdi abandonatuta egongo litzateke berriro.

Euskadi Next-en balio osoa 13.135 milioi eurokoa da, eta horietatik 220 milioi soilik joango lirateke eskualdera; hau da, % 0,016 Eusko Jaurlaritzak Sanchezen Gobernuaren proposamenari egindakoan. 2020ko abenduan egin zen Euskadi Next. Gobernuen arteko elkarrizketen ondoren, inbertsio proposamen berria egingo dute. Ea norantz okertzen den!

Egungo proiektuen zerrenda aztertuta, honako hauek baino ez dira sartu: Gernikarako Guggenheim, Bermeoko dike batean egindako inbertsioa —RESINA (Hondamendi Naturalekiko Erresilientzia) proiektu estrategikoan ikergai hutsa izango dena— eta, agian, Txatxarramendin geratzen den Aztiren zatia ere elikagaien arloan sartuko da. Eskualdea egokia da, edo izango zatekeen, aurreikusitako inbertsio handietako batzuetarako: Osakidetzak ikerkuntzan; adineko pertsoneei lotutako sektoreetan —zilarrezko ekonomia edo *silver economy* deritzona—; zainketen ekonomian; OSASUNBERRIn (COVID-19 eta etorkizuneko pandemiak kudeatzeko diagnostiko eta terapia irtenbide integrala) farmazeutikekin; Osasun Sailaren Business Intelligence (BI) estrategian; industria lurzoruari balioa emateko, hura suspertzeko eta proiektu estrategikoak ezartzeko; EAEko trantsizio berde edo digitalerako plan integralean edo LHn zeharkako ekintzailetza bultzatzeko; Data Center berrian; I+G farmazeutikoan; Basque Food Ecosystem (Aztin) delakoan eta Bizkaiko Food Hub delakoan, Euskadi Basque

Country Tourism Intelligence delakoan… Oraingoz, Iberdrola, Ingeteam, Sener, Petronor —energia berriztagarriak, hidrogenoaren korridorea eta elektrolizatzaileak— edo Gestamp ere ez dira Urdaibaira begira jarri. Erreserbak gabezia handiak baditu ere (landare exotiko inbaditzaileak, mendi publiko eta komunalik ez izatea, landazabal atlantikoa desagertzea, hirigintza presioa tantaka…), «habitat naturaleko» beste proiektu batzuen esparruan baino ez da aipatzen Urdaibai, «Erreserba berreskuratzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako plana» pentsatzen hasteko.

Prentsaren bidez dakigunarekin, zer ekarpen ekonomiko egin dezake Guggenheim Gernika-Muruetak?

Oso kritikoak izan gintezkeen 2008ko proiektuarekin, Erreserba betean egoteagatik, turismo masiboagatik eta ingurumenean izan zezakeen inpaktuagatik eta Ricardo Bastidako Sukarrietako Kolonia bikainaren bizkar egiteagatik. Orain, hiri eremu batean kokatzea proposatu da, Gernikan, Murueta alderantz, *land art* ekintzen irizpideen arabera, eta hori bira kualitatiboa da, inolaz ere. Ulertzekoa da Guggenheim Bilbaok —New Yorkekin bigarren kontratua egin ondoren, euskal ekipamendu gisa hartua, zeinari buruz erabakitzeko ahalmen handiagoa baitago—markaren beste erabilera bat nahi izatea: alde batetik, bere funtsak eta erakusketa proiektuak gehiago mobilizatu ahal izateko, eta, bestetik, bisitariei gehiago eskaintzen jarraitzeko, Bilbokoaren oso bestelakoa izan behar baitu, eta Urdaibaik duen izaerarekin bat datorrena.

Badirudi aurrera egingo duela, lehenago edo geroago, Europako funtsak izan ala ez izan, Unai Rementeria diputatu nagusiak adierazi duenez. Alderdi interesgarriak izan ditzake: hirugarren sektorean enplegu batzuk sortzea, «klase sortzaileak» erakartzea, Erreserbaren egoera hobetzeko arrazoi gehigarria izatea, eskualdea inbertsio-mapan kokatzea marka prestigiotsu gisa, maila kulturala igotzea, beste pertsona batzuekin Erreserba eta esperientzia partekatzea...

Hala ere, arazo larri batzuk ditu. Berriz ere, kontinentean inspiratuta hasten den proiektua da eta ez funtzio kulturalean. Berriz ere, inbertsio materiala da gure balizko sortzaile eta programetan inbertsio inmaterial gisa gastatu daitekeenaren kontura. Turismoak Erreserban duen eragina ere ez da argitzen, ezta turismo masiboaren muga non dagoen ere. Zergatik da oraindik proiektu sekretua? Horrek ez du gardentasuna adierazten, ezta harrera sozialaren alde egiten ere. Ez da aitortzen bizi- eta etxebizitza-kostua igotzea ekarriko lukeenik, eta baita gehienetan balio erantsi txikiko lanpostuen sorrera

ostalaritzan, eta ez dirudi eskualdeko arazo ekonomiko endemikoen konponbidea denik ere.

«Guggenheim gurera zer zorte datorkigun» ideiatik urrun, kontrako ideiari ekin behar zaio: leku kolektibo pribilegiatu bat enpresa bati lagatzen zaio, hori bai, enpresa berezia izan arren. Beraz, baldintza batzuk bermatzea eskatuko litzateke: edukietan zertarako eta euskal kulturari zer ekarpen egingo dion argitzea positiboa; apustu turistikoa konpentsatuko dela baieztatzea, bai kultur arloan, bai Erreserba zaintzeari dagokionez (ingurumen errespetua, «itsasadarraren eraketaren» espazio komunaren jabetze pribaturik ez, inola ere turismo masiboa); konpentsazio instituzionala babestutako etxebizitza eta gazteentzako lanpostu kualifikatuetan; partaidetza; errepideen hobekuntza... Eta, batez ere, berarekin batera, garapen ekonomiko jasangarrirako sektore arteko plan integrala lagunduta egongo den konpromisoa, eskualde garapenarenerako motor gisa.

5. Nondik egituratu jauzi bat nekazaritzan eta basogintzan?

Nekazaritzako Balio Erantsi Gordinak gehiago errespeta lezake natura, eta bolumen handiagokoarekin, beste ustiapen logika batekin, baldin eta epe luzeko horizontea sustatuko balitz balio erantsi handiagoko eta lurraren erabilera hobeko baso espezieen eta laboreen estrategietan. Baina, era berean, galdera honen erantzunak ere baldintzatzen du: nola bermatu lanbidearen eta ustiategien transmisioa, eta gazteak nola finkatu landa eremuan bizi kalitatea hobetuta? Hori guztia bat etorriz Bizisarek eta Urremendik garapen dibertsifikatu, orekatu eta jasangarriari buruz emandako gomendioekin. Hala ere, hiritik etorritako bokaziozko nekazari berriengandik dator berritzearen zati handi bat.

Bestalde, tokiko merkatuaren sustapena eta 0 kilometroko elikaduraren erantzukizunak dira ekuazioaren beste zati bat. Era berean, ekimen instituzionalak eta sozialak ere egin litezke balioa emateko, bai eta merkataritza txikiari eutsi ere, norabide horretan aurrera egiten lagun baitezake. Badira hainbat esperientzia: kontsumo kooperatibak, eskola jantokiak, eskola jantoki autogestionatuak hornitzea, baserriko produktuak eskatu eta etxez etxe entregatzea, landa ostatua eta agroekologia konbinatzea, tokiko merkataritzari balioa ematea…

Beharrezkoa dirudi enpresak birplanteatzea, nekazaritzako edo abeltzaintzako enpresaburu gehiago erakarriz, autonomoak baino pertsona juridiko gehiago erakarriz, kooperatibak eta elkarteak bultza-

tuz, ekoizpen eskalako ekonomiak (Garaia edo Bizkaigane bezalakoak), merkaturatze ekonomiak eta marka ekonomiak aprobetxatzeko, lehen sektorea antolatuz (epe luzerako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin bateragarria, marka berdea, lurzoruaren beste erabilera batzuetarako presioari aurre eginez, pinua eta eukaliptoa biko laborantzari alternatibak bilatuz) eta errentagarritasuna lortzea desberdintasun eta hurbiltasun irizpideak aintzat hartuta.

Eskualdeko baso jabetzen kontzentrazio isilen egora horretan, badirudi une egokia litzatekeela *baso publikoak* edo komunalak edo interes kolektibokoak lortzeko, lurrak erosita edo desjabetuta kalte ordainak emanda, espezie autoktonoen eta esperimentalen plantazio berriak egiteko, eta lurraldea erregulatzeko eginkizunarekin, lurzoruak, paisaiak eta animalia habitatak suntsitzen dituen erauzketari baldintzak jartzeko ahalmenarekin.

Eukaliptoa espezie inbaditzaile gisa katalogatu daiteke, edo katalogatzeko eska daiteke, landatzea debekatu ahal izateko? Eta kalte ekologikoa eragiteagatik, eukalipto plantazio berriko hektarea bakoitzeko tasa esanguratsu bat kobratzea, aldi bakoitzean aplikatuko litzatekeena —bizitza erabilgarriko hiru mozketetan—, eta hortik etorriko liratekeen funtsak tokian berrinbertitu, baso publikoa bertako espezieekin handitzeko? Laguntza esanguratsuak eman behar al dira bertako espezieak landatzeko, eta haien jabeei zerga tratu onuragarria eman PFEZn —kreditu fiskala—, mantentzen dituzten denboran ondare kolektiboa zaintzeagatik? Goi mailako erakundeei dagokie gaiari irtenbidea ematea, luzamendu batetik hasita, bereziki Urdaibain, eukaliptadi berrietarako.

Harrigarria da Bizkaian ekimen publiko bidez 1.000 hektarea haritz landatzea bosturteko batean, eta eukaliptoaren urteko hazkundea, pinuaren bizkar, 3.300 hektareakoa izatea. Ez dirudi irtenbidea denik.

6. Kapital pribatuak 80ko hamarkadan ihes egin zuen Gernikaldetik —ez ordea Bermeotik—, eta kapital publikoa ez zen erreskatatzera etorri proiektu integral batekin.

Bektore multzo bat behar da horri aurre egiteko, eta ez talisman proiektu bakar bat. Parke bat baino gehiago, ikerkuntzarako eta industria garbi eta aurreraturako *polo* teknologiko bat behar da, ekimen eta gomendio publiko bidez, eskualdeko eta, batez ere, kanpoko kapitala erakartzeko. Next Generation EUen proiektu handiren batek trakzio

izaera izango luke beste enpresa ekimen batzuetarako, bai eta proiektu berritzaile gazteak bultzatzeko ere.

Aldi berean, azpiegitura publikoak —behar-beharrezkoak diren komunikazio bideak eta industria plangintza eraginkorra— ezinbesteko baldintza dira horretarako.

7. Nola sakondu berdintasun sozialaren eta genero berdintasunaren politikan?

Ideia orokor gisa, eta kontuan hartuta Busturialdean desberdintasun handiagoa dagoela beste eskualde batzuekin alderatuta, beharrezkoa da *gizarte erregulazioa aldatzea* (bai araugintzan, bai pentsamoldean eta portaera sozialean) eta sindikatuek parte hartzea erabakiak hartzeko orduan. Horiek eskualdeari ihes egiten dioten gaiak badira ere, gizartea oinarritik antolatzea palanka izan daiteke gainbehera saihesteko eta etorkizuneko garapena berdintasunaren bizkar ez egiteko.

Eskualdean presentzia nabarmena du *emakumeen enpleguak* —gizonezkoen soldatekiko % 20an gutxietsia batez beste—, ugari dira beste sektore batzuekin alderatuta soldata txikiak dituzten merkataritza establezimenduak, merkatuan gutxietsita dauden zaintza jarduerak, eta horrek guztiak ez dio justizia egiten ez eskualdeko pc BPGd-ri, ez BEGri, horiek handiagoak izango bailirateke sozialki berdintasun irizpideak aintzat hartuko balira.

Hor ikusten denez, dena ez dago produktibitatearen baitan, baizik eta irizpide sozialen baitan ere —adibidez, ekitatea—. Irizpide horiek aintzat hartuko dira beroriek defendatzen dituen antolakuntza soziala badago, ez bestela.

8. Erronka horietarako erakunde eredu egokia al dugu?

Erakundeen arteko egituran desordena dago. Urdaibaiko Patronatuak txandako udalari irregulartasunak adierazi baino ezin du egin, baina udal hori da —auzokoen eta indar bizien presioen pean— erabakia hartu behar duena, eta ez dira txikiak udalek jardueren kudeaketan, plangintzan, gizarte arlo desberdinetan, sustapen ekonomikoan edo turismoan dituzten eskumenak. Era berean, nahiz eta Mendiak Foru Aldundiaren eskumena eta Ingurumena eta planifikazioa Gobernuaren eskumena izan, Foru Aldundiak ere baditu zenbait eskumen ingurumenaren arloan, bai eta kultura, azpiegitura eta nekazaritza arloetan ere. Bestalde, Gobernu zentraleko Ingurumen, Landagune eta Itsas In-

guruetako Ministerioak eskumen handiak ditu kosta lerroan. Kontua litzateke ordena pixka bat jartzea, Lurralde Historikoen Legea ukitu gabe.

Deigarria da zer distantzia dagoen eskualdea babesteko *arauen aldamio* harrigarriaren —munduko herrialde aurreratuenen parekoa—, haren egikaritze edo aplikazio instituzional eskasaren eta auzoko jabetza pribatuak hura betetzea saihesteko duen gaitasun bereziaren artean.

Moral hirukoitza dago ezarrita, araudiak parapeto legitimatzaile gisa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren defentsa formala, baina *sotto voce* ekonomiaren gainbeheraren errua botatzen zaio… Errealitate bakarra emaitzak eskaintzen du: ingurumenaren hondamenak eta hondamen sozioekonomikoak jarraitu egiten dute.

Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia *zorretan daude Busturialdearekin.* Erakundeak behartuta daude inbertsioari lehentasuna ematera, bai inbertsio publikoei bai proiektu pribatuak birbideratzeko inbertsioei, babestu beharreko ondasun kolektiboa izateagatik zenbait norabidetan, batez ere hirigintzan eta industrian, garatzeko aukerak mugatuta dituen eskualde honetan.

Aldundiak ikerketa zentroetarako eta balio erantsi handiko enpresa handientzako eta langile kualifikatuentzako helmuga gisa hartu beharko luke Busturialdea, enpresa berrien gainean eragiteko eta eskualdeko ekoizpen sarea berritzeko. Eusko Jaurlaritzak, berriz, proaktiboa izan beharko luke Erreserba kalifikatzen lagundu zion, baina garapen jasangarrirako baliabideekin konpentsatu ez zuen eskualde honetan.

9. Eta hezkuntza kapitulua… hain absente?

Komenigarria dirudi *lanbide heziketako zentroak* (Barrutiakoa zurean, fabrikazio eta programazio industrialean oinarritua dago, eta Bermeokoa, berriz, itsasoan) eremu espezializatu horietara zabaltzea, eta horien zehaztasunak erakundeen, enpresen eta hezkuntza sistemaren artean hautatu beharko lirateke: turismoa, ingurumen kudeaketa, aplikazioen informatika, energia berriak...? Eta ezagutza teknologikoen zeharkako arlo bat, edozein sektoretarako erabilgarria? Eta proiektuak abiarazteko baliabideak?

Era berean, egokia dela dirudi lotura handiagoa izatea graduatu ondoko unibertsitate ikasketekin biologian, botanikan, geologian, klima aldaketan, teknologietan, historian edo zientzia politikoan, bai eta bakearen geopolitikari eta trantsizio berdeko gaiei buruzko ikasketeta-

rako ere. Lokalak eta logistika jartzearekin batera, unibertsitateren batekin akordioak egitea abiapuntua izango litzateke.

10. Posible ote dira epe laburreko talka plan bat, epe luzeko plan estrategiko bat, zentzu hertsian eskualdeko garapen agentzia bat, enpresa ekimenen zentro bat eta etengabeko elkarrizketarako gizarte mahai bat?

Gainbeheran dagoen eskualde gisa, Ezkerraldea bezalako eskualdeetan aplikatu denaren antzeko *talka plana* pentsa liteke, baina integralagoa sektoreei dagokienez, lehen sektorearen eta zerbitzuen garrantzia dela eta.

Epe luzerako, *Busturialdeko plan estrategiko integrala* behar da, izen handi hori eramateko modukoa, berrindustrializazioa ekarriko duena, jarduerak aldatuz, eta ez bakarrik indarrean daudenak zaindu eta kualitatiboki hobetzera mugatuko dena, hori ere egin behar den arren. Lehentasunezko tratua eta balio erantsi handia duten proiektuak eta adarrak bultzatu behar ditu; lurzoru industrialaren esparrua berrikusi; proiektu eragileak erakartzearen alde egin; basogintza, hezkuntza sistema, merkataritza eta zerbitzuak aztertu eta haiei heldu; gizarte ongizatearen ereduaz arduratu; diagnostiko sakona eginda, sektore sozial eta ekonomiko guztiek parte hartuta, eta indar politiko guztiak inplikatuta. Parte hartze handi horrek zilegitasuna eta indar handia emango lizkioke, itxaropenak arlo berrietan jarrita eta erakundeek beharreko konpromisoak hartuta.

Behargintzaren, edo eskualdeko sustapen agentzia, eta Lanbide Ekimenak agentziaren zerbitzuak indartu beharko lirateke, Busturialdeko *garapen agentzia* sortzeko bidean, indar bateratzailearekin eta negoziatzailearekin, eskualde mailakoa eta udal guztien adostasunarekin.

Aldundiak eta Gobernuak erraztasunak eman beharko lituzkete I+G+b enpresak ezartzeko; krisian dauden enpresen funts orokorrera iristeko; azpiegiturak osatzeko; prestakuntza dibertsifikatzeko; lehen sektoreari eta zerbitzuen sektoreari arreta emateko, finantzaketa neurriak hartuta (eskualdeko laguntza funtsaren bidez, abalak eta puntu hobariak emanez); Busturialdea-Urdaibai markei laguntza eman…

Horrekin batera, *enpresa ekimenetarako eskualdeko zentro* baten aukera baloratu beharko litzateke, sustatzaile izan dadin, irabazi asmorik gabeko fundazio batean oinarrituta. Era berean, eskualde mailako *enpresen inkubagailu indartsu* baten falta sumatzen da, aholkularitzak, *living lab*

metodologiak eta *start up* gisako proiektuak bideragarriak izan daitezen administrazio bideak eskainiko dituztenak, eta ez soilik industriarako, baita beste edozein jardueratarako ere.

Etengabeko elkarrizketarako mahai soziala termometro egokia izango litzateke aldaketaren sakontasuna eta zilegitasuna neurtzeko.

Amaitzeko, espero dut nire liburuak, *El declive económico de Busturialdea-Urdaibai: dilemas y propuestas* (Gernika, 2021), hartatik hartu baitira ideia hauek, lortu izatea kezkatuta dagoen jende askoren buruan dagoeneko zeuden ideia batzuk ordenatzea eta eragile sozial, publiko eta ekonomikoei gogoeta eginaraztea.

B

BEGIRADA SOZIALA

Rosa de la Asunción Sanz

Rosa de la Asunción Sanz Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean. Generoari, gizarte-politikari eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako egoerari buruzko ikerketak egin ditu. Zero Tailer Soziologikoa aholkularitza-enpresan, berdintasun arloko diagnostikoak egiten, planak diseinatzen eta inplementatzen lan egin du EAEko hainbat udalerritan eta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Foroa dinamizatu du. Busturialdeko hainbat udalerritan gizarte laguntzaile lanetan aritu da. Kukubedarrak Urdaibaiko Emakumeen Elkarteko kide sortzailea da.

Kapitulu honetan bildu eta aurkezten diren datuak *Tablas estadísticas de Busturialdea-Urdaibai 2000-2020* dokumentuan argitaratutako estatistika-tauletan oinarrituta daude, non hogei urte horietan eta Busturialdea-Urdaibai eskualdeko lurralde historikoko hogei udalerritan gertatutako aldaketak jasotzen diren. Taula hauek (testu honetan zehar berariaz aipatzen direnak) «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektuaren webgunean (<www.territoriolab.org/eu/bestelako-baliabideak/>) kontsulta daitezke.

1. BIZTANLERIA

2020ko urtarrilaren 1ean (ikus 1. koadroa), Busturialdean 45.973 biztanle bizi ziren; hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko 1.149.044 biztanleen % 4 (Biztanleria, 1. taula).

Bermeo da biztanle kopuru handiena (16.910) duen udalerria, eta ondoren, Gernika-Lumo (16.808). Bien artean, Gernika-Bermeo eskualdeko edo eremuko biztanleen hiru laurden dute. Horiekin batera, 1.000 biztanle baino gehiago dituzten bakarrak Mundaka, Busturia eta Muxika dira. Gainerakoak ez dira biztanle kopuru horretara iristen; gainera, hamaika udalerrik 500 biztanle baino gutxiago dituzte.

Emakumeak erdiak baino zertxobait gehiago dira: biztanleriaren % 51. Udalerri handietan, hala nola Bermeo, Gernika-Lumo eta Mundaka, emakumeak ugariagoak dira gizonak baino; txikietan, Ea, Erreño eta Errigoiti, esaterako, berriz, gizonak dira emakumeak baino ugariagoak.

Biztanleria-dentsitateari edo kilometro karratuko biztanle kopuruari dagokionez, Gernika-Lumon dute kontzentrazio handiena (1.970,5 biztanle/km^2). Ondoren, Bermeo (502,1 biztanle/km^2) eta Mundaka (467,8 biztanle/km^2) datoz. Udalerri txikietan, biztanleria-dentsitatea ez da hainbestekoa; Sukarrietan eta Elantxoben, esaterako, 214,1 biztanle/km^2 eta 196,2 biztanle/km^2 dituzte, hurrenez hurren.

1. KOADROA. **BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO UDALERRIAK, BIZTANLERIAREN, SEXUAREN ETA DENTSITATEAREN ARABERA, 2020**

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Dentsitatea (bizt./km²)
10.000 biztanletik gorakoak				
Bermeo	8.308	8.602	16.910	502,1
Gernika-Lumo	8.061	8.747	16.808	1.970,5
1.000 biztanletik gorakoak				
Mundaka	872	971	1.843	467,8
Busturia	802	820	1.622	82,1
Muxika	769	726	1.495	30,2
500 biztanletik gorakoak				
Forua	443	461	904	118,5
Gautegiz Arteaga	435	412	847	62,1
Ea	443	393	836	59,9
Ibarrangelu	319	302	621	43,5
500 biztanletik beherakoak				
Errigoiti	264	226	490	29,7
Kortezubi	214	228	442	37,4
Ajangiz	221	219	440	61,8
Arratzu	197	213	410	40,8
Mendata	217	188	405	17,8
Morga	197	190	387	29,3
Elantxobe	184	173	357	196,2
Sukarrieta	168	168	336	214,1
Murueta	168	166	334	58,3
Ereño	151	125	276	26,2
Nabarniz	110	125	235	20,0

Iturria: Eustat, Biztanleen Udal Estatistika (BUE), erreferentziako urteko urtarrilaren 1ean.

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) argitaratutako Biztanleen Udal Estatistika (BUE) arabera, 2001eko urtarrilaren 1ean 44.148 pertsona bizi ziren eskualdean, eta 2010ean 45.339 (ia 1.200 gehiago). 2010-2020 hamarkadan, biztanleriak 634 lagun irabazi ditu; hau da, aurreko hamarkadan hazitakoaren erdia hazi da biztanleria. Gernika-Lumon, Arratzun eta Kortezubin ugaritu da biztanle kopurua; Bermeon, berriz, lehengo bera da. Eak, Foruak, Busturiak eta Mundakak biztanleak galdu dituzte, bai eta Elantxobek ere. Azken horrek, gainera, biztanleriaren guztizkoarekiko proportzio handiagoan galdu ditu besteek baino (Biztanleria, 2. taula).

Eskualdean, 2019. urtean zehar, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, 493 heriotza eta 331 jaiotza izan ziren, hau da, hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen (−162 pertsona), eta hori, ia udalerri guztietan. Biztanle-galera hori migrazio-saldo positiboak berdindu du azkenaldian. Izan ere, 594 pertsona atera ziren eskualdetik; etorri, berriz, 942 pertsona, eta Bermeo eta Gernika-Lumo izan ziren udalerri hartzaileak. (Biztanleria, 3. taula).

1.1. Adin egitura

Adin-taldeka, *zerotik 19 urtera bitarteko* taldea guztizko biztanleriaren % 18,3 da, eta ehuneko hori Bizkaikoa baino zertxobait handiagoa da (% 17,5), eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) parekoa. Mutikoen eta mutilen kopurua (4.346) neskatoena eta neskena (4.074) baino handiagoa da, neskato baino mutiko gehiago jaiotzen baitira.

20 urtetik 64ra bitarteko taldea («ekonomikoki produktibotzat» hartzen den biztanleria, alegia) guztizkoaren % 58,2 da; Bizkaian, % 59,6 da, eta EAEn, berriz, % 59,3. Guztira, 26.776 pertsona daude adin-tarte horretan, 13.256 emakume eta 13.520 gizon.

65 urte edo gehiago dituzten pertsonen taldea guztizko biztanleriaren % 23,5 da; ehuneko hori Bizkaikoa (% 22,9) eta EAEkoa (% 22,4) baino zertxobait handiagoa da. 10.776 biztanle daude adin-talde horretan, 6.115 emakume eta 4.661 gizon (Biztanleria, 4. taula).

2020. urtean, 65 urte edo gehiagoko pertsonak biztanleriaren guztizkoaren % 33 ziren Elantxoben eta Sukarrietan; Muruetan, berriz, % 16. Bermeon 3.865 pertsona zeuden adin-tarte horretan, eta Gernika-Lumon, 3.867. Aztertutako hogei urteetan, 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoak gora egin du: 2001. urtean guztizko biztanleriaren % 22 zen talde horretakoa, eta 2020an, % 23,4. Kopuru absolututan, 65 urte edo gehiago dituzten ia 1.000 pertsona gehiago bizi dira eskualdean (Biztanleria, 5., 6. eta 7. taulak).

75 urtetik gorako pertsonak («gainzahartutako biztanleria» ere esaten zaio) ia 6.000 pertsona dira, emakumeen guztizkoaren % 14,4 eta gizonezkoen guztizkoaren % 9,5. (Biztanleria, 8. taula).

2020an, Busturialdea-Urdaibain *85 urteko edo gehiagoko* 1.347 emakume eta 611 gizon zeuden, eta horiek guztizko biztanleriaren % 4 ziren, gutxi gorabehera. Horietako 735 pertsona Gernika-Lumon zeuden, eta Bermeon, berriz, 654 (Biztanleria, 9. taula).

Bizkaiako Lurralde Historikoan, 85 urte edo gehiago dituzten 48.356 pertsonetatik ia herena bakarrik bizi da, eta hamarretik zortzi emakumeak dira. Ondoriozta daiteke eskualdean adin horretako 650 pertsona inguru bakarrik bizi direla, eta horietako 500 inguru emakumeak direla; gehienak Gernika-Lumon eta Bermeon bizi dira (Biztanleria, 10. taula).

Horrez gain, eskualdeko adineko pertsonentzako egoitzetan dauden 479 plazetatik, kudeaketa-eredu ezberdinekin, ia hiru laurdenak adineko emakumeek beteko dituzte (Biztanleria, 11. taula).

1.2. Jaiotzak eta heriotzak

Jaiotzei dagokienez, Busturialdea-Urdaibain urteko 400 inguru izan dira aztertutako hogei urteetan. 2007k 2016ra kopuru hori gainditu egin zen. Azken urte hauetan jaiotza gutxiago izan dira. 2019. urtean, adibidez, 283 jaiotza izan ziren, eta 2020an, 331, aurreko urtean baino ia 50 gehiago, baina jaiotza-tasa gordinak behera egin zuen apur bat. Bizkaian, aitzitik, jaiotzek % 5,2 egin dute behera (Eustat, Jaiotzen estatistika, 2020. 2021/06/16ko prentsa-oharra).

Bermeon, 2000. urtean 135 haurtxo jaio ziren; 2010ean, 149 haurtxo, eta 2020an, berriz, 122. Gernika-Lumon, 2000. urtean 119 jaiotza izan ziren; 2010ean, 152 jaiotza, eta 2020an, 133. Aldaketa horiek jaiotza-tasetan ere islatzen dira: gora egin zuten 2010ean, eta jaitsi 2017an. Dena dela, goian adierazi dugun moduan, 2020an aurreko urtean baino jaiotza gehiago izan ziren: 19 gehiago Gernika-Lumon, eta 11 gehiago Bermeon (Biztanleria, 12. eta 13. taulak).

2019. urtean, *haur-indizea* (0-14 urte) biztanleria osoaren % 14 zen, Bizkaikoa baino pixka bat handiagoa, eta gora egin du apur bat azken urteetan. Gernika-Lumoko eta Muxikako ehunekoa eskualdeko batezbestekoa baino zertxobait handiagoa da (Biztanleria, 14. taula).

Mendekotasun-indizea —hau da, 0 urtetik 19ra bitarteko gehi 65 urtetik gorako pertsonen eta «ekonomikoki produktiboen» edo 20tik 64ra bitartekoen arteko erlazioa— % 70,4 da, eta zenbait udalerritan, hala

nola Ereñon, Elantxoben eta Sukarrietan, % 80ra iristen da (Biztanleria, 15. taula).

Heriotzei dagokienez, Busturialdea-Urdaibain, urtean 500 pertsona inguru hiltzen dira. 2020. urtean zehar, 2019an baino heriotza batzuk gutxiago izan ziren, COVID-19aren pandemia jasanagatik; Bizkaian eta EAEn, berriz, heriotzak % 10,7 eta % 12,5 ugaritu ziren, hurrenez hurren (Eustat, Heriotzen estatistika, 2020. 2021/07/29ko prentsa-oharra).

2000 eta 2020 urteen artean, zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragin dituzte heriotza gehien; bigarren ugarienak tumoreek eta arnas-sistemako gaixotasunek eragindakoak izan dira; dena dela, gero eta gehiago dira «gainerako gaixotasunak» kategoriarekin lotutako heriotzak. Bermeon, kontsultatutako urteetan (2000, 2010, 2019 eta 2020) heriotza gehiago izan dira Gernika-Lumon baino (Biztanleria, 16., 17. eta 18. taulak).

Bizkaian, abendua, urtarrila eta otsaila izaten ziren heriotza-tasa handieneko hilak. 2020ko martxoan, apirilean eta maiatzean, heriotza kopurua ohikoa baino askoz handiagoa izan zen, COVID-19a dela eta. Apirilean 1.581 heriotza izan ziren, aurreko urteko hil berean baino % 60 gehiago, eta martxoan, % 30 gehiago (Biztanleria, 19. taula).

1.3. COVID-19 pandemia

2020ko martxoaren 25ean, Busturialdea-Urdaibain COVID-19ak kutsatutako 45 pertsona zenbatu ziren. Bermeon, esaterako, 25 kasu zeuden, eta Gernika-Lumon, 14. Irailaren 27rako, eskualdean, ia 1.000 pertsonak eman zuten positibo PCR probetan, Gernika-Lumon, kasuak 415 ziren eta Bermeon, 306. Abenduaren 27an, kutsatutakoak 1.676 ziren jadanik, eta 2021eko abuztuaren 29an, 4.288 pertsona. Hau da, pandemia hasi zenetik igaro den ia urte eta erdian, 4.000 pertsona baino gehiago kutsatu ditu COVID-19ak. Hildakoei dagokienez, 48 ziren jadanik 2020. urtearen amaierarako, eta 2021eko abuztuaren 29an, berriz, 77 pertsona (Biztanleria, 20. taula).

1.4. Migrazio-mugimenduak

2000tik 2011ra, pertsona gehiago etorri ziren eskualdera alde egin zutenak baino. 2012. urtean ia kopuru bera joan eta etorri zen: 686 etorkin iritsi ziren, eta 674 pertsonak emigratu zuten. 2013. urtea salbuespena izan zen (725 pertsonak alde egin baitzuten, eta etorri, berriz,

549 soilik). Ordutik aurrera, ohiko joera itzuli da, hots, pertsona gehiago iristen dira eskualdera joaten direnak baino. 2020. urtean mugikortasuna txikiagoa izan zen —COVID-19ak inposatutako murrizketak direla-eta, seguru asko—, eta, 2019arekin alderatuta ia 300 pertsona gutxiago etorri ziren eta 90 pertsona gutxiago joan ziren arren, migrazio-saldoak positiboa izaten jarraitu zuen. (Biztanleria, 21. taula).

2020. urtean zehar, 666 pertsona iritsi ziren eskualdera bizitzera, eta 502 joan ziren; horrenbestez, migrazio-saldoa positiboa zen artean, eta antzeko egoera zuten Bizkaian eta EAEn ere. Urte horretan, Bermeok 251 pertsona hartu zituen eta 218k emigratu zuten; Gernika-Lumora, berriz, 260 pertsona iritsi ziren eta 197k utzi zuten udalerria (Biztanleria, 22. taula).

2020ko urtarrilaren 1ean, Busturialdea-Urdaibain bizi ziren 45.973 biztanleetatik % 80 Bizkaian jaiotakoa zen (36.733 pertsona), % 8 Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritakoak ziren (3.684 pertsona), eta 700 pertsona, Gipuzkoan eta Araban jaiotakoak. Baziren, halaber, atzerriko herrialderen batean jaiotako 4.853 migratzaile ere, eta eskualdeko guztizko biztanleriaren % 10,6 zen. Ehuneko hori antzekoa zen Bizkaian (% 10,5) eta EAEn (% 11), eta udal mailan, Gernika-Lumon guztizko biztanleriaren % 12,9 zen eta Bermeon % 11. Eskualdean, pertsona migratzaileen % 83 bi udalerri handietan (Gernika-Lumo eta Bermeo) bizi zen, eta gainerako % 17 udalerri txikiagoetan (Biztanleria, 23. taula).

Busturialdea-Urdaibain, 2001. urtean, migratzaileak guztizko biztanleriaren ia % 2 ziren. Ehuneko hori handitzen joan da arianarian, Bizkaia osoan bezala. Hazkunde handiena 2001etik 2010era bitarteko urteetan izan zen (% 8koa, gutxi gorabehera), eta 2020ko urtarrilaren 1ean ia biztanleriaren % 11 zen migratzailea (Biztanleria, 24. taula).

Aztertutako hogei urteetan, udalerri handienetan hazi da gehien pertsona migratzaileen ehunekoa. Esate baterako, Bermeon 2003an guztizko biztanleriaren % 1,4 zen, 2010ean % 6,2 eta 2020an % 11 zen. Erreferentziako bigarren hamarkadan hazkundea 2003tik 2010era bitartekoa baino txikiagoa izan da. Gernika-Lumoko bilakaera ere berdina izan da: 2003an pertsona migratzaileak % 2,2 ziren, 2010ean, % 8,5, eta 2020an, berriz, ia % 13. Udalerri txikietan ere gertatu dira aldaketak, Muxikan, esaterako, ez zegoen pertsona migratzailerik 2003an, eta 2020an % 7 zen migratzailea, Mendatan bezala. Kopuru absolututan ere aldatu da eskualdeko pertsona migratzaileen presentzia: 2001ean 102 pertsona migratzaile bizi ziren Bermeon

eta 155 Gernika-Lumon, 2020an 1.904 ziren Gernika-Lumon, eta 1.518 Bermeon (Biztanleria, 25. taula).

2020. urtean, Busturialdea-Urdaibain bizi ziren 3.986 migratzaileetatik 1.872 Ekialdeko Europatik etorritakoak ziren, horietatik Gernika-Lumon 1.167 bizi ziren eta Bermeon 582. Bigarren eta hirugarren talde ugarienak Hego Amerikakoak eta Ameriketako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika) ziren, ia 1.000 migratzaile, guztira, eta antzeko kopurutan zeuden banatuta Bermeon eta Gernika-Lumon. Laugarren talde ugariena Magrebetik etorritakoa zen, eta 358 pertsona ziren. Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako 298 pertsona zeuden, Europako gainerako herrialdeetatik etorritako 206, eta azkenik, 166 pertsona ziren jatorriz Asiakoak edo Ozeaniakoak (Biztanleria, 26. taula).

Herrialdeka ere garrantzitsua izan da aldaketa hogei urte hauetan. 2001ean Ekialdeko Europako hemeretzi pertsona bizi ziren eskualdean, 2010erako 1.353 ziren jadanik, eta 2020an 1.872 ziren. Magrebeko herrialdeei dagokienez, 2000. urtean hamazazpi pertsona zeuden, 2010. urtean 224 ziren jadanik, eta 2020an, berriz, 358. Joera hori Hego Amerikatik etorritako taldeak apurtu du, 2010 eta 2020 artean ia 100 pertsona gutxiago izatera murrizten zen (Biztanleria, 27. taula).

Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) datuen arabera, 2019an, Gernika-Lumon gehiengoa ziren Errumaniatik etorritako pertsona etorkinak, 838 pertsona zeuden, eta 416 Bermeon. Kopurutan zuten garrantzia kontuan hartuz, Bermeon Senegalgo 150 pertsona, Boliviako 133, Kolonbiako 126 eta Marokoko 119 zeuden. Gernika-Lumon jatorri-aniztasun handiagoa zegoen: 97 Argentinakoak ziren, 87 Boliviakoak eta ia beste hainbeste Brasilgoak, eta udalerri horretan bizi ziren asiar jatorriko pertsonak Txinakoak eta Pakistangoak ziren (Biztanleria, 28. taula).

2. ESKOLA-JARDUERA

Busturialdea-Urdaibain, aztertutako hogei urteetan (2000-2020) hazi egin da ikasle kopurua (2.000 ikasle gehiago) unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan, Helduen Hezkuntza (HHE) kontuan hartu gabe. 2000-2001 ikasturtean 5.332 matrikulazio egin ziren, eta 2019-2020an, berriz, 7.305 (ikus 2. koadroa).

2019-2020 ikasturtean aurreko ikasturteko ikasle kopuruari eutsi zitzaion, oro har, baina kopuruaren beherakada txiki bat ikusten da udalerri txikienetan batez ere, esate baterako, Busturian, Mundakan eta

2. KOADROA. **IKASLEAK UDALERRIKA, 2000-2020**

	2000-2001	2009-2010	2018-2019	2019-2020
Arratzu	466	492	597	600
Bermeo	2.255	2.507	2.750	2.707
Busturia	64	110	118	107
Ea	—	6	38	38
Gautegiz Arteaga	20	51	52	50
Gernika-Lumo	2.391	3.140	3.530	3.549
Mundaka	99	153	166	155
Muxika	37	84	115	99
Guztira	**5.332**	**6.543**	**7.366**	**7.305**

Iturria: Eustat, Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

Muxikan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza soilik dituzte), zeinen zentroek 40 matrikulazio galdu zituzten, guztizkoaren % 10. Ikastetxe horiek Busturialdea-Urdaibaiko Eskola Txikiak sarea osatzen dute, Gautegiz Arteagako eta Eako eskolekin batera; azken bi horiek ikasle kopuruari eutsi zioten.

2.1. Hezkuntza sistema udalerrien arabera

CEP Barrutia LHI ikastetxe publikoa, Arratzuko Barrutia auzoan dagoena, eskualdeko ikasleak joaten dira baldin haien udalerrian ikastetxerik ez badago edo dagoen ikastetxeak irakaskuntza-maila guztiak ez baditu, eta Gernika-Lumoko ikasleak ere badituzte. Azken hogei urteetan matrikulazioak ugaritu egin dira: 2000-2001 ikasturtean 466 ikasle izan zituzten, eta 2019-2020an, berriz, 600 ikasle.

Haur Hezkuntzan (0-6 urte), 52 haur zituzten 2000-2001 ikasturtean, hau da, 2019-2020 ikasturterako bikoiztu egin da ikasle kopurua (103 ikasle), eta eutsi egin zaio aurreko ikasturtean izandako matrikulazio kopuruari. Lehen Hezkuntzan (6-12 urte), 95 izen-emate izan ziren 2000-2001 ikasturtean, eta 187 matrikulazio 2019-2020an, aurreko ikasturtean bezainbeste. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) (12-16 urte), 2000-2001 eta 2019-2020 ikasturteak erreferentziatzat hartuz gero, 30 ikasle gehiago izan ziren. Azken ikasturte horretan

138 ikasle izan dituzte, aurrekoan bezala. Irakaskuntza hori guztia D hizkuntza-ereduan eman da 2000. urtetik.

Batxilergoari dagokionez, ikasle kopurua ia erdira murriztu da: 91 ziren 2000. urtean, eta 43 ikasle 2020an, aurreko ikasturtean baino sei gehiago. Erdi mailako lanbide heziketan matrikulazio kopurua ia berdin mantendu da denbora-tarte horretan, 60 ikasle inguruan. Goi Mailako Lanbide Heziketan —batxilergoko titulua duten ikasle batzuk joaten dira, unibertsitatera joan beharrean—, ikasle kopurua 47 ikasletik 59ra handitu da, eta azken ikasturtean aurreko ikasturteko matrikulazio kopuruari eutsi zaio. «Zereginen ikasketa» deritzonean matrikulazio kopurua beti da oso txikia.

2019-2020 ikasturtean, batxilergoa eta erdi mailako lanbide heziketa D ereduan eman ziren. Goi mailako lanbide heziketan, A eta B ereduko ikasleak gehiago ziren D eredukoak baino. Batxilergoa parekide samarra da (24 mutil eta 19 neska), baina lanbide heziketako bi mailetako ikasleak mutilak dira gehienbat, ia ez baitago neskarik. 2020-2021 ikasturterako prestakuntza-eskaintzak izaera teknikoa du: mekanizazioa, altzariak instalatzea, fabrikazio mekanikorako diseinua eta programazioa (Eskola-jarduera, 1., 2. eta 3. taulak).

Bermeon ikastetxe hauek daude: Bermeo-San Frantzisko HLHI, Eleizalde Ikastola HLBHIP, Sagrado Corazón HLBHIP eta I. Arozena-Barrueta/Tar Benito BHI. Aztertutako hogei urte hauetan matrikulazio kopurua 2.255 ikasletik (2000-2001 ikasturtean) 2.707ra (2019-2020 ikasturtean) handitu da, hau da, ia 450 ikasle irabazi dira. Irakaskuntza pribatua hazi da gehien (1.139 ikasletik 1.591 ikaslera) eta irakaskuntza publikoko ikasle kopurua antzekoa mantentzen da (mila ikasle baino pixka bat gehiago).

Erreferentziatzat hartu ditugun urte horietan, sare publikoko haur hezkuntzara joaten den haur kopurua ez da aldatu (200 ume inguru), eta irakaskuntza pribatuan, berriz, bikoiztu egin da (256 ikasletik 512 ikaslera). Ez dago ia alderik kopuruetan azken ikasturtearen eta aurrekoaren artean.

Lehen hezkuntzari dagokionez, ikasle kopurua handitu egin da aztertutako hogei urtetan: sare publikoan 248 ikasletik 325 ikaslera, eta ikastetxe pribatuetan 449 ikasletik 650 ikaslera. Aztertutako azken ikasturtetan, 2019-2020, matrikulazioa ia berdin mantendu da aurreko ikasturtekoaren aldean. Irakaskuntza pribatuan publikoan baino bi aldiz ikasle gehiago daude haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.

DBHn, irakaskuntza publikoko ikasle kopurua 260 ingurukoa izan da hogei urte hauetan, eta 430 ingurukoa irakaskuntza pribatuan.

Aurreko ikasturtearekin alderatuz gero, irakaskuntza pribatuan ikasle kopuruak ez dira aldatu, baina irakaskuntza publikoan gutxitzen da.

Batxilergoa eta lanbide heziketa sare publikoan baino ez daude. Batxilergoan, azken bi ikasturtetan 172 gaztek dira, hala ere, duela hogei urte baino ehun ikasle gutxiago daude. Oinarrizko, erdi mailako eta goi mailako lanbide heziketan, azken ikasturtean 140 matrikulazio inguru izan dira, aurrekoan bezala, eta 2000. urtean, berriz, 110 (Eskola-jarduera, 4. taula).

Duela hogei urtetik, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta DBHn D eredua dago ezarrita, bai sare publikoan, bai pribatuan. Batxilergoan, D ereduan ematen dira eskolak; lanbide heziketan, berriz, eskolak A ereduan zein B ereduan ematen dira. Generoari dagokionez, batxilergoan 98 neska eta 74 mutil ari dira ikasten, eta lanbide heziketako ia guztiak mutilak dira. Zereginen Ikasketan aritzen den taldea txikia da (Eskola-jarduera, 5., 6. eta 7. taulak).

Gernika-Lumon ikastetxe hauek daude: Allende Salazar HLHI, San Fidel Ikastola HLBHIP, Seber Altube Ikastola, HLBHIP Mertzede Ikastetxea eta Gernika BHI. 2000-2001 ikasturtean 2019-2020arekin aldatuz gero, 1.158 ikasle gehiago daude, 453 gehiago sare publikoan eta 615 gehiago sare pribatuan. Gaur egun, 3.549 ikasle daude Gernika-Lumoko ikastetxeetan.

Erreferentziatzat hartu ditugun urte hauetan, ugaritu egin dira haur hezkuntzako ikasleak, pribatukoak batez ere, bikoiztu baino gehiago egin baita ikasle kopurua pribatuan. 2019-2020 ikasturtean, 536 haur dituzte sare publikoan, eta publikoan 366 haurrek eman dute izena.

Lehen hezkuntzan hazi egin da ikasleen kopurua, baina ikastetxe pribatuetan nagusiki. Hain zuzen, ikastetxe pribatuek 766 ikasle hezten dituzte gaur egun, orain dela hogei urte baino 300 gehiago. Ikastetxe publikoetan, 2000. urtean 315 haur zeuden, eta 2020. urtean 508 ikasle izan dituzte. Matrikulazio kopurua, berriz, aurreko urtekoaren berdintsua da.

DBH sare publikoan, 2000-2001 eta 2019-2020 ikasturteen artean, matrikulazio kopuruak 272 ikasletik 408 ikaslera gora egin du; sare pribatuan, berriz, antzekoa da ikasle kopurua, 500 inguru. Erreferentziako azken urtean, eutsi egin zaio matrikulazio kopuruari bi sareetan; dena dela, pribatuko matrikulek gora egin dute pixka bat.

Batxilergoa sare publikokoa da eta ikasleak galtzen joan da azken hogei urte hauetan. Ia 100 ikasle gutxiago daude, baina azken ikasturtean egonkor mantendu da, 330 ikaslerekin. Lanbide heziketa, maila guztietan —oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa—, publikoa da

ere, eta aztertutako azken urtean matrikulek gora egin dute apur bat, 140 ingurua iritsiz, 2000. Urtean egin ziren 24 baino azkoz ere handiagoa (Eskola-jarduera, 8. taula).

Haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta DBHko eskolak D ereduan ematen dira, hala ikastetxe publikoetan, nola pribatuetan. Batxilergoan ere D eredua dago ezarrita, eta 183 neskak eta 148 mutilek ikasten dute. Lanbide heziketako maila guztietan askoz neska gehiago daude: azken ikasturtean, 136 ikasletik 112 neskak dira. Ikasle gehienek D ereduan ikasten dute, baina 30 ikasle baino gehiagoko talde batek A ereduan jasotzen ditu eskolak. Eskaintzen den prestakuntza haurrak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzera bideratuta dago (Eskola-jarduera, 9., 10. eta 11. taulak).

Busturian sare publikoko Jose Maria Uzelai Herri Ikastetxea dago. Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituzte D ereduan. Hogei urteetan ikasle kopurua 64 ikasletik 107 ikaslera hazi da, izan ere, bere ikasle kopurua lehen hezkuntzan ia bikoiztu egin da. Nolanahi ere, azken ikasturtean aurrekoan baino hamaika matrikulazio gutxiago izan dituzte (Eskola-jarduera, 12. eta 13. taulak).

Ea udalerriko Haizeder Eskolan haur eskola baino ez dute. 2009-2010 ikasturtean hasi ziren 6 haurrekin; eta 2019-2020 ikasturtean 38 izan dira (aurreko ikasturteko kopurua mantendu da). Gautegiz Arteagako Montorre ikastetxe publikoan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza dituzte, eta ikastetxea D eredukoa da. 2019-2020 ikasturtean 50 ikasle dauzkate, azken hamar urteetan bezala (Eskola-jarduera, 14. taula).

Mundaka HLHI ikastetxe publikoan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza dituzte, eta 2000 eta 2020 urteen artean 50 baino gehiago handitu du bere ikasle kopurua. Muxikako Urretxindorra ikastetxe publikoan ere 37 ikasle izatetik 99 izatera igaro dira azken hogei urte hauetan. Dena dela, 2019-2020 ikasturtean hamasei matrikulazio gutxiago izan dituzte aurreko kurtsoarekin alderatuta (Eskola-jarduera, 15. taula).

Ikastetxeek jabetza publiko edo pribatuarekin duten egoera kontuan hartuta, 2019-2020 ikasturtean (udalerri txikietako *eskola txikiak* kontuan hartu gabe), Barrutia (Arratzu), Bermeo eta Gernika-Lumoko derrigorrezko hezkuntzan —haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH—, 5.890 eskola-plaza dago, 2.503 sare publikoan eta 3.387 pribatuan (hau da, ikasle guztien % 57k ikasten du pribatuan). Ehuneko hori handiagoa da Bermeon (% 66), ikasle guztietatik bi herenek (1.587 ikasle) ikastetxe pribatuetan ikasten bai-

tute, eta 793 ikaslek publikoetan. Gernika-Lumoko sare publikoan 1.282 plaza daude, eta pribatuan, 1.800, hau da, ikasle guztien % 58 (Eskola-jarduera, 16. taula).

Eskualdean, 2019-2020 ikasturtean, batxilergoan 546 plaza egon dira, eta 300 neskak eta 246 mutilek jardun dute ikasten. Lanbide heziketan 441 plaza egon dira, 174 erdi mailakoan, 188 goi mailakoan eta 79 oinarrizkoan; eta mutilen kopurua neskena halako bi da (304 eta 137, hurrenez huren). Bachillergoan ikasgai guztiak D ereduan ematen dira, eta lanbide heziketan 229 plaza daude D ereduan, eta 190 plaza A eta B ereduetan (Eskola-jarduera, 17. taula).

2.2. Helduen Hezkuntza (HHE)

Bermeon eta Gernika-Lumon daude HHEko zentroak. 2019-2020 ikasturtean 397 pertsona matrikulatu dira (183 Bermeon eta 214 Gernika-Lumon). 2000. urtean aurrekoan baino 80 matrikulazio gutxiago izan dira, Gernika-Lumon batez ere. Matrikulazio kopurua ia ez da aldatu aztertutako hogei urteetan. Bermeon antzekoa da emakumeen eta gizonen kopurua; Gernika-Lumon, berriz, gizonak emakumeak halako bi baino gehiago dira (Eskola-jarduera, 18. taula).

2.3. Ikasle migratzaileak

2019-2020 ikasturtean, helduen hezkuntzakoak barne, atzerrian jaiotako 895 ikasle joaten dira eskualdeko ikastetxeetara. Kontinenteka, Europako taldea gehiengoa da, 412 ikasle dira, erdiak neskak eta beste erdiak mutilak, gutxi gorabehera. Ikasle kopurutan, jatorriko herrialde garrantzitsuena Errumania da (346 ikasle) alde handiarekin; atzetik datozen Ukraina (18 ikasle) eta Moldavia (17 ikasle).

Hurrengo talde garrantzitsuena kopuruei dagokienez, Afrikako herrialdeetan jaiotako ikasleena da, 294 baitira. Senegalgoak dira gehienak (148), eta Marokokoa da hurrengo talde ugariena (90 ikasle). Alde handiak daude sexuen artean: 204 mutil eta 90 neska.

Hirugarren talde garrantzitsuena amerikar jatorrikoa da, eta bertan mutil adina neska eskolatzen dira. Hego Amerikako 149 ikasle daude —talde ugariena Boliviakoa da (26 ikasle boliviar joaten ziren eskoletara), eta ondoren, Kolonbiakoa—, Erdialdeko Amerikako talde txiki bat ere badago. Horiez gain, Asiatik etorritako talde bat ere badago, zehaski Pakistanetik (19 ikasle) eta Txinatik (14 ikasle) (Eskola-jarduera, 19. taula).

2019-2020 ikasturtean, erregimen orokorreko ikasleak bakarrik zenbatzen badira, HHEkoa izan ezik, 655 ikasle migratzaile daude. 2003-2004 ikasturtean, atzerriko herrialderen batean jaiotako 121 ikasle daude, gehienak Hego Amerikakoak dira eta bigarren talde garrantzitsuena Europatik etorritakoena da. 2009-2010 ikasturtean, ikasle migratzaileak 499 dira jadanik; gehienak Europako herrialderen batean jaiotakoak dira, eta bigarren talde ugariena Hego Amerikakoa da. Azken talde hori da kopurutan gutxitzen ari den bakarra: 2009-2010 ikasturtean 193 ikasle dira, eta azken ikasturtean 134 ikasle dira (Eskola-jarduera, 20. taula).

2019-2020 ikasturtean, araubide orokorreko irakaskuntzetan, atzerritar jatorriko 274 ikasle ikastetxe publikoetara joaten dira, eta 382 pribatuetara. Afrikako familiek sare publikoa aukeratzen dute gehienbat. Haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta DBHko mailak soilik hartzen baditugu kontuan, 598 ikasle migratzaileetatik, 217 ikasle joan dira ikastetxe publikoetara, eta 381 pribatuetara; hau da, guztien % 64k aukeratu du pribatua (Eskola-jarduera, 21. taula).

Helduen hezkuntzako ikasle migratzaileen kasuan, atzerriko herrialderen batetik etorritako 176 gizon eta 77 emakume matrikulatu dira 2019-2020 ikasturtean; guztira 407 ikasle egon direla kontuan izanda, bi herenak izan dira atzerritar jatorrikoak. Gehienak Senegalgo eta Marokoko gizonak dira. 2009-2010 ikasturtean ere garrantzitsua zen ikasle migratzaileen ehunekoa, 970 ikasletik 403 atzerritar jatorrikoak baitziren, hau da, % 40 baino gehiago (Eskola-jarduera, 22. taula).

2.4. Irakasleak

Erreferentziatutako hogei urteotan, irakasle kopurua 533tik 772ra igo da eskualdean. 2019-2020 ikasturtean, irakasle emakumeak 574 dira, eta gizonezkoak 198. Desberdintasun hori eskola txikietan nabarmentzen da bereziki, non haur hezkuntza eta lehen hezkuntza soilik dauden. 2019-2020 ikasturtean, zazpi irakasle gizonezko eta irakasle emakume bat gehiago kontratatu dira (Eskola-jarduera, 23. taula).

2.5. Ikasle ez diren biztanleen ikasketa-maila

2010 eta 2019 alderatuz: ikasle ez diren biztanleen ikasketa-mailak gora egin du; analfabetismoa ia desagertuta dago; «ikasketarik gabe» kategoriako kopurua, berriz, gero eta txikiagoa da, eta adineko emakumeak izaten dira, oro har; oinarrizko ikasketak baino ez dituzten pertso-

nen kopurua ere gutxitzen da (baina biztanleriako multzo jendetsuena da —ia biztanle guztien herena—) eta emakumeak ugariagoak dira gizonak baino; alabaina, ia ez da aldatu bigarren hezkuntzako ikasketak amaituta dituzten pertsonen kopurua, eta ikasketa-maila hori duten gizonak gehiago dira emakumeak baino. Gero eta pertsona gehiagok ikasi dute lanbide heziketa 2019. urtean, ia 4.000 gizonek eta 2.650 emakumek. Aitzitik, aipatutako hamarkadan, erdi-goi mailako ikasketak dituztenen kopuruak behera egiten du —kopuruak baxua izaten jarraitzen du—, eta ikus daiteke feminizatutako karrerak direla, hala nola erizaintza, irakaskuntza..., 2019an 2.000 emakumek eta 1.100 gizonek dute, gutxi gorabehera, maila hori.

Azken hamar urte hauetan, ia mila pertsona gehiagok egin dituzte goi mailako edo unibertsitateko ikasketak —kopuru absolututan, ia 3.000 emakume eta 2.800 gizon dira—, guztizko biztanleriaren % 18k, ehuneko hori Bizkaikoa (% 20) baino pixka bat txikiagoa da; eta 467 pertsonak egin dute doktoretza edo graduondoa.

Sukarrietan eta Ibarrangelun, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa Busturialdea-Urdaibaiko batezbestekoa baino handiagoa da (Eskola-jarduera, 24., 25. eta 26. taulak).

2.6. Euskararen erabilera

Eusko Jaurlaritzaren *VI. Mapa soziolinguistikoa 2016* txostenaren arabera, Busturialdea-Urdaibain bizi diren 5 urtetik gorako biztanleen ia hiru laurdenek ondo ulertzen eta hitz egiten dute euskara, gehienek ama-hizkuntza dutelako, eta horietatik % 15k ondo ulertzeko eta hitz egiteko moduan ikasi duelako, nahiz eta gaztelania edo beste hizkuntza bat izan ama-hizkuntza. Egoera horretan dauden emakumeen eta gizonen kopurua berdintsua da; ama-hizkuntza euskara izan duten emakumeak, berriz, gizonak baino ia 900 gehiago dira. Ia % 20k aitortzen du ez dakiela euskaraz batere hitz egiten, eta ez duela ez ulertzen, ez «ondo» irakurtzen, ama-hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntzaren bat duelako. Badago ama-hizkuntza euskara izanagatik euskaraz hitz egiten ez dakitenen talde txiki bat ere. Bestalde, % 8k euskaraz hitz egiteko «zailtasunak» dituela adierazi du (Eskola-jarduera, 27. taula).

Aztertu den beste alderdi bat euskararen etxeko erabilera da. Udalerri txikietan, oso handia da euskara ulertzen eta «ondo» hitz egiten duten pertsonen ehunekoa, baina ehuneko horrek behera egiten du Bermeon eta Gernika-Lumon, izan ere, herri horietan gehiago dira euskara ama-hizkuntzatzat izan ez dutenak, edo, euskara ama-hizkuntza

izan arren, etxean ez dutela hitz egiten diote batzuek. Eskualdean, 5 urtetik gorako biztanleria osoa kontuan hartuta, 8.000 pertsona baino gehiago dira guztiz gazteleraz edo «erdaldun zaharrak» («castellanófonas», Eustaten definizioa: ama-hizkuntza gaztelaina edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ezer ez hitz egiteaz gain, ez dute "ondo" ulertzen, ezta irakurtzen ere») (Eskola-jarduera, 28. taula).

3. GENERO-DESBERDINTASUNA

Busturialdea-Urdaibain, 2020ko urtarrilaren 1ean, 23.446 emakume dago, ia 46.000 biztanleetatik % 51. 65 urtetik gorakoen artean, emakumeak gehiago dira gizonak baino (ikus 3. koadroa), eta alde hori areagotu egiten da adinak aurrera egin ahala. Izan ere, zaharren gehiengoa emakumea da. 75 urtetik gorako biztanleen edo gainzahartuen artean, 3.376 emakumeak dira eta 2.140, gizonak. 85 urte baino gehiagoko pertsonen taldean, berriz, 1.347 dira emakumeak eta 611 gizona, hots, bikoitza baino gehiago dira emakumeak. 100 urte edo gehiago dituzten hamahiru emakume eta lau gizon daude (Genero-desberdintasuna, 1., 2. eta 3. taulak).

Emakumeek egiten dituzte zaintza-lanak gehienbat, eta emakumeak dira, halaber, zaintza-lanak luzaroen behar izango dituztenak ere, haien bizitza-luzera eta mendekotasunean egingo dituzten urteak direla eta. 2019. urtean, emakumeen bizi-itxaropena 86,6 urtekoa zen jaiotzean, eta

3. KOADROA. **BIZTANLERIA ADIN-TALDE HANDIEN ETA SEXUAREN ARABERA, 2020**

		Busturialdea-Urdaibai	Bizkaia	EAE
0-19 urte	Gizonak	4.346	103.279	206.752
	Emakumeak	4.075	97.374	194.777
20-64 urte	Gizonak	13.520	339.619	650.226
	Emakumeak	13.256	345.546	653.592
>65 urte	Gizonak	4.661	109.973	210.238
	Emakumeak	6.115	153.253	284.126

Iturria: Eustat, Biztanleen Udal Estatistika (BUE), erreferentziako urteko urtarrilaren 1ean.

gizonena 80,8 urtekoa. 2013. urtean, osasun txarrarekin bizi izandako urteak 13,3 ziren emakumeen kasuan, eta 10,3 gizonenean. 2020an 65 urte dituzten emakumeak 89,4 urte bete arte bizi ahal izango dira, gizonak baino zazpi urte gehiago. Baina desiragarriena desgaitasunik gabe bizitzea da, eta 2018an, emakumeak 72,8 urte egin arte bizi ahal izan ziren osasuntsu, eta gizonak, berriz, 70,5 urte egin arte (Eustat, Osasunaren panorama, 2021. 2021/02/18ko prentsa-oharra).

3.1. Amatasuna

Amatasunari dagokionez, 2000. urtean 316 emakume izan ziren ama; kopuru hori handitzen joan zen, gorabeherekin, eta 2011n iritsi zen handiena izatera: 452 haur jaio ziren. Urte horretatik aurrera, jaiotzak behera egiten hasi ziren, eta 2020an 331 emakume izan ziren ama; 2020ko jaiotza kopurua aurreko urtekoa (283 emakume izan ziren ama) baino handiagoa izan zen (Genero-desberdintasuna, 4. taula).

Gero eta emakume gehiagok erabakitzen dute ezkondu gabe ama izatea, baina gehienek bikotekideak izaten dituzte bizikide (Bizkaian eta EAEn ere gertatzen da hori). 2000. urtean, emakumeen % 10 izan zen ama ezkondu gabe, eta 2020an ehuneko hori % 51 izatera heldu zen. Ama izan ziren emakumeen % 12k hirugarren aldia zuen, gutxienez; gainerako erditzeak lehenak edo bigarrenak izan ziren, ia erdibana (Genero-desberdintasuna, 5. eta 6. taulak).

Bizkaian, erreferentziako hogei urte hauetan, ama izan diren emakumeen artean, emakume migratzaileen ehunekoa gero eta handiagoa izan da: 2000. urtean, ama izandako emakumeen % 2,7 zen migratzailea; 2019an, % 25era igo zen ehuneko hori, eta 2020an, berriz, % 27ra. Bizkaian, Hego Amerikako eta Ameriketako gainerako herrialdeetako ia 1.000 emakume izan ziren ama 2020an. Jatorriz Magrebekoak diren emakumeena da ama izandako migratzaileen bigarren kopuru handiena, eta horiei Afrikakoak batuz gero, 500 baino gehiago dira. Herrialdeka eta zenbakizko garrantzia handienetik txikienera ikusita, ama izandako migratzaileak jatorriz Marokokoak, Kolonbiakoak, Boliviakoak eta Errumaniakoak dira (Genero-desberdintasuna, 7. eta 8. taulak).

3.2. Mugikortasuna

2020. urtean, Busturialdea-Urdaibaiko emakumeak gizonak baino gutxiago lekualdatu ziren immigratzeko nahiz emigratzeko, COVID-19

pandemiak mugikortasuna mugatu baitzuen (Genero-desberdintasuna, 9. taula).

2019an, Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) datuen arabera, Busturialdea-Urdaibain bizi dira pertsona migratzaileen ehunekoa sexuaren arabera nahiko parekidea da: 2.237 emakume eta 2.087 gizon daude. Bermeon gizon gehiago dago (771) emakumeak baino (747), eta Gernika-Lumon, berriz, emakume gehiago dago (1.077) gizonak baino (959). Emakumezkoak biztanleria osoaren artean, emakume migratzaileak ia % 10 dira eskualdean, % 12 Gernika-Lumon, eta % 9 Bermeon. Udalerri txiki batzuetan emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, baina kopuru absolututan ez du garrantzi handirik. Emakume migratzaileen % 80 udalerri handienetan (Gernika-Lumo eta Bermeo) bizi da, eta gehienak jatorriz Errumaniakoak dira. Emakume gazteak edo adin ertainekoak dira, oro har (Genero-desberdintasuna, 10. taula).

3.3. Emakumeen enplegua

Enplegu-tasa (hau da, 16 urtetik gorako pertsona landunen proportzioa) 2020an % 45,7 da emakumeetan, eta % 51,1 gizonen kasuan; 2010ean tasa hori % 43,5 zen emakumeen kasuan, eta % 52,8 gizonenean. Hots, emakumeen enplegu-tasa 2,2 puntu igo da hamar urte horietan, eta gizonenak 1,7 punto egin du behera. Epe horretan, emakume landunen kopurua 600 hazi da, eta gizon landunen kopurua, berriz, mantendu da. Hala ere, 2020an biztanleria landunaren artean, 550 gizon gehiago (9.721) dago emakume landunak baino (9.221) (Genero-desberdintasuna, 11., 12. eta 13. taulak).

Datuak hartzen diren urtearen araberako aldaketak izanik, 2006 eta 2018ko datuak alderatuz gero, eta udalerriaren arabera, emakumezkoen enplegu-tasa igo egin da eta gizonezkoen tasa gutxitu, beraz, genero-arrakala —kasu honetan, gizonezkoen eta emakumezkoen enplegu-tasen ehuneko puntuen arteko aldea— murriztu egin da. Eskualdeko genero-arrakala Bizkaikoa eta EAEkoa baino txikiagoa da. 2019an, Gernika-Lumoko genero-arrakala batezbestekoa baino handiagoa zen, Bermeon apur bat txikiagoa, eta Ajangizen, berriz, negatiboa zen urte horretan, hau da, emakumeen aldekoa (Genero-desberdintasuna, 14. taula).

Sektoreka, Busturialdea-Urdaibain emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da zerbitzuen sektorean. 2020. urtean, zerbitzuetan lan egiten zuten 13.535 pertsonetatik 8.102 (% 60) emaku-

meak ziren. Hirugarren sektorean lan egiten duten pertsonak guztizko lan-indarraren % 71 dira jada, eta azken hamar urteetan ehuneko hori gero eta handiagoa egin da. Denbora-tarte horretan, ia 1.000 emakume hasi dira zerbitzuen sektorean lan egiten. Industria da bigarren sektore garrantzitsuena, eta lan-indarraren % 20 hartzen du. 2010. urtetik 2020ra, 346 pertsona gutxiago ari dira industrian lan egiten, eta emakumeak guztizkoaren laurdena dira. Eraikuntzan, 2010etik 2020ra 600 lanpostu galdu dira, eta 2020. urtean 1.099 pertsonak egiten dute lan (gizonak dira hamarretik bederatzi). Azkenik, nekazaritzan (abeltzaintza eta arrantza barne) 500 pertsonak baino zertxobait gehiagok egiten dute lan, eta horietatik 100 soilik dira emakumeak (Genero-desberdintasuna, 15. taula).

Soldatapeko biztanleen artean eta ikasketa-mailaren arabera, 2010ean gehienek (ia 8.000) lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasketak zituzten. 2020an, ia 2.000 pertsona gutxiago dago multzo horretan, eta gizonak ugariagoak ziren emakumeak baino. Bigarren multzo jendetsuena unibertsitateko ikasketak dituzten haiena da; talde horretan gero eta jende gehiago dago (2.994 emakume eta 2.363 gizon). 2010eko datuekin alderatuta, emakume landunen artean, 900 gehiago dira 2020an ikasketa-maila hori dutenak, eta gizonak, berriz, 300 gehiago. Hirugarren postuan, lan-esparruan, lanbide heziketa ikasi duten emakumeen eta gizonen kopurua hamar urte hauetan ere handitu egin da, eta 2020an 3.128 gizon eta 2.052 emakume daude. 2020an, erdi-goi mailako ikasketak duten (osasun-arloan, hezkuntzan…) 1.673 emakume eta 902 gizon ari dira lanean. Hamar urte hauetan, Ikasketa-maila horrekin kontratatutako emakume kopurua ez da aldatu, baina 100 gizon gutxiago daude (Genero-desberdintasuna, 16. taula).

2020. urtean, Busturialdea-Urdaibaiko establezimenduetan (hots, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten unitateetan) 5.719 emakumek egiten dute lan eta 8.022 gizonek. Tokiko ekoizpen-sarearen arabera, desberdina da Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden emakumeen eta gizonen tasa. Hala, gizonen afiliazio-tasa emakumeena baino handiagoa da sektorea gehienbat industriala denean, esaterako, ikus Ajangiz (Maier) edo Muxika (Ebaki XXI eta zerrategiak). Aitzitik, zenbait udalerritan (hala nola Busturia) zerbitzuak ematen dituzten establezimenduak (zaharren egoitzak…) daude, eta emakumeen afiliazio-tasa gizonena baino altuagoa da. Bermeon eta Gernika-Lumon, ekoizpen-sarearen aniztasun handiagoa dela medio, oreka handiagoa dago Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden emakumeen eta gizonen

artean, gizonak gehiago badira ere. Halaber, Gizarte Segurantzan afiliatuta dauden pertsonen kopurua pertsona horiek bizi diren udalerriaren arabera aztertzen bada, tasa maskulinoa femeninoa baino zertxobait altuagoa da, oro har (Genero-desberdintasuna, 17., 18. eta 19. taulak).

2020ko urtarrilean, COVID-19aren aurretik, Lanbiden lan-eskatzaile gisa erregistratutako langabeak 1.248 emakume eta 1.069 gizon dira; abenduan, berriz, 1.305 emakume eta 1.148 gizon daude langabezian. 2021eko maiatzean, 1.094 gizon eta 1.235 emakume daude lanik gabe. Emakume horiek lan bila zebiltzan pertsona guztien % 53 dira; ehuneko hori Bizkaikoa eta EAEkoa (% 55) baino txikiagoa da (Genero-desberdintasuna, 20. taula).

2007tik aurrera, Lanbiden erregistratutako emakumeak gizonak baino gehiago izan dira Busturialdean ia beti. 2009an soilik (2008ko krisiaren ondoren eta eraikuntzaren erorialdia zela eta) egon ziren emakume baino gizon gehiago (50 gehiago); 2010ean eta 2013an, berriz, kopuruak oso antzekoak izan ziren (Genero-desberdintasuna, 21. taula).

Eskualdeko langabezia zenbatzen duen beste iturri bat Eustat da. Erakunde horren arabera, gizonen langabezia-tasa emakumeena baino handiagoa izan zen 2010ean eta 2015ean, eta berdina 2016an. Ordutik aurrera, emakumeen tasa beti izan da handiagoa. Hori Gernika-Lumon zein Bermeon gertatzen da. Azken udalerri horretako langabezia-tasa, Eustaten arabera, eskualdekoa eta Bizkaikoa baino altuagoa da, hala emakumeen artean, nola gizonen artean (Genero-desberdintasuna, 22. taula).

Lanbideren datuek diotenez, 2020an, Bermeoko eta Gernika-Lumoko emakumeen langabezia-indizea gizonena baino handiagoa da, Busturian, hamar puntu handiagoa da, eta Muxikan, aldiz, hiru puntu txikiagoa (Genero-desberdintasuna, 23. taula).

2020an zehar, Bermeon eta Gernika-Lumon erregistratutako emakume gazteen (25 urtetik beherakoak) langabezia gizon gazteena baino txikiagoa izan da. Baina adin horretatik aurrera, langabeziak gehiago eragiten die emakumeei, zaharrenei batez ere, adin bereko gizonak baino gehiago baitira lanik gabe daudenak. Hori erregistratutako hil guztietan ikusten da; Busturian eta Muxikan, aldiz, 45 urtetik gorako pertsonen artean, lan bila dabiltzan gizonak emakumeak baino gehiago dira (Genero-desberdintasuna, 24. taula).

Eustaten arabera, Busturialdea-Urdaibain, 2019an, derrigorrezko ikasketak soilik (ikasketarik gabe, lehen hezkuntzakoak edo bigarren hezkuntzakoak) dauzkaten pertsonak daude langabezian gehienbat,

eta emakumeak gizonak baino gehiago dira. Horrez gain, lan bila ari diren emakumeen laurdenak erdi- edo goi-mailako ikasketak ditu; ikasketa-maila hori duten gizonen artean, berriz, langabezia txikiagoa da (Genero-desberdintasuna, 25. taula).

2019. urtean, Bizkaiko eskualdeen arteko sailkapen batean, Busturialdea-Urdaibaiko (Gernika-Lumo eskualdea ere deitua) emakumeen langabezia-tasa bigarren altuena zen (% 15), Leioako azpieskualdeak soilik baitzuen altuagoa; bestalde, gizonen langabezia-tasa (% 9,1) batezbestekoa (% 9,4) baino pixka bat txikiagoa zen, beste eskualde batzuetan (Barakaldo, Bilbo, Sestao eta abar) handiagoa baitzen. (Genero-desberdintasuna, 26. taula).

COVID-19ak eragindako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteei (ABEEE) dagokienez, pandemiaren hasieran (2020ko martxoan), 929 emakume eta 979 gizon zeuden egoera horretan. Kopurutan, ekonomia-jarduera bakoitzean lan egiten duten sexu bateko edo besteko langile kopuruen araberakoa izan zen egoera. Adibidez, industrian, gizon gehiago egon ziren ABEEEn, eta ostalaritzan eta zerbitzuetan, berriz, emakume gehiago. ABEEEn egon ziren soldatapeko emakumeak manufakturen industriakoak ziren Bermeon, eta dendetako langileak Gernika-Lumon; gainerako udalerrietan, berriz, ostalaritzakoak (Genero-desberdintasuna, 27. taula).

2021eko ekainean sinatutako ia 1.200 kontratuetatik, % 92 aldi baterakoak izan dira. Bi sexuetako pertsonak daude egoera prekario berean, baina emakumeek lanaldi partzialeko askoz kontratu gehiago sinatu dituzte, gizonek halako bi, gutxi gorabehera (Genero-desberdintasuna, 28. taula).

3.4. Desberdintasun ekonomikoa

Busturialdea-Urdaibain, 2018an, emakumeen batez besteko soldata (enpleguagatiko ordainketa) 9.878 euro/urtean zen 2018an, eta gizonena, 14.776 eurokoa; hau da, urteko ia 5.000 euroko aldea zegoen (% 23ko soldata-arrakala). 2001. urtetik aurrera, emakumeen batez besteko soldata ia bikoiztu egin da, prestakuntza akademiko hobea eta kualifikazio handiagoko enpleguak dituztelako. Gizonen soldatek ere gora egin dute, baina proportzio txikiagoan. Udalerriz udalerri, Ajangizen eta Kortezubin bizi diren emakumeek jasotzen dituzte, batez beste, soldatarik altuenak. Gainera, pertsonako batez besteko errentari erreparatuz gero —mota guztietako diru-sarrerak: prestazioak, kapital higigarri eta higiezinen errentak, ekonomia-jar-

duerak egiteagatik jasotakoak eta abar—, emakumeena gizonena baino ia 9.000 euro/urtean txikiagoa da (Genero-desberdintasuna, 29., 30. eta 31. taulak).

Genero-desberdintasuna neurtzen duen beste adierazle bat pertzentiletan adierazitako errenta pertsonala da. Hala, gizonen errentek gora egin ahala, gehiago aldentzen dira emakumeen errentetatik; izan ere, emakumeei «beirazko sabaiak» eragiten dienez, ez dituzte gizonek adina ondasun (soldatak eta beste diru-sarrera batzuk) eskuratzen. Erdialdeko pertzentiletan, aldea 9.000 euro ingurukoa da, altuagoetan 15.000 eurokoa da, eta oso-oso altuetan 50.000 eurokoa izan daiteke. Baxuenetan, berriz, aldea 7.000 euro ingurukoa da (Genero-desberdintasuna, 32. taula).

Lanaldi osoko ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzten emakumeak «biztanleria ez-aktiboa» multzoan sailkatzen dira, pentsiodunekin, erretiroa hartuta daudenekin eta ikasten ari direnekin batera. 24 urtetik 65 urtera bitarteko multzoan, hau da, biztanleria aktiboaren adintzat hartzen dena (lanean edo lan bila ari diren pertsonena), 2010. urtean ia 4.000 emakumek jotzen zuten beren burua «ez-aktibotzat»; 2015ean 2.600 emakume ziren, eta 2020an, 2.400. Egoera horretan 45 urtetik gora dituzten emakumeak daude, batez ere. Bermeon emakume gehiago dago egoera horretan Gernika-Lumon baino (Genero-desberdintasuna, 33. taula).

Busturialdea-Urdaibairi buruzko daturik ez dago ordaindu gabeko etxeko lanek izango luketen balio ekonomikoaz. Bizkaian, egindako kalkuluen arabera, emakumeek beren etxeetan egindako lana ordainduko balitz, 7.539.972 mila eurokoa (ia 7.540 milioi euro) litzateke kostua, eta gizonek egindakoa, berriz, 3.649.440 mila eurokoa (ia 3.650 milioi euro); hau da, erdia baino gutxiago (Genero-desberdintasuna, 34. taula).

Eustatek 2021eko Emakumaren Nazioarteko Egunerako egindako azterketa baten arabera, «zaintzen eta etxeko lanen % 67,2 egiten dute emakumeek EAEn […] Emakume okupatuen % 18,1 ez dago batere pozik ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanetan egiten duen ekarpenarekin, gizonen kasuan, ehuneko hori txikiagoa da, % 4,3koa» (Eustat, Emakumearen Nazioarteko Eguna, 2021. 2021/03/05eko prentsa-oharra).

Eustatek EAErako egiten duen Denbora-aurrekontuen inkestak adierazten duenez, emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute otorduak prestatzen eta arropa zaintzen; gizonek, berriz, beste konponketa eta gestio batzuetan edo «erdi-aisialdian» ematen dute

denbora gehiago. Biek ordu kopuru bera ematen dute erosketak egiten. Emakumeek denbora gehiago ematen dute haurren zaintzan, eta gizonek, zertxobait gehiago helduen zaintzan (Genero-desberdintasuna, 35. taula).

Pobreziaren feminizazioa dela-eta, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) kobratzen duten 922 pertsonetatik ia % 60 emakumeak ziren 2021eko ekainean. Gainera, kopuru garrantzitsu batek «amatasun bakarrako» osagarri bat jasotzen du (amak eta bere ardurapean dauden adingabeak soilik osatutako bizikidetza-unitateari erreferentzia eginez). DSBE kobratzen duten 65 urtetik gorako 170 pertsonetatik, hamarretik ia zazpi emakumeak dira, eta dauzkaten pentsio eskasak osatzeko jasotzen dute. Lana izanagatik, soldata txikia dutelako DSBE osagarri gisa jasotzen dutenen ehunekoa txikia da, baina apur bat handiagoa da emakumeen kasuan gizonenean baino (Genero-desberdintasuna, 36., 37., eta 38. taulak).

Hau da Busturialdea-Urdaibain DSBE jasotzen duten emakumeen profila: adin ertaineko emakumea (40-59 urte), prestakuntza-maila txikia duena, eta bakarrik edo beste pertsona batekin bizi dena, alaba edo semea gehienetan (Genero-desberdintasuna, 39. taula).

Zazpi urteko epean, 2014ko ekainetik 2021eko ekainera, DSBE jasotzen duten emakumeen kopurua erdira murriztu da, 1.068 izatetik 542 izatera, eta gizonen kasuan, 609tik 377ra (Genero-desberdintasuna, 40. taula). Hona hemen hori ulertzen lagundu diezagukeen Mikel Novalen (ELA sintikatua) baieztapena (Gara, 2020/8/13): «Gobernua murrizketak egiten ari da 2012tik».

3.5. Beste datu batzuk

Busturialdea-Urdaibain, 2008tik 2019ra 999 salaketa aurkeztu ziren Ertzantzan emakumeek jasandako bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeriagatik; horrez gain, 65 sexu-eraso salatu ziren, eta familia barneko 303 indarkeria kasu. 2019an genero-indarkeriarekin lotutako 92 salaketa jarri ziren, eta 2020an, 111; eta sexu-erasoei dagokienez, zazpitik hirura gutxitu ziren. Familia barneko indarkeria kasuak, berriz, hamar kasu gehiago izan ziren 2020an 2019an baino (17tik 27ra). Bizkaian, 2004. urtetik 2020.era 58 emakume hil zituzten, eta Gernika-Lumon gizon batek bere emaztea hil zuen 2009an (Genero-desberdintasuna, 41. eta 42. taulak).

Eskualdeko udal-korporazioetan sei emakume eta hamalau gizon dira alkate; zinegotzietatik, berriz, 69 emakumeak dira, eta 75, gizonak;

azkenik, udal-idazkarietako hamahiru emakumeak dira, eta sei, gizonak (Genero-desberdintasuna, 43. taula).

Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan, emakumeen hamabi elkarte daude eskualdeko udalerrietan, baina horietako batzuek ez dute jarduerarik, are gehiago kontuan izanda COVID-19ak elkartzeko zailtasunak handitu dituela. Zenbait talde feminista (hala nola Sorginorratz eta Norez) ez daude erregistratuta (Genero-desberdintasuna, 44. taula).

Udalerri batzuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak onartu dituzte: Bermeon, Berdintasunaren II. Plana (2019-2022); Busturian, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2020-2024); Ean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana (2018-2021); eta Mundakan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta I. Plana (2018). Busturialdeko Udalerri Txikietako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana (2009-2012) ere egin zen.

Bermeoko Udalak Genero Berdintasunaren Zerbitzu bat du 2017tik, eta Gernika-Lumoko Udalak, 2018tik. Azken udalerri horretan, 2021ean Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunarekin lotutako zerbitzuak emateko laguntza teknikoa esleitu da, bai eta Berdintasunaren IV. Udal Planaren eta emakumeen arreta psikologikoaren jarraipena ere. Gernika-Lumoko udalerria Berdinsareako (berdintasunaren aldeko udalerrien sarea, Emakunde eta Eudelek bultzatuta) kide da.

4. ETXEBIZITZAK: EGOERA

2020. urtean, Busturialdea-Urdaibain 26.522 familia-etxebizitza zeuden (ikus 4. koadroa). 2010-2020 hamarkadan, 2.238 berri eraiki dira: etxebizitza gehien 2010etik 2015era egin ziren (1.662); 2015etik 2020ra igoera 517 etxebizitza izan zen, eta 2020an, 141 etxebizitza gehiago daude aurreko urtearekin (2019) alderatuta. Eskualdean, establezimendu kolektiboaren kopurua 41eta hazi zen 2015ean eta 2016an, eta 24ra jaitsi zen 2020an (Etxebizitzak: egoera, 1. taula).

Etxebizitza motari dagokionez, «gainerakoak» kategorian (beste batzuetan atsedenerakoak edo bigarren etxebizitzak esaten zaie; hau da, urte osoan erabiltzen ez direnak) 2020an 7.206 dira, hau da, % 27. Kostaldeko udalerrietan, hala nola Sukarrietan, Ean, Elantxoben eta Ibarrangelun, bigarren etxebizitza horiek udalerriko etxebizitza-parkearen erdiak dira.

4. KOADROA. **BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO ETXEBIZITZAK, TIPOLOGIAREN ARABERA, 2010-2020**

	Familia-etxebizitza				Establezimendu kolektiboak
	Guztira	Nagusia	Gainerakoak	Gainerakoak (%)	
2010	24.284	17.619	6.665	27,4	25
2013	25.827	18.600	7.227	28,0	40
2014	25.879	18.706	7.173	27,7	40
2015	25.946	18.747	7.199	27,7	41
2016	26.005	18.798	7.207	27,7	41
2018	26.257	19.149	7.108	27,1	26
2019	26.381	19.217	7.164	27,1	25
2020	26.522	19.316	7.206	27,2	24

Iturria: **Eustat, Etxebizitzen Udal Estatistika.**

1998an, Eustaten arabera (Euskal estatistika urtekaria 1997-1998), 20.340 etxebizitza zeuden eskualdean. 2010ean (1997tik 2007rako aldian «higiezinen burbuila» deritzona gertatu ondoren) dagoeneko 24.300 ziren (4.000 eraiki ziren), hau da, 2010-2020 hamarkadan eraikitako 2.000 etxebizitzaren ia bikoitza. Bermeon, esaterako, 2010etik 2020ra 811 etxebizitza eraiki ziren, eta Gernika-Lumon 786, gehienak lehen bosturtekoan (Etxebizitzak: egoera, 2. taula).

EAEn etxebizitza hutsei (hau da, inor bizi ez direnak) buruzko azken datuak Eustatek Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuan jasotakoak dira. 2001ean 2.286 zenbatu ziren eskualdean; eta 2011n, 4.068 ziren; gehienak Bermeon eta Gernika-Lumon kokatua, eta bi udalerrietakoak batuta 2.731 ziren (1.583 eta 1.148, hurrenez hurren) (Etxebizitzak: egoera, 3. taula).

Familia-etxebizitzak edukitzeari dagokionez, jendearen % 86k jabetzan zeuzkan 2016. urtean, eta ehuneko hori Bizkaiko berbera zen, % 11 alokatuta zegoen, eta gainerakoak beste eraren batean erabiltzen ziren. Kopurutan, Gernika-Lumon (836 etxebizitza) eta Bermeon (789 etxebizitza) daude gehien alokairuan. Ereñon eta Nabarnizen alokairuko etxebizitzen kopurua txikia da, baina etxebizitza guztien % 20 hartzen du (Etxebizitzak: egoera, 4. taula).

2016an, Eustaten datuen arabera, alokairuko etxeak jabetzakoak baino gehiago dira 30 urtetik beherako biztanleen multzoan. Bestalde, alokairuan bizi direnen artean langabezia-tasa altuagoa da. Erositako etxeak ugaritu egiten dira adinean aurrera egin ahala, eta 65 urtetik gorako pertsonen % 93k jabetzan du etxebizitza. (Eustat, Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsua, 2016. 2019/03/14ko prentsa-oharra).

Busturialdea-Urdaibain, 2019an, hirutik hogeira unitate bitarteko eraikinetan dago etxebizitzen % 70 —etxebizitza-eredu hori da ohikoena— eta, beraz, eskualdeko biztanle gehienak «pisu» deritzenetan bizi dira. Mota horretako etxebizitzetan bizi da Gernika-Lumoko eta Bermeoko biztanleen gehiengoa. Azken udalerri horretan, 1.500 etxebizitza hogei unitate baino gehiagoko eraikinetan daude. Bigarren etxebizitza ugarienak (% 16) familia bakarrekoak dira (baserriak, txaletak…). Muxikan dago horrelako etxebizitzen ehuneko handiena, udalerri horretako eraikinen % 87 familia bakarreko etxebizitzak baitira (774tik 667); Arratzu (% 85) eta Kortezubi (% 82) datoz ondoren. Bi familiako etxebizitzak % 6 dira. Bi ereduak batuz gero (familia bakarrekoa eta bi familiakoa), hamar etxetik bi etxebizitza bakartuak dira; Bizkaian, berriz, hamarretik bat da. Etxebizitza bakartuaren eredua udalerri txikietan dago gehienbat (Etxebizitzak: egoera, 5. taula).

4.1. Ezaugarri nagusiak, instalazioak eta zerbitzuak

Etxebizitza-parke zaharrena Errigoitin, Mendatan eta Nabarnizen dago, eta berriena Muruetan eta Gernika-Lumon (Etxebizitzak: egoera, 6. taula).

Busturialdea-Uraibain etxebizitzen batez besteko azalera 125 metro karratukoa da, eta egonkor mantendu da azken hogei urteetan. Bermeon eta Gernika-Lumon azalera hori batezbestekoa baino txikiagoa da, bai eta kostaldeko udalerrietan ere, hala nola Elantxoben, Mundakan eta Ean (Etxebizitzak: egoera, 7. taula).

Familia-etxebizitza gehienek (% 66) lau edo bost gela dituzte; % 29 sei gelakoa edo gehiagokoa da eta udalerri txiki batean dago, non familia bakarreko etxebizitzak dauden gehienbat; eta ehuneko txiki batek gela bat eta hiru artean dituzte (Etxebizitzak: egoera, 8. taula).

Etxebizitza gehienetan bainugela bakarra dago, baina etxebizitzen % 37ak bi ditu, eta horretan, ia ez dago alderik udalerrien artean (Etxebizitzak: egoera, 9. taula).

Ia etxebizitzen erdiek dute igogailua. Gernika-Lumon eta Bermeon, hiru etxebizitzatik bik dute; udalerri txikietan, berriz, hala nola Arratzun, Mendatan edo Morgan, etxebizitzek ez dute igogailurik (Etxebizitzak: egoera, 10. taula).

Ia hamar etxebizitzatik seik berogailu indibiduala dute. Laurden batek puntuala du; hau da, gelaren bateko edo guztietako tenperatura igotzeko aukera ematen duen gailu mugikor edo finko bat du, erradiadore elektriko mugikorrak barne. Berogailu zentrala Gernika-Lumoko eta Bermeoko eraikinetan dago, batez ere (Etxebizitzak: egoera, 11. taula).

2019. urtean, Busturialdea-Urdaibaiko udalerrien erdietan, hodi bidezko gas-instalazioak dituzten familia-etxebizitzen eraikin nagusiek. Eraikin horiek, batez ere, udalerri handienetan, hots, Bermeon, Gernika-Lumon, Mundakan, Foruan, daude, baita Sukarrieta, Ea eta Ajangiz bezalako txikietan ere. 2001ean lau udalerritan zuten zuzkidura hori, biztanle gehien zituzten udalerrietan, alegia; 2011etik aurrera beste batzuetan ere jarri zen, hala nola Ajangizen, Busturian, Ean eta Elantxoben (Etxebizitzak: egoera, 12. taula).

Instalazio eta zerbitzu horiek guztiek (antzinatasuna, azalera, gela kopurua, igogailua, berogailua…) familia-etxebizitzen konfort-indizea neurtzen dute. Horri buruzko azken datua 2011koa da, eta garai hartan adierazle hori Bizkaikoa eta EAEkoa baino txikiagoa zen, baina litekeena da azken hamar urteetan egoerak hobera egin izana (Etxebizitzak: egoera, 13. taula).

2020. urtean, 3-5 pertsona bitartekoa bizi ziren etxebizitzen % 40n. Hori da bizikidetza-eredu ohikoena, eta duela hamar urte % 45ekoa zen ehuneko hori. Pertsona bakarreko etxebizitzak % 32 dira, eta % 26 ziren duela hamar urte; hau da, sei puntu igo da haien ehunekoa. Busturialdea-Urdaibain, pertsona bakarreko etxebizitzak bi pertsonako etxebizitzak baino ugariagoak dira, Bizkaian eta EAEn ez bezala; beraz, beste lekuetan baino presentzia handiagoa dute. Bi pertsonako etxebizitzak dira hirugarren ugarienak (% 27); hamar urte lehenago % 26 ziren, eta, beraz, egoera ez da asko aldatu. Oso etxebizitza gutxitan daude bost pertsona baino gehiago.

2016. urtean, etxebizitza bakoitzean 2,4 pertsona bizi dira, batez beste, Bizkaian eta EAEn bezala; 2000. urtean, berriz, hiru pertsona bizi ziren etxebizitzako, hau da, gero eta pertsona gutxiago bizi dira etxebizitza bakoitzean. Balio hori txikiagoa da bigarren etxebizitzen ehuneko handia duten udalerrietan; beraz, ondoriozta daiteke horrelako etxebizitza bakoitzean pertsona bakarra dagoela erroldatuta (Etxebizitzak: egoera, 14. taula).

4.2. Etxebizitza politika

Etxebizitza berriak eraikitzeko emandako baimenak behera egiten hasi ziren 2010etik aurrera. Bermeon mila biztanleko 46 ziren 2010. urtean, eta 2019an, berriz, mila biztanleko 2,4. Gernika-Lumon ere behera egin zuten, neurri txikiagoan izanda ere, mila biztanleko 47 baimen 2010ean, eta mila biztanleko 8 baimen 2019an. Azken aipatutako urtean, 2019, Sukarrietan soilik dira horrelako lizentziak esanguratsuak eskualdeko gainerako udalerrien alderatuta (Etxebizitzak: egoera, 15. taula).

2004tik 2016ra, Bermeon, Foruan, Gernika-Lumon eta Muruetan soilik garatu dira etxebizitza publikoa eraikitzeko nolabaiteko politikak. Udalerri horietan, babes ofizialeko etxebizitza (BOE) gutxi egin dira mila biztanleko. 2013ra arte, Muruetan egin ziren horrelako etxebizitza gehien (mila biztanleko 48). Gernika-Lumon eraikitako etxebizitza publikoen ehunekoa txikiagoa da, baina urte gehiagotan zehar eraiki dira; 2013an amaitu ziren etxebizitza sozial gehien (mila biztanleko 33). Foruan, 2008tik 2012ra, mila biztanleko 8 etxebizitza egin ziren, eta Bermeon, berriz, oso gutxi eraiki zituzten 2004tik 2016ra arte (Etxebizitzak: egoera, 16. taula).

Etxebiden, etxebizitza publikoen eskaerak izan dira eskualderako 2005. urtetik aurrera; alokairuan, batez ere. Eskaera horri urteetan zehar eutsi zaio, ehunekoa Bizkaikoa eta EAEkoa baino txikiagoa bada ere. Mundakan, Busturian eta Foruan bizi den biztanleriaren guztizkoa kontuan izanda, eskaeraren ehunekoa handia da; baina, kopuru absolututan, Bermeon eta Gernika-Lumon dago gehien (Etxebizitzak: egoera, 17. taula).

Hau da babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko izen-emate gehien izan duten udalerrietan (Bermeo, Gernika-Lumo, Busturia, Forua eta Mundaka) erroldatutako pertsonen profila: hamar eskatzailetik sei emakumeak dira, eta gehienek (% 82) alokairuan nahi dute etxebizitza; horrez gain, diru-sarrera ponderatuen batezbestekoa 17.789 eurokoa da urteko (Etxebizitzak: egoera, 18. taula).

4.3. Lurzoruaren erabileren banaketa

Busturialdea-Urdaibain, bizitegi-lurzoruko etxebizitzen dentsitatea txikia da, ia Bizkaikoaren erdia. Dena dela, kostaldeko udalerrietan (Mundaka eta Ea, adibidez), Bermeon eta Gernika-Lumon bizitegi-dentsitatea eskualdeko batezbestekoa baino askoz handiagoa

da. Azken urteetan gora egin du bizitegi-lurzoruaren okupazioak; esate baterako, hala gertatu da Ean (2010ean hektareako 69 etxebizitza zituen, eta 2019an, 105) eta Mundakan (49 etxebizitza hektareako 2010ean eta 115 etxebizitza 2019an). Gainerako udalerrietan, igoera hori ez da hain handia izan (Etxebizitzak: egoera, 19. taula).

Udal-lurzoruen azalera handiena Muxikak du (ia 5.000 hektarea 27.884tik), Busturialdea-Urdaibaiko guztizkoaren ia % 20, eta bigarrena Bermeo da (3.666 hektarea). Muxikan eta Gernika-Lumon bideratzen da lurzoru gehien ekonomia-jardueretara. Gernika-Lumon, 851 hektarea daude bizitegi-lurzoru gisa kalifikatuta (lehena da sailkapen horretan); bigarrena Bermeo da, eta ia 65 hektarea ditu.

Sistema orokorrak esaten zaien horietan (hala nola espazio libreak, oinarrizko azpiegiturak, garraiorako eta komunikaziorako azpiegiturak, ekipamenduak edo ibai-ibilgua), Bermeo da hektarea gehien dituen udalerria; ondoren dator Ajangiz, neurri txikiagoan baditu ere.

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) arabera, lurzoru urbanizaezina babes berezikotzat jotzen da. Honako hauek osatzen dute: basoak; ingurumenaren hobekuntzarako lurzorua; nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa, eta landazabala; larreak; gainazaleko uren babesa erabilera zehatzik ez dutenak; bai eta erauzketa-jarduerak eta landa-eremuko guneak ere (azken horietan, zenbat etxebizitza dauden eta zenbat egiteko baimena dagoen adierazten da). Lurzoru mota hori da handiena (26.500 hektarea) eskualdean; Muxikako udalerrian dago kalifikazio hori duen hektarea gehien, eta Bermeo da bigarrena sailkapen horretan (Etxebizitzak: egoera, 20. taula).

2004tik aurrera, lurzoru guztiarekiko hiri-lurzoruaren ehunekoa antzekoa izan da udalerri gehienetan. Salbuespen gisa, bikoiztu egin da Ean –% 0,29 zen 2004an, eta % 0,62, berriz, 2019an– eta Muxikan –% 0,34 zen 2004an, eta % 62, berriz, 2019an– (Etxebizitzak: egoera, 21. taula).

5. INGURUMENAREN EGOERA

5.1. Hiri-hondakinak

Atal honetan hiri-hondakinak (HH), etxekoak eta merkataritzakoak, aipatzen dira: masan bilketa («hondakin frakzioa», «bereizi gabea» edo errefusa ere esaten zaio) eta gailkako bilketa (papera-kartoia, beira, ontziak, bio-hondakinak edo organikoak eta bolumen handikoak).

Busturialdea-Urdaibaiko edukiontzietara botatzen diren hiri-hondakin guztien (masa edo errefusa, papera-kartoia, beira, ontziak eta bio-hondakinak edo organikoa) bilketa kontuan hartuz, ia 260.000 kilo gehiago jaso ziren 2020an (17.576.000) 2000n baino (17.316.000 kilo). Dena dela, biztanleria ere ugaritu egin zenez, 8 kilo gutxiago bildu ziren biztanleko (390 kilo 2000n, eta 382 kilo 2020an) (ikus 5. koadroa).

2020-urtean, 2019an baino ia 600.000 kilo hondakin gutxiago bota dira edukiontzietara, beira, batez ere, (ostalaritzako kontsumoan COVID-19agatik ezarri ziren murrizketa sozialak direla eta). Papera-

5. KOADROA. **BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO HIRI-HONDAKINEN BILKETA, 2000-2020 (KILOGRAMO)**

	2000	2009	2010
Masa-bilketa	15.204.481	15.187.550	15.144.038
Paper-kartoien bilketa	918.404	1.503.125	1.422.067
Beira-bilketa	986.302	1.376.183	1.311.613
Ontzi-bilketa	262.845	629.003	623.859
Bio-hondakinen bilketa	—	—	—
Kilogramoak, guztira	**17.316.417**	**18.695.861**	**18.501.577**
Biztanleak	44.148	—	45.339
Kilogramoak/biztanle	**390**	**—**	**404**

	2016	2019	2020
Masa-bilketa	14.217.754	14.002.512	13.378.828
Paper-kartoien bilketa	1.509.194	1.428.139	1.362.581
Beira-bilketa	1.437.444	1.540.056	1.427.970
Ontzi-bilketa	720.377	903.449	1.028.207
Bio-hondakinen bilketa	—	284.682	378.390
Kilogramoak, guztira	**17.884.769**	**18.158.838**	**17.575.976**
Biztanleak	—	—	45.973
Kilogramoak/biztanle	**—**	**—**	**382**

Iturria: Elaborazio propioa Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri-hondakinen Behatokiak egindako azterketaren datuarekin (Bizkaiko Foru Aldundiak urtero azterketa).

ren eta kartoiaren pisuak ere behera egin du (azken urteetan jaisten ari zen jada), bai eta errefusaren bilketak ere (zenbat eta gehiago bereizi eta beste edukiontzi batzuetara bota, txikiagoa da errefusaren pisua). Aitzitik, ontzien kiloak gora egiten ari dira etengabe. Bestalde, 2018. urtetik aurrera, lehen baino hondakin organikoen kilo gehiago biltzen dira, lehen ez baitziren bereizten (errefusa gisa zenbatzen ziren).

Masa-bilketa (errefusa edo «bereizi gabea») hiri-hondakin guztien % 76 da; jaso eta birzikla «daitekeena», berriz, % 24. Masa-bilketa 1.800.000 kilo murriztu da 2000. urtetik 2020.era (15.200.000 kilo izatetik 13.380.000 kilo izatera). 2000. urtean, 344 kilo errefusa sortzen ziren biztanleko, eta 2020an, 291 kilora gutxitu da, hobeto bereizten delako eta beste edukiontzi mota batzuetara (urdina, berdea, horia eta, azken urteetan, organikorako marroia) botatzen delako.

2000. urtean 1.323 edukiontzi zeuden «masa-bilketarako»; arian-arian, kentzen joan dira, eta haien ordez beste batzuk jartzen; 2016an, adibidez, 1.174 ziren edukiontzi berriak. Horrez gain, eskualdeko udalerrietan banatu dira.

2020. urtean, 2019an baino 600.000 kilo zabor gutxiago sortu dira; izan ere, kontuan izan behar da bosgarren edukiontzian (organikoarena) 2019an baino ia 100.000 kilo gehiago bildu direla: 300.000 kilo biltzen ziren 2019an, eta ia 400.000 kilo 2020an (Ingurumenaren egoera, 1. taula).

Bereizitako paperen eta kartoien kilogramo kantitatea aldatzen joan da. 2000. urtean 900.000 bildu ziren, eta 2020an, 1.400.000, gutxi gorabehera. 2000. urtean biztanleko 21 kilo ziren, eta 2020an, 30 kilo (aurreko urtean, 2019, baino kilo bat gutxiago). Bestalde, edukiontziak ugaritu egin ziren 2000. urtetik 2016.era; 158 ziren 2000. urtean, eta 298, berriz, 2016an (Ingurumenaren egoera, 2. taula).

Gero eta beira kilo gehiago ere biltzen dira: 2000. urtean, 1.000.000 kilo inguru bota ziren edukiontzietara, eta 2020an, ia 1.400.000. Biztanle bakoitzak, 2000. urtean, 22 kilo beira botatzen zituen edukiontzietara, batez beste; 2020an, berriz, 31 kilo ziren. Eskualdean, aurreko urtean baino 140.000 kilo gutxiago jaso dira; hau da, bi kilo gutxiago biztanleko. 2000. urtean 144 edukiontzi berde zeuden, eta 2016an, 334; Bermeon ugaritu dira gehien edukiontzi berdeak, hirukoiztu baino gehiago egin baitira (33 unitate izatetik 103 izatera). Gernika-Lumon, 41 ziren 2000. urtean, eta 98 daude 2016an (Ingurumenaren egoera, 3. taula).

Ontzi kilogramoek (plastikoa, latak, tetrabrikak) nabarmen egin dute gora hogei urtetan. 2000. urtean ia 300.000 kilo bota ziren, eta

2020an, milioi bat baino gehiago. Biztanleko, 2000. urtean 6 kilo botatzen ziren, eta 2020an, 22 kilo. Beraz, hirukoiztu baino gehiago egin da ontzi kantitatea, ontziratutako produktuen gero eta kontsumo handiagoa dela eta. 2020. urtean 2019an baino 124.000 kilo gehiago jaso dira: biztanle bakoitzak 2 kilo ontzi gehiago bota ditu edukiontzi horian. Horrez gain, edukiontzi gehiago ere joan dira jartzen: 2000. urtean 183 zeuden, eta 2016rako, 348ra igo zen kopuru hori. Udalerri txikietan ugaritu dira gehien unitateak; Muxikan, adibidez, 5 zituzten 2000. urtean, eta 2016an, 35 zeuzkaten (Ingurumenaren egoera, 4. taula).

2018tik aurrera, eskualdeko udalerrietako erdietan baino gehiagotan (handienetan, oro har), hondakin organikoak edo bio-hondakinak bereizteko edukiontziak dauzkate. Udalerri batzuetan oraindik ez dute horrelako edukiontzirik, eta dauden haietan, kilo kopurua handitu egiten da urtetik urtera: 2018an, 202.000 kilo bota ziren; 2019an, 284.000 kilo, eta 2020an, 378.000 kilo (Ingurumenaren egoera, 5. taula).

Hiri-hondakinen (HH) guztietara itzuliz, Bizkaian, ez da aldaketa handirik izan kantitatean aztertutako hogei urte hauetan: 400 milioi kilo inguru jasotzen dira urtero. 2009an, krisi ekonomikoaren eragina zela medio, aurreko urteetan baino kilo gutxiago bota ziren. 2016tik aurrera, pixka bat handitu da kantitatea, 2020an 400 milioitik behera bildu diren arren. 2020.urtean HHen guztizko kantitatea ere txikiagoa da aurreko urteekin alderatuta: beira, paper eta errefusa (bereizi gabea) gutxiago jaso da, nahiz eta kilo ontzi eta hondakin organiko gehiago. Hogei urte hauetan, Bizkaian 36 kilo murriztu da HHen kantitatea biztanle eta urteko, eta hori Busturialdea-Urdaibain murriztutako 9 kiloak baino askoz gehiago da (Ingurumenaren egoera, 6. eta 7. taulak).

Udalerrika, HHen guztizkoari dagokionez, Bermeon zein Gernika-Lumon ia sei milioi kilo pilatu ziren 2020an; Mundakan, berriz, kantitatea milioi batera hurbildu zen. Kantitate horiek, gorabehera txiki batzuekin, antzekoak izan dira hogei urtetan, biztanleria galdu duten udalerrietan izan ezik (kostaldekoak dira, hala nola Ea, Elantxobe, Sukarrieta eta Mundaka). Aipatu dugun moduan, 2020an, COVID-19aren eraginez, hiri-edukiontzietan botatako hondakinen kilo kopuruak behera egin du ia udalerri guztietan 2019arekin alderatuta, Gernika-Lumon (ia 406.000 kilo gutxiago) eta Bermeon (232.000 kilo), batez ere (Ingurumenaren egoera, 8. taula).

Pilen bilketari dagokionez, 2000. urteko datuak soilik daude, eta ez udalerri guztiei buruzkoak. Urte horretan ia 5.000 kilo zenbatu ziren (Ingurumenaren egoera, 9. taula).

Bolumen handiko hondakinak, hau da tamaina handikoak (altzariak, tresnak, egurra, txatarra, etxeko obren hondakinak…) eta, neurri horien ondorioz, gainerakoen ohiko kudeaketa zaildu dezakete. 2000. urtean, 450.000 kilo jaso ziren, eta 2020an, 643.000 kilo. 2009an eta 2010ean, kantitate hori 400.000 kilo baino gutxiagokoa izan zen, 2008ko krisiaren ondorioz, ziurrenik. Aitzitik, bolumen handiko hondakinen 69.000 kilo gehiago bota ziren 2020an 2019an baino; izan ere, COVID-19ak etxeko konponketekin eta berrikuntzekin lotutako aldaketak ekarri ditu.

2000. urtean, Bermeon bolumen handiko hondakinen 220.000 kilo jaso ziren. Urteetan zehar, kantitate hori mantendu egin da, gorabeherak izan diren arren (2009an eta 2010ean erdira jaitsi zen); 2020an, adibidez, 213.480 kilo bildu dira. Gernika-Lumon, bolumen handiko hondakinen kiloek gora egin dute 84.500 kilotik 2000. urtean 246.000 kilora 2020an (Ingurumenaren egoera, 10. taula).

Bizkaian, 2000. urtean botatako bolumen handiko hondakinen pisua ia 10 milioi kilokoa izan zen, eta kantitate hori mantendu egin da 2020an, zenbait aldaketarekin hogei urte horietan zehar: 2007an 7.700.000ra murriztu zen, eta jaisten joan zen arian-arian. 2013. urtean kuota gutxienekora iritsi arte (4.500.000); hortik aurrera igotzen hasi zen, eta 2020an 10.600.000 kilo bota ziren (Ingurumenaren egoera, 11. taula).

5.2. Energia-kontsumoa

Udalerrietako urteko argindar-kontsumoa (kWh kopurua/biztanle) adierazle baliagarria da udalerrien arteko alderaketa egiteko, baina guztizko kontsumoa biztanle kopuruaz biderkatu behar da. 2020. urtean, Gernika-Lumon 48 milioi kilowatt-ordu kontsumitu dira guztira; Bermeon, 41 milioi; Ajangizen, 24 milioi, eta Muxikan, ia 20 milioi. Argindar-kontsumoan industria ere kontuan hartzen delako eta biztanle kopuru txiki baten artean banatzen delako gertatzen da azken bi udalerri horien eta gainerakoen arteko aldea; Ajangizen kasuan, batez ere. Izan ere, Ajangizen kontsumoa 54.000 kWh/biztanle da, eta tokiko batezbestekoa 3.000 ingurukoa.

Busturialdea-Urdaibain, 2002an kontsumoa 62.000 kWh/biztanle izan zen, eta 2019an, kantitate horren bikoitza baino handiagoa (ia 136.000). 2020an, 126.000ra jaitsi da, industria-kontsumoak nabarmen egin duelako behera COVID-19aren ondorioz.

Hogei urtetan, Gernika-Lumo da tokiko kontsumoak behera egin duen eskualdeko udalerri bakarra (5.000 kWh/biztanle zen 2002an, eta

3.000, berriz, 2019an). Gainerako udalerrietan mantendu egin da (Bermeon, adibidez) edota zertxobait egin du gora. Muxikan bikoiztu egin da, 6.000 Kwh/biztanle-tik 12.000ra (Ingurumenaren egoera, 12. taula).

Argindarraren industria-kontsumoari dagokionez, adierazle hori kalkulatzeko erabilitako datuak Iberdrolak industriei kWh/biztanletan fakturatutakoan oinarritzen dira. 2010-2020 hamarkadan, energia-kontsumo handiena Ajangizen (Maier) egin zen (ia 50.000 kWh/biztanle, eta 22 milioi guztira). Udalerri horretako industrian, 2002an 205 kWh/biztanle erabili ziren; kantitate hori gora egiten joan zen, 2009an izan ezik (2008ko krisiaren ondorioz jaitsi zen), eta 2019ra arte mantendu zen igoera. 2020an, aurreko urtean baino 8.000 kWh/biztanle gutxiago kontsumitu dira.

Bigarren kontsumo handiena Muxikak du (11.000 kWh/biztanle baino gehiago 2020an). Gorabeherak izan dira 2002. urtetik aurrera, baina azken urteetan gora egiten ari dela ikusten da. 2020. urtean, industria-kontsumoa mantendu egin da Ean (Egoin), Mundakan eta Muruetan, COVID-19aren eraginak eragin; Gernika-Lumoko eta Bermeoko industria-sektorean, berriz, murriztu egin da, eta 8.000.000 eta 6.500.000 kilowatt kontsumitu dituzte, hurrenez hurren (Ingurumenaren egoera, 13. taula).

Urteko argindarraren kontsumo ez-industrialak —hau da, bizitegiei, zerbitzuei eta sailkatu gabeko beste kontsumo batzuei dagokiena— gora egin du 2002. urtetik 2019 eta 2020ra, jaisten hasi den urteetan. Kilowatt-ordu biztanlekotan neurtzen denez, udalerri txikietan ditu balio altuenak adierazle horrek, esaterako Muruetan eta Sukarrietan (Ingurumenaren egoera, 14. taula).

Eguzki-energia termikoa eguzki-argiaren energiaz baliatzen da etxeko ur beroa, berogailua, igerilekuetako klimatizazioa edo eguzki-hotza sortzeko sistemak ekoizteko; dena dela, erabilera hedatuena aurrenekoa da. 10.000 biztanleko metro karratutan neurtzen da. eta Ajangizek 10.000 biztanleko 1.000 metro karratu baino gehiago ditu, eta haren ondoren daude Kortezubi eta Morga. Udalerri txikietan hedatu dira gehien mota horretako eguzki-gainazalak; Bermeon, Gernika-Lumon eta Busturian, berriz, oraindik oso gutxi daude. 2020an, Elantxobek eta Ereñok ez dute instalaziorik artean (Ingurumenaren egoera, 15. taula).

2018. urtean, EAEko udalerrien sailkapenean, Ajangiz, Kortezubi, Morga eta Arratzu lehen hogei postuetan zeuden, instalatutako eguzki-energia termikoaren azalerari dagokionez; Elantxobe eta Ereño, berriz, azken postuetan (Ingurumenaren egoera, 16. taula).

Bestalde, eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak argindar-sare orokorrera konektatuta egoten dira, oro har; hala, ekoizten duten energia saltzen dute, eguzki-paneletan egindako inbertsioa amortizatzeko. Arlo horretan, gora egin du 2002. urtetik 2020.era instalatutako potentzia fotovoltaikoak (10.000 mila biztanleko kilowattetan neurtzen da). 2010-2020 hamarkadan bikoiztu baino gehiago egin da (1.860 kilowwattekoa izatetik 4.444 kilowwattekoa izatera). Mundakan sortzen dira kilowatt gehien, eta ondoren, Arratzun; Ajangizen, Mendatan eta Sukarrietan, berriz, ez dago instalatuta batere potentzia fotovoltaikorik (Ingurumenaren egoera, 17. taula).

5.3. Beste ingurumen-adierazle batzuk

Busturialdea-Urdaibain, biztanle eta eguneko ur-kontsumoaren guztizkoa gutxitzen joan da 4.000 litrotik 2002an 3.3000 litrora biztanle eta eguneko 2019an. Kontsumo horretan sartzen dira etxeen eskaera, dendena, industriena, udalarena, ureztapen pribatuarena eta abeltzaintzarena. Errigoiti eta Ereño dira ur litro gehien erabiltzen dituzten udalerriak, eta Arratzu eta Ajangiz gutxien erabiltzen dituztenak (Ingurumenaren egoera, 18. taula).

2003tik kontsumitzen den uraren osasun-kalitatea ona da, ia beti «3 edo egokia» balorazioa lortu baitu; hau da, edateko modukoa izan da, analisien % 95ean gutxienez. Udalerri batzuetan balorazioa «2 edo onargarria» izan da; hots, ez da izan edateko modukoa analisien % 5etik %10era; balorazio hori Mendatan eta Muruetan eman zitzaion 2019an (Ingurumenaren egoera, 19. taula).

Busturialdea osatzen duten hogei udalerrietatik, hamahiru Udalsarean edo Udalerri Jasangarrien Euskal Sarean daude; hau da, tokiko agenda 21ak dinamizatzen dituen foroan. Hauek dira sare horretan sartu gabe dauden udalerriak: Ea, Ereño, Forua, Gautegiz Arteaga, Morga, Mundaka eta Sukarrieta (Ingurumenaren egoera, 20. taula).

Babes berezikotzat (dauzkaten ezaugarriengatik babes-maila handiena duten eremuak dira) hartzen diren lur-azaleren ehuneko handienak Gautegiz Arteagak eta Elantxobek dituzte, udalerri horien azaleraren ia % 70 baita babes berezikoa. Ibarrangeluko edo Muruetako lurraldearen erdiak baino gehiagok kategoria hori du ere. 2006tik, udalerri batzuk kalifikazio hori duten lurraldeak irabazten joan dira, eta beste batzuk, berriz, galtzen; azken horien artean dago Mundaka, 2018. urtean eta hurrengoetan udal-lurren azaleraren guztizkoaren % 1ek ere ez baitu izan kalifikazio hori (Ingurumenaren egoera, 21. taula).

Beste ingurumen-adierazle bat baso-azalera da, bi modutan zenbatutakoa: batetik, udalerri bakoitzak guztizko azalerarekiko duena, eta, bestetik, azalera horretatik jabetza publikokoa dena.

2020an, Busturialde-Urdaibaiko udalerri guztiek dute ia beren lurraldearen erdia basogintzara bideratuta; zenbait udalerritan (hala nola Mendata eta Ereño), % 80ra ere iristen da.

Jabetza publikokoa da Gautegiz-Arteagako baso-azaleraren % 57, Bermeokoaren % 40, eta Ereñokoaren, Mundakakoaren eta Nabarnizkoaren % 20; beste zazpi udalerritan, berriz, ehuneko txikia dute. Eskualdeko hogei udalerrietatik zortzian, baso-azalera guztia esku pribatuetan dago (Ingurumenaren egoera, 22. taula).

Biztanleko auto kopuruari dagokionez, Morgak eta Ereñok zituzten 2019an automobil gehien biztanleko (0,71); Bermeo, Mundaka eta Gernika-Lumo, berriz, ez ziren 0,50era iristen. Adierazle horrek garraio publikoaren eskuragarritasunaren edo eskuragarritasun-ezaren berri ematen du. Hirietako datuekin alderatuz gero, Getxon, adibidez, balio hori 0,48 da; Barakaldon, 0,41 da, eta Bilbon, 0,40. Hortik ondoriozta daiteke automobila edukitzea edo ez edukitzea baldintzatzen duen elementu nagusia ez dela errenta-maila, baizik eta garraio publikoa erabiltzeko aukera izatea edo ez izatea; izan ere, autoa biztanleriaren artean oso hedatuta dagoen kontsumo-ondasuna da.

Automobilak edukitzearekin lotutako 2003 eta 2019 urteen artean bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da automobil-parkea ugaritzen joan dela poliki-poliki, udalerri batzuetan beste batzuetan baino gehiago; Ajangizen eta Arratzun asko hazi da auto kopurua, hamabost urte hauetan ia bikoiztu egin baita biztanleko automobil proportzioa (Ingurumenaren egoera, 23. taula).

Lanpostura iristeko joan-etorriei begiratzen badiegu, 2016an Busturialdea-Urdaibaiko udalerrietan bizi ziren hamar pertsona landunetik sei Bizkaiko beste udalerri batera joaten ziren. Ehuneko hori berdina zen lurralde historikoan. Eskualdean, enplegua zeukaten pertsonen herenak bizi zen herrian zuen lanpostua. Bermeon, ia erdia udalerrian bertan geratzen zen, eta Gernika-Lumon, herena. Lanpostuetara joateko, biztanleria landuna udalerri txikietan mugitzen zen gehien Bizkaiko beste udalerri batzuetara (Ingurumenaren egoera, 24. taula).

C

SOZIOINGURUMEN BEGIRADA

EMAITZEN AURKEZPENA FORMATU ERRAZEAN

Xabier Arana Eiguren,
Rosa de la Asunción Sanzekin eta
Urdaibai Taldearekin lankidetzan

Xabier Arana Eiguren Biologia Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). UPV/EHUko Ingurumena Ebaluatu eta Berreskuratzeko Unibertsitate Masterra. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari (1996-2007) eta Euskadiko Biologoen Elkargo Ofizialeko ingurumen-batzordeko kide izan zen. Gaur egun, 2012tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurumen Hezkuntzako Ataleko burua da. Ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotuta, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea da, baita Busturialdea-Urdaibai eskualdean euren jarduera egiten duten beste erakunde batzuetakoa ere. Halaber, UPV/EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrako batzorde zientifikoko kidea da. Natura-ondarearen kontserbazioari, lurralde-antolamenduari, ingurumen-hezkuntzari eta, oro har, ingurumen-iraunkortasunari buruzko dibulgazio-artikuluen egilea. Ipuinak argitaratzen ditu bertako biztanleen kontzientzia eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzeko.

Modu errazean (hizkuntza argia) idatzitako hurrengo orrialdeetan, Busturialdea-Urdaibai (Bizkaia, Euskadi) eskualdearen *ingurumen-deskribapena* ezagutu ahalko duzu. «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» ikerketa aplikatuaren barruan sartzen da. Ikerketa horrek Kolonbia, Mozambike eta Euskadiko lurralde gizatiartuen esperientziak biltzen ditu, eta Busturialdea-Urdaibai eskualdea da horren ordezkari.

1. LURRALDEA, POPULAZIOA ETA NATURA- ETA KULTURA-ONDAREA

1.1. Geografia eta populazioa

Busturialdea eskualdea *Bizkaiko* (Euskal Herria) kostaldearen erdigunean dago, *iberiar penintsularen* (Europa) iparraldean.

28.200 hektarea hartzen ditu, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren % 10.

Iturria: **Elaborazio propioa.**

20 udalerri daude, eta bertan *46.000 biztanle* bizi dira (2021). Udalerriak hauek dira: *Ajangiz, Arratzua, Ea, Gautegiz Arteaga, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Errigoiti, Ereño, Forua, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz* eta *Sukarrieta.*

Busturialdea-Urdaibaiko *populazioaren dentsitatea* —kilometro karratuko edo 10.000 hektareako biztanleak— 163 biztanlekoa da, hau da, Euskal Herrikoa (153) baino handiagoa, baina Bizkaikoa (516) baino txikiagoa, baita Bilbao Metropolitarrekoa (2.344) baino askoz txikiagoa ere.

	Biztanleak	Dentsitatea (bizt./km^2)
Euskal Herria	3.193.513	153
Bizkaia	1.144.123	516
Busturialdea-Urdaibai	46.172	163

Iturria: Elaborazio propioa.

Oka ibaiaren arroak lurraldearen zatirik handiena hartzen du, urak *Kantauri itsasoko* estuariora edo kostaldera isurtzen dituzten *Ea, Laga, Golako, Oka, Mape* eta *Artike* ibaiak daude beretan.

Uharterik ezagunena *Izaro* da, baina *Akatxe* da oso erakargarria, *Gaztelugatxe* lurrari lotuta dagoen isla den bitartean. Hiru horiek *Matxitxakoko lurmuturretik* ikus daitezke.

Izaro uhartea, Bermeon. XABIER ARANA

Mendirik garaienak *Oiz* menditik hurbil dagoen *Astoagana* (801 metro) eta, bestalde, *Sollube* (686 metro) dira. Ezagunak dira, halaber, honako gailur hauek: *Ogoño, Atxarreko San Pedro, Ereñozarreko San Migel, Illuntzar, Bizkaigane* eta *Bizkargi*.

Oso paisaia anitza da: *itsasertza, landazabalak, basoak* eta *hiriak* ditu.

1.2. Geodibertsitatea eta biodibertsitatea

Geodibertsitateari erreparatzen badiogu, askotarikoa da eskualdean, eta *interes geologikoko 52 leku* (IGL) identifikatu dira, 4 geozonatan banatuta:

- Oka edo Urdaibaiko estuarioa.
- Ereñozarreko sistema karstikoa.
- Laga-Ogoño multzoa.
- Matxitxako-Mundaka lurmuturreko multzoa.

Aberastasun natural hori aztertu ondoren, guztira *16 IGL* bildu dira Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Geodibertsitatearen Estrategia prestatzeko oinarria.

Lagako hondartza eta ofita harkaitzaren azaleratzea.

Geodibertsitatearekin gertatzen den bezala, Busturialdea-Urdaibai eskualdeak, *Natura 2000 Sareko* bere lekuekin zein *Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin*, biodibertsitate itzela du bere *itsas-*, *itsasertz-* eta *landa-paisaietan.* Bereziki garrantzitsuak dira kostaldea, itsasadarra eta padurak, ibaiak eta artadi kantauriarreko basoak. Azken horiek, kokaleku dituzten kareharrizko haitzetan hedatzen dira, eta bizitzaz beteriko zoko eta barrunbeak gordetzen dituzte.

Atlantikoko basoa, herrialdeko haritzak biltzen dituena, oso urrituta dago, eta *Arratzuko hariztia* jatorrizko ekosistema horren ordezkari duina da. Gaur egun, ordea, pinu eta eukaliptoen zuhaitz-landaketek erabat baztertzen dute. Bestalde, mehatxupean dauden *Airo* eta *Mugirako* (Nabarniz) pagadiak eskualdeko bakarrak dira.

Airo pagadia, Nabarnizen. XABIER ARANA

Ingurune edo ekosistema askotarikoak daudenez, flora- eta fauna-espezie ugari aurki daitezke, baita itsasoko ugaztunak eta hegazti migratzaileak ere, besteak beste, enarak eta mokozabalak (esagunenak izendatzeko).

Hala, 86 habitatek osatzen dute eskualdeko biodibertsitatea, eta horiek *821 flora-espezie* eta *729 basafauna-espezie* hartzen dituzte, baita landazabaleko eta baserriko paisaiaren nekazaritza-biodibertsitatea ere.

Nahiz eta pozgarria eta gozagarria den eskualdeak biodibertsitate handia iza-

tea (besteak beste, hegaztiak), gaur egun oso *bisoi europar* gutxi daude; izan ere, bisoi amerikarrak larrua ekoizteko baserrietatik (Mutrikukoa kasu) zabaldu eta haren lekua hartu du.

1.3. Naturagune babestuak

Eskualdeak *Natura 2000ri* (naturagune babestuen Europako sarea) dagozkion lekuak ditu. Naturagune babestu horiek *6.070 hektarea* hartzen dituzte, eta hauek dira:

NATURA 2000

- *Urdaibaiko itsasadarra* (hegaztientzako babes berezia).
- *Urdaibaiko itsasertzeko eremuak eta padurak.*
- *Urdaibaiko ibai-sarea.*
- *Urdaibaiko artadi kantauriarrak.*
- *Gaztelugatxeko Doniene.*

Zehazki, Bermeoko lurralde horretan dago *Gaztelugatxeko Biotopo Babestua*, aparteko edertasuna duen itsasertzeko paisaia.

Itsasoa hedatu egiten da, eta *Cap Bretongo* itsas hobiaren parean baleak, izurdeak eta beste itsas ugaztun batzuk ikus daitezke.



Gaztelugatxeko ilustrazioa. JAVIER MARTÍNEZ DE AGUIRRE

UNESCOk *Urdaibai Biosfera Erreserbatzat* hartzen du ia eskualde osoa, Ea udalerria eta Bermeo udalerriaren zati bat izan ezik.

UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea da. UNESCO Etxea da bere «enbaxada» Euskal Herrian.

Era berean, Oka ibaiaren estuarioa eta padurak *Ramsar* zerrendan daude, hau da, nazioarteko garrantziko hezeguneen zerrendan; eta hegaztientzako mundu mailako balioa duten eremutzat *(IBA)* hartzen dira. Hegaztientzako balio hori handitu egin zen *Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren* (HBBG) titulua eman zitzaionean estuarioaren eremuari eta eskualde horretako itsasertzeko eta itsasoko eremu osoari.



Azpiegitura berde-urdina eskualdean.
EUSKO JAURLARITZA/GOBIERNO VASCO. GEOEUSKADI

Gaur egun, eskualdearen eta Busturialdea-Urdaibaiko udalerri guztien *azpiegitura berde-urdina* deritzona (ingurumen-balioa duen lurralde-egitura) zehaztea da erronka. Egitura *berde-urdina* horrek:

- *konexio ekologikoa* ahalbidetuko du,
- *natura*- eta paisaia-*ondare* osoari balioa emango dio,
- hustubide edo *karbonoa xurgatzeko* leku gisa funtzionatuko du
- eta, era berean, degradatutako lurraldeen *ingurumena leheneratzea* sustatuko du.

Honako hauek dira *azpiegitura berde-urdinaren* osagaiak:

- *Naturagune babestuak* (Natura 2000 Sarea, Biosfera Erreserba).
- *Eremu hezeak* (ibaiak, hezeguneak).
- *Igarobide ekologikoak.*
- *Interes naturaleko beste eremu batzuk.*
- *Leheneratu beharreko lurraldeko lekuak,* azpiegitura berde-urdinarekin osotasun bat osatzeko.

1.4. Ingurumen- eta kultura-ondarea

Aztarnategi *arkeologiko, paleontologiko* eta *multzo historiko, arkitektoniko eta artistikoetan* elkartzen dira gure arbasoekin eta gure historiarekin lotutako ingurumen- eta kultura-intereseko espazio eta elementuak.

Honako hauek dira ondare-balioaren eta ingurumen-, kultura- eta paisaia-multzoaren adibideetako batzuk:

- *Santimamiñeko haitzuloa* eta haren labar-margoak,
- *Katilotxuko trikuharriak,*
- *Foruko erromatar herrixka,*
- *Donejakue Bidea,*
- *Bermeoko Erdi Aroko hirigunea*
- eta *Omako basoa.*

Santimamiñeko labar-margoak. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

2. NATURAREN ABERASTASUNA ETA INGURUMENAREN FUNTSEZKO BALIABIDEAK

2.1. Airea

Zorionez, eskualdean *airea garbia* da, oro har. Horrexegatik etortzen da jendea eskualdera, paisaia erakargarria eta osasungarria baitu.

Garai batean, hainbat osasun-zentro ezarri ziren, hala nola *Sukarrietako zentroa, Kortezubiko bainuetxea* edo *Mundakako bainuetxea* (eguzki-bainuak eta itsasoko bainuak), *Bilboko* eta *Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren* eremuko ingurune kutsatuekin kontrastatzen zutenak.

Sukarrietako Eskola udalekuak, 1927. BBK URDAIBAI ZENTROA

Eskualdeko airearen kalitate txarrak *ozono* kopuru handiarekin, ibilgailuen trafikoarekin lotutako *partikulen kutsadurarekin* eta arrain-kontserben eta -irinen sektoreko enpresa batzuen *usain txarrarekin* du zerikusia.

Ingurumena aldarrikatzeko pankarta. EGUZKI TALDE EKOLOGISTA

2.2. Ura

Ura, hasiera batean, baliabide ugaria da eskualdean *euri* asko egiten duelako.

Horren erakusgarri da ibaiek, errekek eta jariatzeek duten urkopuru handia. *Oka, Ea, Laga, Golako, Oka, Mape, Amunategi* eta *Artike* ibaiak, eta horiek isurialdeetako urez hornitzen dituzten ibaiadarrak. Bestalde, kontuan hartu behar dira akuiferoak edo lurpeko ur-masak, garapen handia baitute Atxarre, Ereñozar edo Iluntzarreko eremu karstikoetan, edo akuiferoekin, besteak beste, Ajangiz-Gernikakoarekin. *Olalde* ibaiaren iturburua eskualdea hornitzeko balio handiko ondasuna da.

Hala ere, mendien degradazioagatik, Ajangiz-Gernikako akuiferoaren eta ibaien *kutsaduragatik* eta *gehiegizko aprobetxamenduagatik*, besteak beste, uraren *erregulazio naturala desegokia* denez, defizit edo gabezia arazo larriak sortzen dira euri gutxiko eta lehorteetako aldietan.

Hornikuntza-urari *itsasoko ura* gehitzen zaio, oso ondasun preziatua baita *aisialdiko* eta jolaserako jardueretarako, Bermeoko *flota profesionalak*, eta bertako eta Eako, Elantxobeko eta Mundakako *aisiako ontziek* egiten duten aprobetxamenduaz haratago.



Aisialdiko jarduerak Laidako hondartzan. XABIER ARANA

Bestalde, giza kontsumorako eta bestelako jardueretarako erabili ezin diren *ur kutsatuak* daude. *Ajangiz-Gernikako akuiferoa* da bere ordezkaririk tristeena. Ibai batzuetako eta oraindik araztu gabeko estuarioaren goiko aldeko urak, bestalde, laster arazteko zain dauden ur-masak dira.

Oka ibaiaren arroaren azalera	208.82 km^2 edo 20.882 ha
Urteko batez besteko tenperatura	13,6 °C
Urte osoko batez besteko prezipitazioa	1.397 mm edo litro/m^2
Landarediaren ebapotranspirazioa	667 mm edo litro/m^2
Urteko ekarpen hidrikoa	730 mm edo 156 hm^3 edo 875.000.000.000 litro

Iturria: Elaborazio propioa.

Kopuru handi horiek gorabehera, ikusten da *emari ekologikorik eza* dagoela (agorraldian baliabide gutxi dagoelako), ez dagoela *bermatuta* hornidurarako *hornikuntza* eta *sistema oso kaltebera* dela ibaien, erreken eta akuiferoen kutsadura arazoak direla eta. Mendietako lurzoruen *degradazioak* urak arre jaistea eragiten du, eta hori da uren kalitate ekologiko eta sanitarioa galtzeko beste modu bat.

Ibaiak lehortu arte (Golako eta Mape, besteak beste) eskaintzaren kudeaketa mugagabea gauzatu beharrean, *eskariaren kudeaketaren* kontzeptua erabiliko balitz, arroaren eta baso-eremuen plangintza ekologiko eta hidrologikoa *(ur berdea)* egin eta ur-baliabideak zentzuz erabili ahalko lirateke.

2.3. Lurzoru naturala

Lurzoru naturala lehen mailako ondasuna da, aire eta ur garbiarekin batera. Horiek guztiak natura-ondareak eta baliabideak dira, kopuru nahikoan eta egoera ekologiko onean badaude.

Eskualdeak *landa-lurzoruen* eta itsasertzak mugatzen duen *paisaia erdi-naturaleko* lurzoruen erabilera orokorra du. Lurzoru gehiena hiri-kokaguneek eta azpiegiturek artifizializatu gabe dago, guztira 27.878 hektareako *650 hektarea* hartzen baitituzte. Hortaz, asfaltoak eta zementuak hartzen duten lurzoru naturala % 2,4 da.

Basoak, zuhaitz-landaketak eta naturguneak	20.877 ha
Ibaiak eta hezeguneak	558 ha
Nekazaritzarako lurzorua	5.773 ha
Lurzoru urbanizatua edo artifizializatua	650 ha
Guztira	**27.878 ha**

Iturria: Elaborazio propioa.

Errigoitiko Bizkaigane mendiaren gailurra. XABIER ARANA

2.4. Baso-paisaia

Lurraldeak hainbat landaredi kontserbatu edo hartu ditu, lurraren ezaugarrien edo ezarri diren baso-aprobetxamenduen arabera.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, *pinu*-sailek azalera handiagoa hartu zuten, landa-eremu menditsuenetako paisaietan nagusi izan arte. Artadi kantauriarren basoa kareharrizko mendien gainean geratu zen, eta landazabaleko ekosistema, berriz, haranetan eta baserrien inguruetan.

80ko hamarkadatik aurrera, *eukaliptoa* landatzen hasi ziren, eta lehen bultzada 1989ko suteen ondoren izan zuen (paradoxikoki; izan ere, espezie horrek sua erabiltzen du hedatu ahal izateko); aurrerago, bigarren hedapen bat izan zuen *Eucaliptus nitens* espeziea erabiltzen hasi zirenean (izozteei ondo eusten dien espeziea da); azkenik, XX. mendearen hasieran *Fusarium circinatum* onddoaren gaixotasunak eta 2018an

zerrenda marroiaren gaixotasunaren hedapen handiak intsinis pinuaren ordez eukaliptoa landatzea eragin zuten Busturialdea-Urdaibain. Baso autoktonoaren azalera osoak ere *360 hektarea* gehiago hartu ditu 2010-2020 hamarkadan.

	Baso-landarediaren azala (hektarea = 10.000 m²)			
	2010. urtea	2019. urtea	2021. urtea	Hazkundea (2010-2021)
Baso autoktonoa	3.888	4.231	4.251	+363
Konifero-sailak (pinua...)	12.117	10.655	9.652	–2.465
Eukalipto-sailak	2.814	3.882	4.762	+1.948
Sailak guztira (pinuak, eukaliptoak eta bestelako exotikoak)	15.300	15.072	15.152	–148

Iturria: Eskualdeko basoen informazioa. Zain Dezagun Urdaibai Elkartea.

Baso autoktonoa / BatzArt Urdaibaiko sorkuntzen erakusketa.
XABIER ARANA

3. INGURUMENAREN EGOERA

3.1. Airearen kalitatea

Mundakako estazioa.
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Mundakako estazioak adierazten du *airearen kalitatea ona* dela, ozono gasaren mailak alde batera utzita, naturguneetan erregistro altuak izaten baitituzte.

Estazio honek ez ditu neurtzen airearen kalitate txarraren arazoak, hain zuzen ere, autoek eta kamioiek isurtzen dituzten partikulak direla-eta herritarrek pairatzen dituztenak.

Bestalde, Mundakako arrain-irinen fabrikaren *usain txarra* dago. Gernikan ez dago airearen kalitatea neurtzeko estaziorik, eta arazo hori «ur-araztegiak» eragiten zuen, ez baitzuen erabat ondo funtzionatzen; hortaz, dagoeneko zerbitzurik kanpo egonda, hondakin-urak hodi batetik Lamiaran eskualdeko araztegira eramaten baitira.

Soinuaren kalitatea aintzat hartu behar da airetik igortzen diren zaratarekin eta bibrazioekin zerikusia duten alderdiak lantzeko orduan. Soinu-giroaren kalitateak garrantzi berezia du, *komunitate oso sentiberak* baitaude (eskolak, adinekoen egoitzak, ospitaleak); baina, zaratarik gabeko ingurunea izatea eskualdeko biztanle guztien *ingurumen-eskubidea* da. Bide- eta trenbide-zirkulazioaren zaratarekin batera, eguneko eta gaueko aisialdia da alderdi arazotsuenetako bat, terraza gehiago jartzearekin batera areagotu egin baita.

3.2. Uren kalitatea

Foruko erreka. XABIER ARANA

Ur gezako, gazikarako eta itsasoko ur-masen egoera asko hobetu da azken hamarkadan, Urdaibaiko saneamendu-planaren barruan egindako obrei esker.

Hala ere, proiektu orokorraren zati batzuk gauzatzeke daude, eta horren ondorioz, *Oka estuarioko eta ibaiko* eta *Artikerrekako/Artigasko* (Bermeo) uren kalitate ekologikoa oso kaskarra da oraindik.

Arestian adierazi den bezala, araztu gabeko hiri-saneamenduko uren eta industria-uren isurketek eragindako uren *kutsadura kimiko eta biologikoari* pinu eta eukaliptoen baso-sailetan gertatzen den lur-arrastea gehitu behar zaio; izan ere, erreken eta ibaien *egoera ekologikoa eskasa* izatea eragiten dute, eta, logikoa denez, baita estuarioko edo itsasadarreko eta itsas inguruneko urena ere.

Artike (Bermeo) eta *Oka* ibaien urak (*Berrekondo* ibaiarekin elkartzen diren lekutik behera) egoera ekologiko moderatua dute. *Oka, Golako, Ea* eta *Mape* ibaien goiko zatiak, bestalde, egoera ona du (ikus 1. mapa).

1. MAPA. **EGOERA EKOLOGIKOA OKA UNITATE HIDROLOGIKOAN, 2020**



Iturria: Elaborazio propioa, URAn, Uraren Euskal Agentzia, oinarria.

Eskualdeko kostaldeko urak (*Matxitxako* eremua) oso egoera ekologiko ona dutela diagnostikatu da (2019ko datua).

Oka itsasadarraren kanpoko zatia edo Urdaibaiko estuarioa ere egoera onean dago.

Egoera ekologiko txarrean diagnostikatzen den ur-masa *Okaren barneko estuarioaren* eremu osoa da (Ajangiz, Arratzu, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Murueta) (ikus 2. mapa).

Beraz, oraindik ere asko dago egiteko *Urdaibaiko Saneamendu-plana* amaitzen den bitartean.

2. MAPA. **EGOERA EKOLOGIKOA MATXITXAKO KOSTALDEKO ETA OKAREN ESTUARIOAREN EREMUETAN, 2019**



Iturria: Elaborazio propioa, URAn, Uraren Euskal Agentzia, oinarria.

3.3. Lurzoruen kalitatea

Lurzoruen kalitatea galdu egiten da jasaten duten *higaduragatik*, makina astunak igarotzeak eragindako *trinkotzeagatik*, substantzia kimikoek eragindako *kutsaduragatik*, eta muturreko *narriaduragatik*, ezabatzen edo artifizializatzen direnean, urbanizazioek, industrialdeek edo errepideek lurzoru horiek hartzen dituztenean.

Mazela aldapatsuetan *lantzen* diren lurzoruak dituzten mendietan *makina astunak* erabiltzeak, eta pistak edo *baso-bideak* eraikitzeak, bizitzaren estratu eta substratu horren narriadura bizkortzen du. Makina astunak erabiltzen direnean, *70 tona hektareako eta urteko* galtzen dira, eta Bizkaian, berriz, *2.511.250 tona urteko* (2018ko datua).

2010. eta 2021. urteen artean soilik, *2.000 hektarea berri* landatu dira eukaliptoarekin, makina astunak erabilita. Hori dela eta, uste da eskualdean *140.000 tona* lur galdu direla.

Lurzoru higatuak Oka ibaiaren estuariora irten dira. XABIER ARANA

Kutsatuta egon daitezkeen lursoruak, batez ere, kokatzen dira *industria-eremuetan* (fabrikak, ontzigintza, tailerrak) eta *erregaien eraldaketa-* (gas-instalazioa, zerrategiak) *edo banaketa-jarduera ekonomikoak* (gasolindegiak) gauzatzen diren lekuetan. Eskualdean, kutsatuta egon daitezkeen azalerak *Bermeon* eta *Gernika-Lumon* daude, eta gune garrantzitsuak *Muxikan*.

Lurzoru «garatuak» edo urbanizatuak *bizitegi*-erabilerakoak (etxebizitzak eta ekipamenduak), *industrialdeak* eta *errepideak* edo bestelako *azpiegiturak* dira. Eskualde osoaren % 5 hartzen dute.

214 jarduera ekonomiko daude eskualdean, eta hiri-lurzoruen *120 hektarea* inguru hartzen dituzte. Gainera, Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren arabera (2016), aurreikusten da datozen 10 urteetan beste *200 hektarea* hartuko dituztela.

3.4. Landa-, itsasertz- eta hiri-inguruneko paisaia

Paisaia inguratzen gaituen *ingurunearen zentzumen anitzeko pertzepzioa* da. Lasaitasuna eta ongizatea eman diezaguke, ala estresa eta ondoeza. Paisaia habitat edo bizi-espazio gisa hartzen gaituen *ingurunearen ingurumen-kalitatearen* adierazle osoa da; ingurune hori —erabat subjektiboa edo pertsonala dena— ingurumenak eta ingurune sozialak, ekonomikoak, eta abarrek osatzen dute.

Astoak Gametxon (Ibarrangelu) / Bermeoko alde zaharra. XABIER ARANA

Udalerri guztiek (20 herri) hirigune nagusiak dituzte, eta beren auzo eta landa- edo kosta-auzuneetan bigarren mailakoak. *Bermeo* eta *Gernika-Lumo* dira garrantzitsuenak, eta horien atzetik datoz *Mundaka, Busturia, Elantxobe, Ea* eta eskualdeko gainerako udalerriak. Deigarria da *Muxika* udalerria, *Ajuriak, Gorozikak, Ibarrurik, Maumek, Ugartek* herri-multzo bat osatzen baitute, *Busturiari* gertatzen zaion bezala (bost uri edo bost herri).

Bermeoko Erdi Aroko hirigunea nabarmentzen da bere edertasunagatik. Monumentu-multzo deklaratu zuten.

Bermeoko portua eta, atzealdean, alde zaharra. XABIER ARANA

Landa-auzoak eta kostaldeko herriak xarma handikoak dira eta ezagutzeko mila leku ezkutatzen dituzte, baserri, kalezulo eta kai artean.

3.5. Uraren, lurzoruaren eta energiaren kontsumoa eta hondakinen sorrera

Ura eta lurzorua

Eskualde atlantikoan kokatuta dagoen eta ingurune oso euritsu eta hezearekin lotzen dugun lurralde hau, ostera, ez da dirudiena. Goi-arrotik jaisten diren uren erregulazio eskasak *(baso- eta hidrologia-deserregulazioa),* neurriz kanpoko kontsumoak eta ibaien eta akuiferoen kutsadurak ur-baliabiderik eza oso larria eragin dute. Horiek horrela, ibaiek ez dute ingurune urtarrik bizitza naturalari eusteko adinako emari ekologikoa eskaintzeko, eta lehorraldietan ez dago baliabide nahikorik gizakien, industriaren eta turismoaren kontsumo-beharrei erantzuteko.

Ur-eskaria eskualdean
2001. urtea: **4.080 litro/bizt./egun**
2018. urtea: **3.473 litro/bizt./egun**
2019. urtea: **3.343 litro/bizt./egun**

Guztizko ur-eskaria (litroak biztanleko eta eguneko) murriztu egin da, baina gaur egun ez dago baliabiderik urtean zeharreko hornidura bermatzeko.

Horregatik onetsi da *Urdaibai Bioesfera Erreserbako Horniduraren Lurralde-ekintzako Plana (LEP)* (2020).

Lehorraldietan ibaiak *emari ekologikorik* gabe geratzen dira, hau da, arrainen eta beste izaki bizidun batzuen bizitzari eusteko behar den gutxieneko urik gabe.

Busturiako Mape errekaren ibilgua, ia lehor. MAIKA SALGUERO



Busturialdeak segundoko ia 100 litroko *ur-defizita* du, hau da, 8.380.800 litro egunean, beraz, 2,5 igerileku olipiko egunean.

Lehorraldietan, egoera oso larria da, ezin baitira erabili kutsatutako akuiferoak, Gernikako ibarrekoa, esaterako.

Hondakinak

Eskualdeak *hondakin-kopuru handia* sortzen du, bertako biztanleek eta kostaldeko herrietan hain garrantzitsua den ostalaritza- eta turismo-jarduerak sortutakoekin batera.

2000. eta 2020. urteetako datuak eskaintzen dira, eta azken hori COVID-19ak eragindako pandemia zela-eta ez ohikoa izan zenez, 2019. urteko datuak ere ematen dira. Ikus daitekeenez, 2020an beherakada nabarmena izan da, beharbada *turismo-jardueraren* apaltzearen ondorioz.

Eskualdean sortzen diren etxeko hondakinak
2000. urtea: **17.316 tona**
2019. urtea: **17.900 tona**
2020. urtea: **17.198 tona**

Oso garrantzitsua izan da *hondakinen gaikako bilketan* aurrera egitea, gero berrerabili edo birziklatu ahal izateko. Jarraian dagoen taulan *paper-kartoiaren, beiraren, ontzi arinen* eta *materia organikoaren* gaikako bilketa batu da, eta eskualdean izan duen bilakaera ikusten da.

Hondakinen gaikako bilketa eskualdean
2000. urtea: **2.112 tona**
2019. urtea: **3.897 tona**
2020. urtea: **3.819 tona**

Energia

Energia kontsumitzeari dagokionez, hasieran, azpimarratzekoa da eskualdeak kanpoko baliabideekiko duen mendekotasun handia. Beraz, puntu honetan, elikagaiei eta urari dagokienean bezala, *ez gara lurralde eta gizarte sostengarriak*, eta kanpoko ekarpen garrantzitsuak behar ditugu. Horrexegatik da oso altua *aztarna ekologikoa*.

Hurrengo datuetan 2010. urtea sartu da, *kontsumo-gailur handia* izan zuelako. 2020. urtean, ordea, COVID-19aren konfinamendu-neurriak izan zirela eta, industria- eta ostalaritza-ekoizpenaren «etenaldia» ageri da.



Elektrizitatearen kontsumoak eskualdean
2002. urtea: **62.097 kWh/bizt.**
2010. urtea: **152.241 kWh/bizt.**
2019. urtea: **135.818 kWh/bizt.**
2020. urtea: **125.803 kWh/bizt.**

Tokiko zura eta biomasa kenduta (ez dira datuak ezagutzen), *energia berriztagarrien* bitartez tokiko energia sortzeko gaitasunari erreparatzen badiogu, hurrengo datu adierazgarri hauek ditugu:

15 urtetan 7 aldiz biderkatu da *eguzki-plaka fotovoltaikoen* sistemen bidez eskuratutako energia.

Eguzki-instalazio termikoa. XABIER ARANA

Tokiko energia fotovoltaikoen sistemen bidez eskuratutako energia
2005. urtea: **687 kW/10.000 bizt.**
2010. urtea: **1.860 kW/10.000 bizt.**
2019. urtea: **3.237 kW/10.000 bizt.**
2020. urtea: **4.444 kW/10.000 bizt.**

Dena den, energia berriztagarriaren modurik garrantzitsuena *tokiko industriak erabiltzen duen biomasa* da.

3.6. Ingurumen-arriskuak

Busturialdea-Urdaibain natura hondamendiak edo arriskuak sor ditzaketen fenomenoak bi jatorri izan ditzakete: naturala edo gizakiak eragindakoak, edo bien arteko konbinazioa.

Errigoitin haizeak zatitu edo eraitsitako pinuak. XABIER ARANA

Naturalak	Gizakiarenak edo teknologikoak
• Haizeteak eta tornadoak. • Tximistak. • Euriteak. • Uholdeak, ibaietan eta kostaldean. • Bero-boladak.	• Industria-istripuak. • Isuri kutsatzaileak ibaietara eta itsasora. • Zabortegien eta barrubeteen luiziak.

Naturak eta gizakiak sortutako arriskuen konbinazioan honako hauek sartuko lirateke: klimaren aldaketaren, lurraldea oker okupatzearen eta basogintzaren ondoriozko *bero-islak*, *uholdeak* (ibaiak eta kostaldeak), *mendi-mazelen luiziak* edo *suteak*.

4. SOZIOEKOSISTEMEN IKUSPEGIA

Natura eta pertsonak erlazionatuta daude, eta *sistema batu nahiz konplexuetan* elkarrekintzan dihardute. Sistema horiei *sistema sozioekologikoak* (SSE) edo *sozioekosistemak* deritze.

Eskualdean bizitza garatzen dugun paisaian, izaki hominidoen eta ingurunearen arteko elkarrekintza duela 125.000 urte hasi zen, *Atxagakoa haitzuloan* (Forua) su bat aurkitu baitzen. Bestalde, *Santimamiñeko haitzuloan* (Kortezubi) gizakiak hartu zituen orain dela 14.500 urte inguru. Beraz, nahiz eta hasieran natura-ingurunean eragina hautemanezina izan, *abeltzaintza* eta *nekazaritza* iritsi zirenean, eta sua erabiltzen hasi zirenean, paisaia eraldatzen hasi zen. Modu horretan, baliabideen aprobetxamendua eta basoen murrizketa zabaltzen joan ziren. Azkenik, agertoki honetan gizakiaren aztarna edo seinalea toki guztietan ageri da. Erabat gizatiartutako irudi honi *«kultura- paisaia»* esaten zaio.

Sistema sozioekologikoak

Ikuspegi sozioekologiko honek ulertu nahi du gure kasua ez izan arren , nola lortu duten gizarte batzuek *kaltetu gabe ekosistemen baliabideak eta zerbitzuak aprobetxatzea*. Horretarako, aitortu dute uztartu eta integratu behar direla ezagutza tradizionala edo tokikoa, erakundeak eta teknologien erabilera egokia.

5. NATURAREN ZERBITZUAK ETA GIZA ONGIZATEA

Naturak berez du balioa. Busturialdea-Urdaibaik *substratu geologiko* eta *barietate biologiko asko* ditu, baita *paisaia eder anitz* ere, natura, itsasertza, landa eta hiria modu paregabean erakusten dutenak.

Natura, ongizatearen oinarria
Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuak

Bestalde, pertsonak, sortzen ditugun gizarteak eta gure herri nahiz hiriak baliabide naturalen eta naturako funtzio ekologikoen mende daude. Horiei *«ekosistemen zerbitzuak»* deritze.

Naturaren edo ekosistemen zerbitzuak		
Erregulazio-zerbitzuak	Hornidura-zerbitzuak	Kultur zerbitzuak
• erregulazio hidrologikoa • izurriteen kontrola • tokiko klima erosoa • …	• ura • elikagaiak • ehunak • …	• zientzia-ezagutza • arterako inspirazioa • espiritualtasuna…

6. KULTURA-PAISAIA

Lehen aipatutakoari jarraikiz, Busturialdea-Urdaibaiko eskuadean gizakiak *milurteko asko* daramatza ingurune naturalean kokatuta eta haren baliabideak erabiltzen. Batzuetan ingurumenaren jasangarritasuna muturreraino eraman da, hala nola XIX. mendean *basoak kendu* zirenean, XX. mendean *ingurunea kutsatu* zenean, XXI. mendearen hasieran paisaia *bizitegirako eraikinekin okupatu* zenean edo orain, dagoeneko *antropozenoaren* garaian, *klimaren aldaketak* sortu duen agertoki kritikoan gaudenean.

Antropozenoa

Lur planetaren eta haren biosferaren **gainean gizakiaren eragin globalak** garai geologiko berriaren hasiera markatu du, eta **Antropozenoa** deitzen zaio, XX. mendearen erdialdean hazi zena, zientzia geologikoaren arabera.

Hitz gutxitan, *gure planetak jadanik ez du lehen bezala funtzionatzen. Atmosfera, ozeanoak, klima, ekosistemak,* aurreko garai geologikoarekin (*Holozenoa*) alderatuta, guztiak arauz kanpo funtzionatzen ari dira. Horrek garai bateko muga gainditu dugula iradokitzen du: *lehergailu nuklearren hondakinak, naturan plastikoaren arrastoa* mundu osoan banatzea *(«basulareza» edo natur-zaborra)* eta *klimaren aldaketa* planetan giza eraginaren seinale argiak dira. *Jasangarritasunik ezan* murgilduta gaude, zenbait atalase kritiko gainditu baitira, hala nola *biodibertsitatea galera bizkortua.*

Animatzen al zara Urdaibain «natura-zaborrik» gabeko paisaiaren bat aipatzen?

7. KLIMA-ERRONKA

Ziurrenik ezagutuko duzu *igelaren alegia.* Klimaren aldaketa oso ondo ulertzen da ipuin hau ezagutuz gero: zer atsegina suertatzen den ura berotzen ari den bitartean, azken emaitzaz jakitun izan gabe.

Igel bat atsegin handiz igeriketan ari zen galdara batean, tenperaturak pixkana gora egiten zuen bitartean.

Anfibioa **tenperaturaren hazkuntza** horretara ohitu zen, epel sentitzen zuen, baina…

Ezaguna zaizu, ezta? Nortzuk dira igelak gaur egun?

■ Gogoratzen dituzu 1983an eskualdean izandako *uholdeak*?

Bermeoko kasinoa. UHOLDEAK.WORDPRESS.COM

Jo dezagun haietara. Galera materialez eta ingurune natura-la suntsitzeaz gain, *34 pertsona hil* ziren *(eta 5 desagertu)* Euskadin eta *3 hildako* Busturia eta Gernikan.

Uholdeak behin eta berriz bizi izan dira *Busturian, Bermeon, Gernika-Lumon, Kortezubin* eta *Muxikan.*

■ Gogoratzen dituzu *1989. urteko suteak?* Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldearen *herena suntsitu zuten,* eta Busturialdea-Urdaibai eskualdea erraustuta gelditu zen.

Gautegiz Arteaga, 1989. urtean. XABIER ARANA

Busturialdea-Urdaibain suak bere sugarrekin eskualdeko *baso-azaleraren % 25* erre zuen.

Zenbait egunetan, suak *artadi kantauriarreko* basoak irentsi zituen, baita *intsinis pinuaren* milaka hektarea eta ehunka *baserri* ere, *pertsona askoren itxaropenarekin* batera.

■ 2014ko neguko *itsas ekaitzak* hemen klima leuna delako erosotasun-ilusiotik esnatu gintuzten.

Bermeoko portuko olatu-horma. JON MAGUREGI ARENAZA

Bermeo, Ea, Elantxobe eta *Mundakako* portuek birgaitze- eta indartze-obra garrantzitsuak behar izan zituzten haien babes-kaietan.

■ Eta *hondartza lehorra* edo mareaz gaindikoa galtzeak ez du zalantzarik sortzen.

Laidako hondartza oso-osorik urpean 2021eko udan. XABIER ARANA

■ Eta eskualdeko biztanleak *jakitun dira* klimaren aldaketaren ondorioez?

Ingurumen-ekintza aldarrikateza. BIZKAIA ESNATU

■ Azkenik, noiz sustatuko da irmoki *bizikleta* Busturialdea-Urdaibain eta haren udalerrietan klimaren aldaketari aurre egiteko eta ingurumen garbia eta osasuna bultzatzeko?!

Gasteizko ikastetxea. XABIER ARANA

8. INGURUMENAREN GOBERNANTZA

Atal honetan, oso modu eskematikoan, eskualdeko eragileak eta baliabide naturalak erabiltzen dituzten jarduera nagusiak aurkeztuko dira.

Tokiko eragileen aniztasuna eta ugaritasuna, eta lurraldea erabiltzeko hainbat modu kontuan hartuta, herritarrak eta tokiko eragileak nahasteko tresnak baliatuta, *partaidetza informatua* (gardentasuna) sustatu behar da. Hau da, behar-beharrezkoa da *partaidetza demokratikoaren* moduetara jotzea.

8.1. Erakunde publikoak eta partaidetza-organoak

Udalak	Tokiko gobernuek hainbat eskumen dituzte honako arlo hauetan: *ura, biodibertsitatea, airearen kalitatea, hondakinak, zarata…*, baita *garapen ekonomikoa* eta *kultur sustapena*, eta herritarren *ongizatea* ere.
Bizkaiko Foru Aldundia	*Naturagune babestuak, mendiak* eta *basoko aprobetxamenduak* administratzen ditu, eta bere ardura da udalei laguntzea *hondartzak* eta *aisiarako guneak* kudeatzen.
Eusko Jaurlaritza	Berak planifikatzen ditu *naturagune babestuak*, eta *arrantza eta itsas ingurunearen* arloan eskumenak ditu, baita *industria-hondakinen* esparruan ere. Administrazio honen ardura da *Urdaibaiko Biosfera Erreserba*.
Espainiako Gobernua	Europako zuzentarauetara edo arauetara egokitu behar den *legedia* egiten du. Kostaldeak eta *itsasertzaren babesa* bere eskumenekoak dira.
Bermeoko eta Mundakako arrantzaleen kofradiak	*Arrantzaren sektoreko* funtzionamenduari buruzko arauak betetzen laguntzen dute eta betetzen direla zaintzen dute.
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	Bizkaiko lurraldearen zati handi batean eta Busturialdeko zenbait udalerritan *urak* planifikatu eta kudeatzen ditu. 2022. urtetik, Busturialdeko urak ere kudeatuko ditu.
Busturialdeko Ur Partzuergoa	Bere ardura izan da *ura planifikatu eta kudeatzea*, orokorrean Busturialdea eskualdean hornitzeko, 2021. urte amaieran desagertu arte. 2022. urtetik, Busturialdeko Partzuergoa Bilbao Bizkaikoan *txertatzeko* da.

Busturialdeko Mankomunitatea	Busturialdeko zenbait udalerri elkartzen dituen erakunde honen zeregina da *hondakinen bilketan* jasotzen diren materialak garraiatzea eta *Gernika-Lumoko transferentzia-zentrora* eramatea.
Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua	*Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzuaren* eta *Zuzendari-kontserbatzailearen* bidez, *Zaingo-batzordeko* eta *Kooperazio Kontseiluko* organoak koordinatzen ditu. Era berean, *Urdaibaiko Legea* eskuartean duela, plangintza- eta kudeaketa-tresnak aplikatzen ditu, batetik, ondarearen kontserbazioa zaintzeko eta, bestetik, eskualdean proiektuak sustatzeko.
Urremendi Landa Garapen Elkartea	*Busturialdeko Landa Garapeneko Programa* gauzatzen du, lehen sektorearen laguntzaz. Halaber, populazio gutxiko landa-udalerrietan *gaztediaren, generoaren eta landa-turismoaren* arloko proiektuak bultzatzen ditu.

8.2. Gizarte zibileko sozioingurumen arloko erakundeak

Basokideak	Bedarona, Ea eta Natxituako herritarren elkartea, baso autoktonoa lehengora dadin sustatzen dutenak. Bere jarduna 2021ean hasi dute *Ullako* basoa berreskuratzeko proiektuarekin.
Eguzki	Euskal Herriko elkarte ekologistak Urdaibain lantalde aktibo bat du. *Ingurune naturalaren kalitate ekologikoaren kontrako* isuriak eta bestelako jarduketak salatzen ditu.

BASOS	Erakunde hau sortu berria da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban *baso-politika eta -kudeaketari* buruzko hausnarketan dihardu.
Bidegorridxe Gernika-Lumon Ekimena	Herritarren ekimena, Gernika-Lumon *zentzuzko mugikortasun osasungarriaren* alde bizikletetarako tokia eta bidegorriak aldarrikatzen dituena.
Bizisare	Busturialdean garapen-prozesuak sustatu eta bultzatzen ditu *ekonomiaren* eta *ingurumenaren* ikuspegitik *bizi-kalitatea* hobetzeko.
Jangurie	Eskola-jangelak *bertako produktuez, garaikoez eta ekologikoez* hornitzen dituzten *hezkuntza-erkidegoen* plataforma. Nutrizio osasungarriaren eta Busturialdea-Urdaibaiko ekonomia eta ingurumenaren aldeko apustua egiten du.
Kolore Guztietako Basoak	Plataforma honek proposatutakoaren arabera, *basoko kudeaketaren eredua naturari hurbila* zaio. Horrez gain, erakundeei, nagusiki, Bizkaiko Foru Aldundiari, eskatzen dio basoko kudeaketa-eredua berriz pentsa dezala, egun beren-beregi ekoizpenari erreparatzen baitio.
Fundación Lurgaia	Lursailak erostearen eta *lurraldearen zaintza* tresnaz baliatuta partikularrekin akordioak lortzen ditu , Busturialdea-Urdaibain eta beste lurralde batzuetan baso autoktonoa eta hezeguneak zabaltzen ari dira.
Lurgozo	Busturialdea-Urdaibaiko kontsumo-elkartea, *bertako produktuak* eta ekologikoak kontsumitzea sustatzen duena. Ajangizko lokaletik banatzen du.

Urdaibaiko Galtzagorriak	Urdaibairen aldeko boluntarioen elkarte honek, *natura- eta kultura-ondarea* berreskuratzeko eta balioa emateko ekintzetan goraldia izan ondoren, <www.urdaibai.org> webgunearen bitartez hedapen-lana egiten jarraitzen du.
Zain Dezagun Urdaibai	*Zain Dezagun Busturialdea* elkarte historikoaren ondorengoa da; hirigintza-gehiegikeriak eta ingurumen-araudiaren urraketak aztertu eta salatzen ditu.

8.3. Sozioingurumen arloko erakundeak eta ikerketa-zentroak

Agiri	Batik bat, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu geografikoan *Kultura Ondare Arkeologikoa* aztertzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko kultura-elkartea.
ADES	*Espeleologia* ikertu eta hedatzeko elkartea. Haren esplorazio-eremu nagusiak Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeak dira.
BBK Urdaibai Zentroa: Urdaibaiko Ingurumen Hezkuntzako Proiektua	Eusko Jaurlaritzak, BBK Fundazioaren laguntzaz, ingurumen-heziketaren zerbitzu hau eskaintzen du. Eskoletako ikasleak hartzen ditu Urdaibai ingurunean *ingurumen-metodo eta -material didaktikoei* buruz ikerketa aplikatua egiteko.
Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco	Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa. Sustatzen dituen *ikerketez* gain, eskualdean *Uda Ikastaroen* jarduerak antolatzen ditu.

AZTI Fundazioa	Sukarrietako zentroan ikerketak garatzen ditu, bai *itsas ingurunekoak* eta *arrantza-baliabideei* buruzkoak, bai *elikagaienak*.
NEIKER Fundazioa	*Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sektoreetarako* ikerketak sustatu eta ezagutza sortzen du.
Gernika Gogoratuz	Bakearen Aldeko Aztertegia. *«Gatazka egoeran dauden lurraldeak»* nazioarteko ikerketa-proiektuaren sustatzailea.
Gernikazarra	Kultura-talde honen helburua da *tokiko* zenbait *alderdi historiko* aztertzea eta *Gernika-Lumoko oroimena berreraikitzea,* 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketa tragikoaren ondorioz oroitzapen pertsonala, idatzizkoa eta grafikoa galdu ondoren.
Maier Technology Centre (MTC)	Maier (Mondragon korporazioa) kooperatibaren zentro teknologikoa; *automobilgintza* sektorean ikertzeko eta esparruko enpresei zerbitzuak emateko zereginean dihardu; baina, aldi berean, produktuak ekoizten ditu *telefoniaren* eta *etxetresna elektrikoen* sektoreetarako.
Mondragon Unibertsitatea	Ikerketa aplikatua bultzatzen du, besteak beste, Busturialdea-Urdaibain hurrengo arlo hauetan: *hezkuntza-berrikuntza, ingeniaritza, enpresen kudeaketa* eta *kooperatibismoa*.
Deustuko Unibertsitatea	Busturialdea-Urdaibai eremuan *gizarte-, lege- eta ekonomia-gaien* gaineko ikerketak bultzatzen ditu.
Urdaibai Bird Center	*Hegazti urtarrei* eta haien *migrazioei* buruzko ikerketa-zentroa. Gautegiz Arteagako paduren ondoan dago, eta Arantzadi Zientzia Elkartearekin lotura du.

8.4. Eskualdeko baliabide naturalak erabiltzen dituzten enpresa-sektoreak

Baliabide naturalak	Jarduera
Geologikoak	• Uraren aprobetxamendua. • Harri- eta agregakin-harrobiak. • Itsas zorupean gas naturala biltegiratzea. • Eguzki-energia, geotermikoa eta aerotermia. • Geodibertsitatearen ibilbideak.
Itsasokoak	• Olgeta-jarduerak. • Itsasbazterreko arrantza, • Kirol-arrantza. • Arrainen kontserbak. • Arrain-irinak.
Nekazaritzakoak	• Larreak eta belardiak. • Baratzeko produktuak. • Laborantza estentsiboak (artoa) eta bazka. • Frutaren ekoizpena. • Txakolinaren (ardo zuria) ekoizpena. • Sendabelarrak.
Abeltzaintzakoak	• Zaldiketa eta zaldi-ibiliak. • Esnearen ekoizpena. • Arrautzen ekoizpena. • Haragia eta haragiki eratorriak. • Eztiaren ekoizpena. • Apiterapia.
Basogintzakoak	• Fruituen eta onddoen bilketa. • Su-egurra ateratzea. • Egurra ateratzea. • Egurra eraldatzea. • Egurrez eraikitzea. • Bioerregaia (txirbila, pelleta).
Biodibertsitatekoak	Naturan zeharreko ibilbideak. • Natura behatzea (hegaztiak, izurdeak). • Kirol-arrantza. • Ehiza. • Turismoa. • Baso terapeutikoetan bainuak.

9. ONDORIOAK

Lurraldea eta populazioa

Busturialdea-Urdaibai eskualdeak 46.000 biztanle inguru ditu. *Pertsonak-lurraldea* bikotea da natura-ondare nagusia eta gaurko nahiz etorkizunerako baliabidea. *Biosfera erreserbaren* irudiak giza garapena eta natura- eta kultura-ondarearen kontserbazioa bateragarri egin nahi ditu. *Natura 2000 Sarearen* helburua da, hazkuntza mugagaberako eredu ez-jasangarriaren aldean, natura-ondarea babestea eta horri balioa ematea. Beraz, eskualdeak *oreka* bilatzeko ikuspegia, tresnak eta beharrak/erronkak ditu, funtsezkoa baita gizarte zuzen, oparo eta osasungarri gisa aurrerapausoak emateko.

Natura- eta kultura-ondarea, naturagune babestuak

Busturialdea-Urdaibai toki pribilegiatua da geodibertsitate, biodibertsitate eta horiek hartzen dituzten ekosistemen ikuspegitik. Balio hori nazioartean eta Europan aitortua izan da, besteak beste, ondorengo adierazpen hauekin: *Ramsar* nazioarteko intereseko hezeguneak zein eskualdeko azaleraren *% 25* sartuta *Natura 2000 Sarean*. Kontzeptu aurreratuagoaz baliaturik eta inguruko giza jardueren iraunkortasuna edo oreka terminoan oinarrituta, eskualdearen zati handi bat UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) *Urdaibaiko Biosfera Erreserba* izendatu du.

Ekintzaren helburua izan da *geologia-ondarearen* balioa azpimarratzea, eta, bestetik, habitata hobetzea eta *espezie mehatxatuen* populazioen egoera ona berreskuratzea. Hori litzateke *bisoi europarraren* kasua, animalia bitxia —zentzu bietan— baita eskualdean. Beste espezie batzuentzat, hala nola *ur-benarrizentzat*, Urdaibaiko padurak euskal kostaldeko babesleku nabarmenak dira.

Bestalde, *kultura-, ingurumen- eta paisaia-balioa* duten elementuak eta multzoak azpimarratu behar dira, oso garrantzitsuak baitira: Santimamiñeko haitzuloa, Foruko erromatar herrixka, dorretxeak edo arte garaikidearen adierazpenak.

Airea, ura, lurzorua

Aireak eskualdean *kalitate ona* du; dena den, hobe daiteke hirigunean eta industria-jarduera batzuen inguruan. Ozono gasak maila altuak ditu Mundakako estazioan.

Urari eutsiz, eskualdeak *ekologia-kalitatearen arazoak* ditu, zenbait ibaitan, baita itsasadarreko goiko aldean eta estuarioan ere. Saneamendu-obrak amaitzeko falta diren faseei batu egin behar zaie ibai batzuek *bizitzari eusteko gutxieneko urik* (emari ekologikoa) ez izatea. Bestalde, euri gutxi egiten duenean eta asko kontsumitzen denean, hornidurarako *urik ez da egoten.*

Lurzorua *okupatu* egin da bizitegi- edo industria-jardueretarako ala errepideak eraikitzeko, eta horrek *kutsadura* eta narriadura ekologikoa dakartza. Lurzoru naturala galtzeaz gain, pinuaren eta eukaliptoaren basogintza-lanak direla eta, *asko higatu* edo galdu da. Horrenbestez, eskualdeak hiru dinamika horiengatik lurzoru naturala eta, beraz, bizitza eta basogintzaren sektorean produkzio-sistema iraunarazteko «kapital natural» ordezkaezina galtzen jarraitzen du.

Ingurumen-arriskuak, jarduera gogaikarriak

Eskualdeko ingurumen-balioen kontra jartzen dira eskualdeko *naturaren eta gizakiaren arriskuak* (bigarrenak teknologikoak) —edo bien konbinazioaren ondorioz sortutakoak—. Eskualdeak *uholdeen* edo *hiriko eta basoko suteen* arriskuak ditu; halaber, ez dago *industria-istripuetatik, marea beltzetatik* edo *substantzia arriskutsuen* edo erregaien *garraioarekin* lotutako arriskuetatik salbu. Horregatik, arreta eta arriskua gutxitzearen printzipiopean murrizten saiatu behar da hasieratik.

Bestalde, zarata eta usainak sortzen dituzten *jarduera gogaikarriek* egunero kaltetzen dute, eta osasunean negatiboki eragin ere bai. Horregatik, ahal den neurrian, aurre egin behar zaie eta minimizatu egin behar dira, bai udalerri-mailan, bai errepideko garraiobideen eta trenbideen titularrek duten erantzukizunaren mailan. Eguneroko bizitzako eta kalitatezko turismo-helmugako paisaiak erakargarriak ez diren egoera horiek hobetzera behartzen gaitu.

Kultura-paisaia, sozioekosistemak eta naturaren zerbitzuak

Azaldutakoari jarraikiz, Busturialdea-Urdaibai paisaia giza jarduerak maneiatu eta moldatu du duela milaka urtetik hona. Eraldaketa bizia dela eta, *kultura-paisaiaren* aurrean gaude. Horregatik, komenigarria da *sozioekosistemen* ikuspegia erabiltzea, hau da, natura-balioak kontserbatzearen eta gizakia garatzearen artean lortu nahi den orekaren arteko lotura aztertu eta ulertu behar da. Ildo horri eutsiz, *ekosistemen zerbitzuek*

pertsonen eta naturaren arteko harreman estura hurbiltzen gaituen begirada berri bat osatzen dute. *Biosfera erreserba* agertoki ezin hobea da ekologikoa eta soziala osasunez harremanetan jartzen duten ikuspegi horiek aplikatzeko.

Klima-erronka

Aurkezpen honetan zehar azaldutakoaren arabera, eskualdeak dituen erronken aurrean, agertoki berri bat iritsi zaigu, eta hurrengo hamarkadetan biziagotuko da: *klimaren krisia.* Hala, *itsasoaren maila igotzeak, muturreko fenomeno naturalek* (ekaitzak, uholdeak, lehorteak, suteak), *espezie exotikoen* agerraldiak (hala nola liztor asiarra) edo *bero-boladek,* beste batzuekin batera, testuinguru larri honetan arreta berezia eskatuko dute. 80ko hamarkadaren amaierako *lehorte luzea* eta *baso-sute handia* (1989. urtea), eskualdeko portuak suntsitu zituzten *itsas ekaitzak* edo Laga eta Laidako hondartzak irensten dituen *itsas maila igotzea* (3 milimetro urtean, txikia iruditu arren), horiek guztiak bizi izan ditugun errealitateak dira.

Laburbilduz, *klima-larrialdia* eskualdeko errealitatea da. Erronka horri aurre egin behar zaio, eta, gainera, Busturialdea-Urdaibairako *konpromiso-agertokiak* diseinatzean beste arazo eta konponbide batzuekin bateratzea ezinbestekoa da.

Gizakiaren ongizatea, bizitza ona, gobernantza

Azaletik gizarte- eta ingurumen-errealitatea ezagutu ondoren eta *zailtasunak* zein *aukerak* identifikatu ostean, gaiei eusteko unea iritsi da, tokiko biztanleak hartzen dituen arroak eta itsas ingurunea, hiriko kokaguneak eta eskualdean garatzen diren jarduerak baztertu gabe. Natura-ondarea babestearekin eta kultura-ondarearen balioa azpimarratzearekin batera, *gizakiaren ongizatea* eskuratu behar da. Eta horretara iristeko nahitaezkoa da *eremu materialean, afektiboan eta haraindikoan* (espirituala) gure *beharrak eta itxaropenak* asetzea. Hau da, ekintza kolektiboaren agertokian, oinarrizko behar materialak aseak, esparru materiagabean poztasuna eta erabateko bakea: *bizitza ona.*

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, eskualdeak baditu banakako eta erkidegoko ongizate-maila horiek lortzeko *baliabide naturalak* (ekosistemen zerbitzuak) —guztiak hobe daitezke politika eta kudeaketa on baten bidez—, *ezagutza* eta *tresnak* nahiz *ikuspegiak* ditu. Eskualdeko *eragi-*

leak eta *agentziak* (gaitasunak) anitzak eta askotarikoak dira. Horregatik, ezinbestekoa da *eskualdeko alderdi eragile eta pertsona* guztiak maila handiagoan edo txikiagoan nahastu eta konprometituko dituen gobernantza bat. *Gobernantza demokratikoa* edo horizontala, alderdi bakarreko gobernu bertikaletatik urrun dagoena, gobernu-modu ireki eta garden bat da, nahasitako alderdi guztiak edo espaziorako eskubidea dutenak kontuan hartu eta ahalduntzen baititu.

Gobernantza klimatikoa politika guztietan zeharka sartuko da eta Busturialdea-Urdaibaiko etorkizuneko erronkei aurre egiteko funtsezko bihurtuko da.

D

BEGIRADA ESTRATEGIKOA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK SUSTATUTAKO PLANAK ETA JARDUERAK (2000-2020)

Xabier Arana Eiguren

Xabier Arana Eiguren Biologia Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). UPV/EHUko Ingurumena Ebaluatu eta Berreskuratzeko Unibertsitate Masterra. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari (1996-2007) eta Euskadiko Biologoen Elkargo Ofizialeko ingurumen-batzordeko kide izan zen.
Gaur egun, 2012tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurumen Hezkuntzako Ataleko burua da. Ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotuta, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea da, baita Busturialdea-Urdaibai eskualdean euren jarduera egiten duten beste erakunde batzuetakoa ere. Halaber, UPV/EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrako batzorde zientifikoko kidea da. Natura-ondarearen kontserbazioari, lurralde-antolamenduari, ingurumen-hezkuntzari eta, oro har, ingurumen-iraunkortasunari buruzko dibulgazio-artikuluen egilea. Ipuinak argitaratzen ditu bertako biztanleen kontzientzia eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzeko.

«Gatazka egoeran dauden lurraldeak» ikerketa proiektuak, 2018. eta 2019. urteetan zehar, Busturialdea-Urdaibai eskualdeko arazoak eta erronkak identifikatu zituen, bai eta erresistentzia eta alternatiba biziak ere, erakunde zibilekin egindako tailerretan eta eremu hori eta bertan bizi den gizartea ondo ezagutzen duten pertsonekin egindako elkarrizketetan. Horri guztiari esker, eskualdeak jorratzeko dituen erronken irudikapen bat egin ahal izan zen, bai eta gizarte mugimendu aktiboen aniztasunak eskaintzen dituen aukerena eta hainbat eremutan behatutako gaitasun kolektiboena ere. Busturialdea-Urdaibaiko gizarteak gordetzen duen jakintza eta giza ondare hori guztia ezagutzera eman zen eta balioa eman zitzaion hamaika hedapen baliabideren bidez, esate baterako, *Urdaibai: Oreka Bizian* dokumentala (FMK Media, 2019), mahai inguruak, nazioarteko ikastaroa *online*, <territoriolab.org> webgunea eta *Kasu-ikerketa: Urdaibai (Euskal Herria). Egitasmoak ezagutuz eta diagnostikoak kolektiboki partekatuz* argitalpena (Gernika Gogoratuz, 2019).

Hurrengo fasean, eskualdearen ezagutza zabaldu nahi da, Busturialdea-Urdaibaik dituen giza garapenaren eta aberastasun natural, sozial, kultural eta ekonomikoaren alderdi guztietan. Horretarako, gizartearen, ekonomiaren eta plangintzaren errealitatearen ezagutzan sakondu dute aurrera eraman diren zenbait ikerketek. Azken alderdi horri dagokionez, Busturialdea-Urdaibai eskualdean XXI. mendean zehar egindako planetan, programetan eta jardueretan administrazio publikoak sustatutako ekintzaren berri ematen da idazki honetan.

Era berean, «Gereizpetan 11 Izpi: ahots isilduak bizitzaren narratibei gehituz» ekimenaren bidez (Gernikatik Mundura elkarteak garatutako proiektua), alderdi sozialak jorratu dira, beren errealitateak eta beharrizanak ezagutarazteko zailtasunak dituzten pertsonengana eta kolektiboetara hurbilduz. Azkenik, BatzArt izeneko arte adierazpeneko jardueraren bidez landu da tokiko arazoen eta nahien espresioa.

1. PLANGINTZA PUBLIKOA

Ikerketak XXI. mendearen hasiera du abiapuntu, ekintza publikoa perspektiba pixka batekin ezagutzeko. Gainera, kontuan izan behar da plangintza publikoa gauzatzeak denbora luze samarrak eskatu ohi dituela. Zehatz esateko, 2000-2020 aldia aztertu da.

Hala ere, hiru une edo gertaera erabakigarri nabarmendu behar dira aurrekari gisa. Alde batetik, Gernika-Mundaka Itsasadarraren Aprobetxamendu Integralerako Plana onartzea. Bizkaiko Foru Aldundiak joan den mendeko 60ko hamarkadaren amaieran onartu zuen plan hura, diktadura garaian. Bestalde, 1976tik aurrera, diktadura frankista amaitu ondoren, udal demokratikoak eta beste euskal erakundeak (Eusko Kontseilu Nagusia —Eusko Jaurlaritzaren aurrekoa dena—, foru aldundiak) eratu ziren. Hirugarren maila gisa, Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta antolatzeari buruzko Legea (1989) onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Eskualdeko gertaera historiko horiek agerian jarri ziren *Lurraldeko ingurumen erronkak eta eraldaketa soziokulturalerako ingurumen hezkuntzako tresnak* lanean, Gernikako V. Antimilitarista eta Memoria Historikoaren jardunaldiak Astran: Erresistentzia eta elkartasun narratibak jardunaldietan aurkeztua (Arana, 2019).

Eskualdeko plangintzari eta ekintza publikoari buruzko lan horri ekiteko, indarrean egon diren edo dauden planak aztertu dira, honako arlo hauei jarraiki:

- Plangintza integrala.
- Ingurumen arloa.
- Kultura eta euskara arloa.
- Arlo ekonomikoa.
- Arlo soziala.
- Ekipamenduen eta azpiegituren arloa.
- Gobernantza arloa.

2. PLANGINTZA INTEGRALA

Plangintza integrala da tokiko gobernantzaren eremu guztiak hartzen dituena. Beraz, ikuspegi integral horretatik, udalerriko edo eskualdeko eremu guztietan eragiten saiatzen da, dituen eskumenen edo baliabideen (giza baliabideak zein baliabide materialak) arabera.

Puntu honetan aipatzekoa da Urdaibai-Busturialdeko Udaltalde 21 sortu zela 2003an, eskualdeko 20 udalerrietan Tokiko Agenda 21 bultzatzeko. Tokiko Agenda 21ek —1992ko Rioko goi-bileran egindako deiari erantzuten ziona—, hasiera batean bereziki ingurumen arloari heltzen bazion ere, tokiko errealitatearen ikuspegi integrala txertatzen joan zen arian-arian. 2005. urterako, Busturialdeko udalerriek bazuten beren Tokiko Agenda 21eko ekintza plana. Eskualdeko buruek berritu egin zuten handik urte batzuetara, esate baterako, Gernika-Lumok beste dokumentu bat onartu zuen 2012-2020 aldirako, eta Bermeok, berriz, 2019-2023rako Agintaldi Plana. Bestalde, Busturiak 2014-2020 urteetarako berritu zuen.

Une honetan, Tokiko 2030 Agenda prestatzeko parte hartze prozesuak hasteke daude udalerrietan. Plangintza integraleko estrategia horiek egiteko, Nazio Batuen Erakundeak 2015ean onartutako Garapen Jasangarriko 17 Helburuak eta 2030 Agenda hartuko dira oinarri.

Eskualdeari dagokionez, eta herri txikiei begira, Busturialdeko Landa Garapenerako Programa aipatu behar da. Landako herriak planifikatzeko eskema hori —baina Bermeoko eta Gernika-Lumoko landa ingurunea ahaztu gabe betiere—, Euskadirako sortutako programa baten bidez (2007-2013) garatu da, eta ondoren, Busturialderako programa espezifiko baten bidez (2015-2020). Jarduera ugari egin dira programa horien bidez, besteak beste, nekazaritza proiektuei laguntzea, udal ekipamenduak finantzatzea eta landa eremuetako biztanleentzako lanbide heziketako programak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren (UBE) esparruan, hau da, Oka ibaiaren arroarekin bat egiten duen eremuan —Ea udalerria kanpoan geratzen da—, bi dokumentu estrategiko onartu dira. Lehenengoa UBEren Garapen Iraunkorrerako Estrategia (2009-2015) izan zen. Eta haren ordez —Eusko Jaurlaritzaren lehendakaritza jada PSEren zuzendaritzapean zegoela—, Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Proiektua: garapen sozioekonomikoaren eredua (2010-2015) proiektuak hartu zuen haren lekua. Ondoren, ez da ikuspegi integraleko plangintzarik onartu.

Plangintza horien esparruan gauzatutako jarduera nabarmenen artean, sorkuntza artistiko eta kulturalerako espazio bat birgaitzea dago, Astrako antzinako arma fabrikaren eraikinean, 2012an kultura sorkuntzarako fabrika sozial gisa inauguratu baitzuten hura. Bestalde, 2012an Bakearen eta Kulturaren Urtea antolatu zen.

Aitzitik, proposatu ziren, baina oraindik argirik ikusi ez duten jardueren artean daude, alde batetik, eskualdeko garapen agentzia, eta,

bestetik, energia berriztagarrien eta ostalaritzaren lanbide heziketako zentroa.

Aipatzekoa da, halaber, probintzia mailako plangintza bat, Busturialdean hainbat jarduera zehatz sustatu dituena. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako garapen planez ari gara: Bizkaia 21 programa, Bizkaia Goazen 2030 eta Bizkaia Egiten.

Urdaibai Bird Center, Urdaibaiko estuarioko uretako hegaztien ikerketa zentroa, sortzen lagundu zuen Bizkaia 21 programak. Bizkaia Goazen 2030 plan estrategikoak, berriz, Bermeon eta Gernika-Lumon jendeari arreta integrala emateko bulego bana irekitzea sustatu zuen, Gertu programaren bidez; bai eta Arratzun (2017) eta Gernika-Lumon (2019) bi Elkartegi (enpresa haztegiak) eraikitzea ere. Bizkaia Egiten estrategiak, bestalde, Bermeoko portua berrabiaraztea eta Bermeo, Matxitxako, Gaztelugatxeko Doniene eta Bakio artean pasealeku berdea sortzeko jarduerak biltzen ditu, oraindik hasi gabe daudenak.

COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz sortutako larrialdi egoera dela eta, 2020an Bizkaia Aurrera jarri zen abian, lurralde historikoko ekonomia bultzatzeko eta jarduera suspertzeko premiazko 12 neurrirekin.

I. eranskinean ageri dira atal honetan eta hurrengoetan aipatutako planetako jarduera guztiak.

3. INGURUMEN ARLOA

Urdaibaiko Biosfera Erreserba —UNESCOk 1894. urtean izendatua— eskualdean egoteak eragin handia izan du Eusko Jaurlaritzak lurralde horretan egin duen planifikazio ekintzan. Gainera, natura balio handiko lau ekosistema aintzatetsi dira eremu geografiko horretan, hala nola estuarioko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), ibai sarea, artadi kantauriarrak eta Gaztelugatxeko Donieneko KBEa, bai eta Urdaibaiko itsasadarreko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) ere. EAEko Natura 2000 Sarean sartu dira horiek. Habitatari buruzko Zuzentarauak sortu zuen Natura 2000 Sarea, biodibertsitatea kontserbatzeko eta Europako naturagune babestuen sarerik handiena sortzeko. Ikuspegi hori gainditu egin da Azpiegitura Berde-Urdinarekin. Azpiegitura hori Natura 2000 Sarearen bertsio aurreratua da, Europako Batzordeak sustatua halaber. Haren bidez, ingurumen egitura handi bat sortu nahi da lurraldean —sare berdea—, kontinen-

te osoa elkartu eta komunikatuko duena, biodibertsitate erreserba, konektore eta korridore ekologiko gisa, eta ingurumena lehengoratzeko eta klima erronkaren aurrean erresilientzia izateko eremu gisa.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeko Legea (Eusko Legebiltzarra, 1989), babes natural eta arkeologiko bereziko eremuak zuzenean deklaratu zituena, ondoko bi tresna hauekin garatu behar da: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) eta Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE). Era berean, eremu geografiko edo tematikoen arabera gara daiteke EKZP, Lurralde Ekintzako Planen (LEP) edo plan berezien bidez. Habitatari buruzko Zuzentarauko kontserbazio bereziko guneak planifikatzeko eta kudeatzeko tresnak gehitu edo gainjarri zaizkie plan horiei.[1]

Lehenengo EKZP 1993an argitaratu zen, 2003an zabal aldatu zen, eta berrikusitako bertsio berri bat onartu zen 2016an. Orain arte, honako hauek dira onartutako EKZP garatzeko planak eta Habitatei buruzko Zuzentarauaren tresnak:

- Artadi kantauriarren Lurralde Ekintzako Plana (LEP) (2003).
- Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KBE kontserbatzeko neurriak (2013, aurrekoa ordezten duena).
- Gaztelugatxeko Donieneko KBE kontserbatzeko neurriak (2013).
- Urdaibaiko itsasertza eta padurak HBBE kontserbatzeko neurriak (2013).
- Urdaibaiko ibai sarea KBE kontserbatzeko neurriak (2013).

Beste LEP batzuk egiteko prozesuan geratu ziren, onartu gabe: Urdaibaiko estuarioko LEP; Urdaibaiko ibai sareko LEP; Baso Eremuetako LEP. Hala ere, azkenean, Habitatari buruzko Zuzentarauaren tresnekin eta Natura 2000 Sarean sartzearekin bete dira.

Onartutako antolamendu eta kudeaketa tresnak gauzatzeari dagokionez, aipatzekoak dira «Oruetako ur xafla» (Urdaibai Bird Centerren aurrean, Gautegiz Arteagan) eta «Basozabaleko ur xafla» (Kor-

1. 358/2013 Dekretua, ekainaren 4koa. Honen bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden garrantzi komunitarioko 4 leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio neurriak.

tezubi) eraikitzeko jarduerak; «Pinudia kentzea Laidabason», artadi kantauriarra berroneratzeko (Ibarrangelu); eta, berriki, Eusko Jaurlaritzak egindako Urdaibai Biosfera Erreserbako baso autoktonoa berroneratzeko laguntzen deialdia.

Ingurumen ekipamenduei dagokienez, Madariaga dorretxea zaharberritu eta Euskadiko Biodibertsitatearen Zentro gisa (2008) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren interpretazio eta egoitza ofizial gisa (2015) eraiki ondoren, lehen aipatutako Urdaibai Bird Center (2012) horri Matxitxakoko lurmuturreko itsas behatokia gehitu zitzaion, 2014. urtean inauguratu zena, Busturialdeko kostaldea inguratzen duten itsas hegaztiez eta zetazeoez gozatu ahal izateko.

Ingurumen baliabideen antolamenduari eta kudeaketari dagokienez, honako plan hauek onartu ziren eskualderako:

- UBEko Energia eta Ingurumen Arloko Plana (2003-2010).
- UBEko Uren Saneamendurako LEP (2006).
- UBEko Uren Hornidurarako LEP (2020).

Plan horiek gauzatzearen ondorioz, eguzki instalazio handi bat jarri zen Gernikako Jai Alai pilotalekuaren estalkian eta Bermeoko hornidura azokaren teilatuan; farola fotovoltaikoak jarri ziren Ereño, Kortezubi eta Muxikako auzo eta baserrietan; eta Gernika-Lumoko Kaltzada adinekoentzako egoitzaren energia kudeaketa hobetu zen. Bestalde, hegaztiek linea elektrikoen aurka talka egin ez zezaten, «txori-salbatzaileak» jarri ziren ingurumen sentsibilitate handiko eremuetan, hala nola estuarioan, artadi kantauriarren basoetan eta Oka ibaian, hark hegoaldetik iparraldera zeharkatzen baitu arroa.

Hondakin uren saneamendua, bai hirietakoak bai industriakoak, eskualdeko erronka handietako bat zen eta da, bai ondorio sanitarioengatik, bai ondorio naturalistiko eta ekonomikoengatik. Orain arte kolektore sare osoa eraiki da, Muxika eta Gernika arteko zatia izan ezik (2021ean kontratatua). Ponpaketa estazioak eraiki dira Gernikan, Busturian eta Sukarrietan, eta azken horrek ia eskualde osoko hondakin urak Lamiarango araztegira eramaten ditu. Araztegi hori urpeko hustubide batekin osatu zen, eta Urdaibaiko kostaldetik urrun isurtzen ditu tratatutako urak.

Uren Hornidurarako LEPa 2020. urtean onartu zen azkenean, eta hark erantzun nahi dio edateko uraren hornidurari, ibaien eta erreken kutsadurari, eskualdeak bizi duen defizit hidrikoari, Gernikako ibarreko akuiferoaren osasun bermerik ezari —gordailu naturala, gar-

bi balego— eta oporraldietan izaten den eskari handitzeari. Hainbat gauzatze fase planteatzen ditu, plan erraldoia eta aurrekontu handikoa baita. Orain arte, berritu egin da Golako ibaiaren hartunetik Bermeoko araztegira eta banaketa sarera urak daramatzan eroanbidea (eskualde barruko transbaseaz hitz egin dezakegu, eta horrek areagotu egiten ditu Golako ibaiaren emari ekologikoaren galera arazoak). Egiteke dauden jardueren artean dago, lehenik eta behin, Maumeko akuiferoaren hartunea Oka ibaiarekin lotzea, Ibarruriko hoditeria Berriztatzearen bidez; halaber, Oiz eta Sollube mendietako ura hartzeko putzuen zundaketa berriak ere ez dira egin. Eta hurrengo fase batean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen sarearekiko Konexioa, Sollubetik eraikiko litzatekeen hodiarekin. Eginkizun garrantzitsu gisa, Gernikako ibarreko akuiferoa lehengoratzeko eta arazteko lanak kontratatu ditu URA Agentziak (2021).

Hondakinen kudeaketari erreparatzen badiogu, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralera (HHKPI) jo behar da —1997-2001 eta 2005-2016—. Plan horren bidez, honako instalazio hauek eraiki ahal izan dira: Gernika-Lumon dagoen eskualdeko hondakinen transferentzia estazioa, eta Bermeoko, Gernika-Lumoko eta Gautegiz Arteagako garbiguneak (gaikako bilketarako zentroak). Bestalde, materia organikoa edukiontzi marroien bidez biltzeko sistema udalerri askotan ezarri da eskualdean, baina bost udalerrik oraindik ez dute zerbitzu hori, guztiak landa eremukoak: Ereño, Murueta, Morga, Nabarniz eta Forua. Hala ere, landako herrietan, hondakin organikoak birziklatzeko eta konpostatzeko ohituraz gain, autokudeatutako konpostontziak erabiltzea bultzatu da.

Paisaia babesteari eta hobetzeari begiratzen badiogu, eskualdeko buruek egin dituzte planak alor horretan. Hala, paisaia plan hauek daude:

- Bermeoko Edertze Plana (2012).
- Oka ibaiaren Paisaiaren Ekintza Plana (Gernika-Lumo, 2016).
- Tonpoi inguruko Paisaiaren Ekintza Plana (Bermeo, 2018).

Honako jarduera hauek azpimarra daitezke, besteak beste: Bermeoko alde zaharreko balkoietako eta leihoetako lore Lehiaketa, Oka ibaiaren bazterra Lehengoratzea (egikaritzen) eta Tonpoiko paisaia Lehengoratzea, portuaren eta Aritxatxuko hondartzaren arteko itsasertzean, Bermeon. Bestalde, azpimarratu behar da Muxikan gizarte partaidetza izan duen Mugi Paisaia proiektua sustatu dela. Proiektu

horrek Muxikako Udalaren osoko bilkuraren babesa du identifikatutako ekintzetan.

4. KULTURA ARLOA ETA EUSKARA

Eskualdeko udal guztiek dituzte kultura ekintzako programak eta urtean zehar jarduerak antolatzen dituen agenda bat, bai museoetan edo ekipamenduetan, bai elkarteei edo musika jarduerei laguntza emanez, jai batzordeekin koordinatuta. Beraz, kultur programazio zabala eta askotarikoa eskaintzen da herri mailan, herriko jaietako programekin eta euskararen erabileraren inguruan egiten diren ekintzekin indartuta, Euskal Herri mailako Euskaraldia kanpaina, esate baterako.

Kultur ekitaldiei dagokienez, aipatzekoak dira, besteak beste, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenean sortutako *Gernika garretan* antzerki lanak-musikalak (kultura elkarte homonimoak sortua), eta *Urperatutako argiak*, 1912ko galarrenaren tragedia gogorarazten duena, Bermeo eta Elantxobe kostaldeko herriak astindu zituena, 143 arrantzaleen bizitza eramanez.

Hainbat kultura ekipamendu daude jendearentzat zabalik, hala nola Kafe Antzokia (2008) eta Bekoportala erabilera anitzeko zentroa (2019) Bermeon, Astra kultur sorkuntzako lantegi soziala (2012) Gernika-Lumon edo Larrazabaleko arte, ingurumen eta gastronomia gunea Busturian (2005), eta Zubi-ondo kultur etxea Muxikan. Bestalde, Ereñoko Udalak *Sinfonia Arrecifal* (2019) arte sorkuntzaren alde egin du, «Ereñoko marmol gorriaren» harrobietako batean.

Kirol jardueren artean, alde batetik, Urdaibai traineruaren balentriak daude (hainbat aldiz irabazi baitu Kontxako Bandera). Bermeoko Udalaren eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen laguntza izan du kirol klub horrek. Bestetik, berriro ireki da Jai Alai frontoiko (pilotaren «katedrala», eraisteko zorian egon zena bertan etxebizitzak eraikitzeko) zesta-punta eskola berriz irekitzea Gernikan. Beste hainbat kirol ekipamendu ere eraiki dira, Ajangizko frontoi estalia kasu, 2011n inauguratua.

Eskualde osoari begiratzen badiogu, deigarria da Busturialdeko kultura ondareari buruzko ekintza planik ez egotea, eta, ondorioz, ezta eskualde mailako inbentario eta jarduera koordinatuen planik ere. Nolanahi ere, salbuespen batzuk badaude, hala nola Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako diseinatu diren ibilbideak eta Urremen-

di Landa Garapen Elkarteak sustatutako ibilbide txikiak. Garrantzi handiagoa du Donejakue Bideak, ekialdetik mendebaldera zeharkatzen baitu, eta Gizateriaren Ondare izendatu zuten 2015ean. Beste jarduera garrantzitsu batzuk izan dira Urdaibaiko Ibilbide Historikoak edo Organo kontzertuen Programa, Bizkaiko Foru Aldundiaren BizkaiKOA enpresa-erakunde publikoak sustatuak. Ibilbideen artean, Tribisburuko Nekropoli erromatarra bisitatzen da, bai eta Arrolako Oppidum zaharberritua ere. Azken honi lotuta dago Arrolagune interpretazio zentroa Arratzun, 2014. urtean irekia jendearentzat. Amaitzeko, esan behar da 2008. urtean ireki zela zentroa Santimamiñeko Kobaren eta haren labar pinturen erreplika birtualarekin (Kortezubi), urte horretan bertan Gizateriaren Ondare izendatu zirenak.

Zorroan egiteke geratu diren jardueren artean, aipatuko ditugu Ormazako kontserbaren interpretazio zentroa (Bermeo) edo Jose Antonio Arana Martija liburutegi berria, Gernika-Lumoko Udalak 2007an iragarritakoa. Azkenik, Ibarrola familiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beste kokaleku bat aurkitu dute Omako Basoarentzat. Nazioartean ezaguna den bertako artista Agustin Ibarrolak egina da lan hori, *land art* estilokoa. Zerrenda marroi izenaz ezagutzen den gaixotasunak kaltetu egin du baso hori, kalte handia eragin die insignis pinuei, eta kanpoko zuhaitz horietako ugari hil dira.

Euskara da eskualdearen nortasun ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Biztanleen ehuneko handi bat euskal hiztunak dira, eta baliabide ugari jartzen eta ahalegin handiak egiten dira euskararen erabilera sustatzeko eta bultzatzeko. Bultzada hori nabari da udalek eta maila handiagoko administrazioek (Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak) diseinatzen eta gauzatzen dituzten planetan. Plan horiek, era berean, euskarri sozial eta kolektibo oso sendoa dute, diktaduraren garaian sortua hizkuntza hori debekatuta zegoenean. Aipatzekoak dira, besteak beste, honako plan hauek:

- Bermeorako Euskararen Plan Estrategikoa (2012; 2018-2022).
- Gernika-Lumoko Euskararen Plan Estrategikoa (2003-2006; 2009-2013; 2014-2017; 2019-2022).
- Eako Udaleko Euskararen Erabilera Plana (2013-2017).
- Eako Udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2015-2019).
- Eako Udaleko Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022).

Ikusten denez, oso ohikoa da euskara sustatzeko planak egokitzea eta horrek agerian uzten du euskara sustatzeko udal zerbitzuen jarduera. Zerbitzu horien artean, nabarmentzekoak dira Gernika-Lumon eta Bermeon dauden euskara ikasteko zentroak (euskaltegiak). Bermeon hizkuntza eskola ofizial bat ere badago (Eusko Jaurlaritza), 2004an abian jarria, eta bakarra eskualdean. Atal hori indartzeko, Euskaraldia kanpaina dago —2018tik antolatzen da—, euskara ulertzen dutenen eta beren eguneroko bizitzara eraman nahiko luketenen ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa. Bestalde, Korrika deritzon ekitaldiak Euskal Herri osoa zeharkatzen du milaka partaideko maratoi gisako korrikaldian; lasterketa horren bidez euskararen lekukoa euskal geografiako zoko guztietara eramaten da.

5. ARLO EKONOMIKOA

Lehen esan bezala, UBE Babestu eta Antolatzeko Legeak bere aurreikuspenen artean jasotzen zuen hainbat planifikazio figura garatzea. Horien artean dago UBEko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE). 1998an onartu zen JSEGE, eta indarrean egon zen harik eta zati batean ordeztu zuen arte Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Estrategiak (2009) eta gero Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Proiektuak (2010). Programa integral horrek estrategia eta jarduera ugari biltzen zituen, eta JSEGEren erakunde arteko jarraipen batzordean monitorizatu eta aztertzen ziren.

- UBEko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (1998).
- Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia (2009-2015).
- Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako Proiektua (2010-2015).

Aspaldi ez dela eman da ezagutzera Busturialdea-Urdaibaiko Garapen Ekonomikorako Plan Betearazlearen zirriborroa. Erakunde arteko ekimena da eta eskualdeko sektore pribatuko enpresa handiekin elkarlanean egin da. Bestalde, garrantzi handiko ekintza gisa, prozesua hasi da (2021) Urdaibaiko Biosfera Erreserbako JSEGE berria egiteko.

JSEGEren aurreikuspenen artean UBEren logotipoa sortzea zegoen, 1999tik aurrera erabili zena, eta planetaren luze-zabalean Urdaibairi irudia eman diona. Bestalde, Madariaga dorretxea (Busturia) ireki zen, UBEren erdigune eta intsignia gisa, eta Urdaibaiko Patronatuaren egoitza ofizial bilakatu zen 2015ean Udetxea jauregiaren ordez (Gernika-Lumo).

Energiaren alorrean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Energia-ingurumenaren Lurralde Plan Sektorialak (2003-2010), JSEGEen proposamen gisa sortutakoak, jarduera ugari eragin zituen energia berriztagarriak ezartzeko —goian aipatutakoak—, bai eta mugikortasun intermodal jasangarria sustatzeko (oinez, bizikletaz, trenez, autobusez, estuarioko ferriaz) prestakuntza ikastaroak eta urteko kanpainak ere.

Arrantza sektoreari lotuta, eta esparru zabalago batetik, Bermeoko portuan oinarrituta egiten den arrantzari lotutako arloko planak aipatu behar dira, hala nola:

- Euskadiko Arrantzako Plan Estrategikoa (2007-2013).
- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plan Estrategikoa (2009-2013).
- Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plan Estrategikoa (2020).

Bere jardueren artean, eta baxurako flotaren alde eginez, arrantza sektorea birmoldatzea eta ontziak berritzea daude; izan ere, ontzi kopurua murriztu egin da, baina iraun dutenen arrantza ahalmena handitu. Akuikulturak ez du aurrera egin, nahiz eta zenbait saiakera egin Urdaibaiko uretan proiektuak egiteko. Azkenik, ahaztuta geratu da Bermeoko Itsas Etxea.

Kontserba industriarekin lotutako jardueren artean, aipatzekoa da Lamiaran-Aranburu industrialdea eraiki zela Mundakan (2000), SPRILUREn eskutik (Eusko Jaurlaritza). Bertan jarri zen Garavilla kontserba fabrika beste lantegi batekin. Hegaluzearen mundua sustatzeko esparruan, Bermeo Tuna Worl Capital ekimena dago, 2918. urtean hasi zena, eta atunaren sustapena eta jasangarritasuna ditu helburu. Ekimen horretan parte hartzen dute arrantza sektoreak, kontserba enpresek, AZTI fundazioak eta Bermeoko Udalak, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak.

Hirugarren sektorera bagoaz, turismoak bultzada handia du Eusko Jaurlaritzaren eta tokiko administrazioen aldetik. Eremurako onartutako planak horren erakusgarri, honako hauek, besteak beste:

- Euskal Kostaldearen Turismo Gida Plana (2016).
- Busturialdea-Urdaibaiko Turismoaren Plan Estrategikoa 2020.
- Busturialdeko Landa Garapeneko Programa (2015-2020).
- UBEko Garapen Iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana (PICE-IGHP, 2015).

Ofizialki onartu ez diren planen artean dago Bizkaiko Foru Aldundiaren *Gaztelugatxeko Doniene, aukera bat Bizkaiko kostalderako* estrategia.

Aurrera eraman diren ekintzen artean daude Busturialdea-Urdaibaiko Turismo Mahaia (2010) sortzea eta Urdaibaiko Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna (2020) lortzea. Beste lorpen batzuk izan dira Urdaibai Biosfera Erreserba Turismo marka sortzea, Gaztelugatxeko Donieneko Biotopo Babestua sustatzea, edo Euskal Kostaldeko Museoen sarea eratzea (2012). Era berean, urtero antolatzen da UBEko Ondarearen Gidari-interpreteak Prestatzeko Ikastaroa. Azkenik, esan behar da, UBEri buruzko webgune berria sortu dela (<urdaibai.eus>). Beste webgune batzuk ere badira turismoarekin loturikoak, hala nola Turismo Urdaibai (<turismourdaibai.com>) eta Visit Bizkaia (<visitbiscay.eus>).

Ekipamenduei dagokienez, Bermeon, Gernika-Lumon, Mendatan eta Mundakan (lehen Muxikan ere bai) dauden turismo bulegoez gain, ahalegina egin zen eskualde mailako egoitza bat ezartzeko Idiga eraikinean (Gernika-Lumo), baina azkenean huts egin zuen, ezin izan baitzen jatorrizko fabrika eraikina birgaitu.

Biztanleria aktibo eta okupatuaren ikuspegitik, erreferentziazko lau ardatz bereizi behar dira enpleguaren, lan prestakuntzaren eta ekintzailetzaren arloan. Alde batetik, Lanbideren bulegoak (lehen INEM bulegoa zen, eta 2010ean eskualdatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari). Bestalde, tokiko garapenerako zentroak: Bermeo inguruko Behargintza eta Gernika-Lumoko eta inguruko herrietako Lanbide Ekimenen Zentroa (LEZ). Bi zentro horiek laguntza lerroak dituzte bai lana bilatzeko, bai lan prestakuntzarako eta ekintzailetzarako. Bestalde, Urremendi Landa Garapen Elkarteak ekintza hori sustatzen du batez ere landako herrietan eta herri txikietan, baina bere eremuak Busturialde osoa hartzen du, eta, beste ekimen batzuen artean, prestakuntza ikastaroak antolatzen ditu. Nabarmendu beharreko plan batzuk:

- Busturialdeko Enplegu Plana (2011-2014).

- Urteko enplegu programa. Bermeoko Behargintza.
- Urteko enplegu programa. Gernikako Lanbide Ekimenak-LEZ.

Gauzatu diren proiektuen artean, oraintsuko batzuk aipatzearren, Lurbizi proiektua dago. Proiektu horren helburua da inguruan enplegua sor dadin bultzatzea tokiko elikadura ziklo osoan zehar. Beste proiektuetako bat Egurre da, baso eta zur baliabideei buruzkoa.

6. ARLO SOZIALA

Adin talde guztientzat egindako planen erreferentziak emango dira, hasierako etapetatik hasita. Berez eskualdeko planik ez badago ere, aipatzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak egindako Haurrentzako III. Plana (2016-2019), haurren eta nerabeen babesgabetasun egoeretan arreta emateko.

Gazteei dagokienez, honako plan hauek egin dira eskualdean:

- Busturialdeko Gazte Plana (2007-2012).
- Udal Gaztedi programa (2013ko eta 2020ko Gaztedi Bizkaiaren barruan).

Jardueren artean Busturialdeko Gazte Erreserba-Busturialdea Team ekimena dago, Busturialdeko gazteen talde, eskualde eta etorkizun sentimendua islatzen duena. Bestalde, urtero egiten da Busturialdeko enpresen ideia lehiaketarako deialdia. Lehiaketa hori 2014. urtean hasi zen eta Busturialdeko gazteen ekimen original eta ekintzaileak plazaratu nahi ditu.

Eskualdeko udalerri txikietako gazteentzako erreferentziazko tokia Muxikako Zubi-ondo eraikinean dago 2010. urtetik. Horri gehitu behar zaizkio gazteentzako informazio bulegoak eta gaztelekuak, edo gazteentzako jolas jardueretarako tokiak, beste udalerri handiago batzuetan daudenak.

Adinekoei erreparatzen badiegu, nabarmentzekoa da Bermeon hiri lagunkoien ekimena dutela, ofizialki Bermeo Lagunkoia izanik —Eusko Jaurlaritzak sustatutako Euskadi Lagunkoia ekimenean kokatuta—, adineko pertsonekiko adeitasun hori udalerriko jardueera eta txoko guztietara eraman dadin:

- Bermeo, herri lagunkoia adinekoekin (2018-2020).

Genero politikei dagokienez, mende berriarekin batera hasi ziren emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, eta pixkanaka modu egonkorrean eskaini dira arreta eta orientazio zerbitzuak. Bilakaera horren erakusgarri, Berdintasunaren aldeko Kontseilu Feminista eratu da Bermeon. Jarraian, genero berdintasunaren ikuspegitik onartu eta aplikatu diren planak azalduko ditugu. Hona hemen:

- Busturialdeko herri txikietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2009-2012).
- Gernika-Lumoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (I, 2001; II, 2008-2011; III, 2014-2018; IV, 2021-2024).
- Eako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana (2018-2021).
- Mundakako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta I. Plana (2018).
- Bermeoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2019-2022).
- Busturiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2020-2024).

Plan horien bidez, sentsibilizazio kanpainak hasi ziren eta hainbat zerbitzu eskaini zitzaizkien emakumeei. Horri dagokionez, Berdintasun Zerbitzuak jarri ziren Bermeon 2017an eta Gernika-Lumon 2018an. Genero ikuspegitik parte hartzeko eta gobernatzeko espazioak sortzeko prozesu horretan urrats garrantzitsua izan zen Bermeoko Berdintasunerako Kontseilu Feminista eratzea (2019).

Eskualdean bizi diren pertsona migratuei dagokienez, XXI. mendean hasi zen plangintza, bai Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik, bai Bermeoko Udaleko gizarte zerbitzuen eskutik. Horrekin loturik, honako plan hauek egin dira:

- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Immigrazio Plana (I, 2005-2007; II, 2008-2011; III, 2013-2016; IV, 2017-2020; eta V, 2022-2025).
- Bermeoko Tokiko Immigrazio Plana (2009-2012).
- Bermeoko Bizikidetza eta Aniztasun Plana (2018-2021).

Oraintsu, 2021. urte amaieran, Busturialdeko mankomunitateak pertsona migratuen bosgarren plana (2022-2025) onartu du.

Egindako jarduerei eta emandako zerbitzuei dagokienez, pentsa dezakegun bezala, diskrezioz eta intimitatean egiten ari da lana. Ekintzen artean, adibide gisa, aipatzekoa da Bermeon sustatutako Ijito Ekimena zerbitzua.

Azkenik, UBEko Garapen Iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana (PICE-IGHP, 2015) aipatuko dugu berriro ere. Plan horren aurretik, UBEko Ingurugiroaren Interpretazio, Ikerketa eta Hezkuntzarako Erabilera Egitamua (1997) egin zen. Alor horretan aurrera eramandako zenbait jarduera nabarmenduko ditugu ondoren:

- Euskadiko Biodibertsitatearen eta UBEren interpretazio zentroa (Madariaga Dorrea, Eusko Jaurlaritza, 2008).
- UBEko Garapen Iraunkorrari buruzko jardunaldiak.
- UBEko Natura Ondareari buruzko jardunaldiak.
- UBEko Kalitate Ekonomiei buruzko jardunaldiak.
- UBEko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra sortzeko laguntza (UPV/EHU, 2000).
- Matxitxako lurmuturreko itsas hegaztien eta zetazeoen behatokia (2014).
- UBEn Zientziaren eta Kudeaketaren arteko Zubiei buruzko Biltzarra (2019).
- Prestakuntza jardunaldiak eta ikastaroak.
- UBEri buruzko argitalpenak.
- UBEko gazteentzako bekak (Eusko Jaurlaritza, UNESCO Etxea).
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren webgunea (2021).

7. LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ETA AZPIEGITUREN ARLOA

Atal honetan bi eremu nagusi landuko dira. Alde batetik, *lurralde antolamenduarena* eta, bestetik, *azpiegiturena*.

■ Lurralde antolamenduari dagokionez, honako hauek dira eskualdeko mugarri nagusiak:

- Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (2016).

- Hiri antolamendurako plan orokorrak (udaletakoak).
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (1993; 2016).

Lurralde Plan Partziala EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen ondoriozko tresna bat da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) xedatutakoa zehazten duena, eta eremuen antolaketa espazialaren, ingurumen babesaren eta garapen sozial eta ekonomikoaren gidalerroak ezartzen ditu. Kasu honetan, Lea-Artibai eskualdearekin partekatua da eremu funtzionala. Horregatik, LAGen bertsio berrian, modu egokiagoan deitzen zaio eremu horri, hauxe da, Busturialdea/Lea-Artibai eremua. Dokumentu honetan babestutako guneak azaltzen dira eta hiri garapeneko eremuak definitzen dira, bai eta lurraldeak eta bertan bizi diren biztanleek behar dituzten ekipamenduak eta azpiegiturak ere. Horren harira, eskualdean etxebizitza berriak sustatzeko beharra aipatzen da (8.000 etxebizitza), bereziki Bermeon eta Gernika-Lumon, bai eta azpiegituretan jarduerak egiteko beharra ere, esate baterako, Mungialde eta Zornotzarekiko eta A-8 autobidearekiko bide lotura hobetzea, Sollube eta Autzagane gainak gainditzeko tunelen bidez.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei dagokienez (HAPO), batez ere hiri eremua antolatzeaz eta hirigintza garapen berriak edo espazio urbanizagarriak eta haiekin lotutako azpiegiturak definitzeaz arduratzen dira. UBE osatzen duten udalerrietan, landa lurrean edo lurzoru urbanizaezinean, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak definitzen du antolamendua, bai eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE) ere.

HAPOek herriak hornitu dituzte, etxebizitza berriak, ekipamenduak, plazak, hiri zeharbideak, jarduera ekonomikoetarako eta zerbitzuetarako eremuak eraikita, hiriguneetako eta auzoetako bizigarritasuna eta jarduera ekonomikoa hobetzeko. Adibide batzuk aipatzearren: Gernika-Lumoko Lurgorri auzoan etxebizitza babestuak sustatzea (800 etxebizitza) edo Bermeoko alde zaharra zaharberritzea. Erdi Aroko gune historiko enblematiko hori monumentu multzo izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2005ean. Eremu hori zaharberritzeko plana eten egin behar izan zen 2013. urteko sute katastrofikoaren ondorioz, gertakari hark ondorio larriak izan baitzituen udaletxean ere. Hala ere, aipatzekoa da hobekuntzak egin direla Bermeoko Hirigune Historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bidez (2001).

Kostaldeko eremu horretan jarraituz, aipatzekoa da Bermeo-Mundakako portua antolatzeko plana, arrantza, merkataritza eta aisialdi erabilerak biltzen dituena. Bermeoko portua antolatzeko Plan Berezia (1990) hirugarren aldiz aldatzen ari da une honetan, ontziolak bizitegi guneetatik urrunago dagoen eremu batean ezartzeko; izan ere, jendea protesta egiten ari da ontziolak poliesterrezko oihalekin fabrikatzeko jarduera toxikoa izateagatik. Eskualdeko portu nagusian —Eusko Jaurlaritzak kudeatua— egin diren jardueren artean, honako hauek daude: iparraldeko dikea edo olatu-horma etengabe indartzea eta konpontzea, arrain lonja handitzea edo Bermeoko portu zaharrean kirol dartsena antolatzea. Programatuta zeuden jardueren artean, nabarmentzekoa da Bermeoko Itsas Etxea ez dela gauzatu.

Mundakakoa, Elantxobekoa edo Eakoa bezalako portu txikiei dagokienez, horietan arrantza jarduerak behera egin du pixkanaka, eta irisgarritasuna hobetzera, kirol-aisialdiko ontziak amarratzeko xaflak antolatzera edo babes dikeak eta kaiak hobetzera mugatu da ekintza publikoa. Alde horretatik, gogora ekarri behar dira 2014ko neguko ekaitzak, kalte handiak eragin baitzituzten Busturialdeko portu guztietan, bereziki Bermeokoan.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) aipatu behar da. Plan horrek, natura eta landa inguruneko eremuak eta lurzoruaren erabilerak antolatzeaz gain, hiri garapen berriak ahalbidetuko dituzten eremuak ere ezartzen ditu. Horren harira, 2003. urtean EKZPren aldaketa bat onartu zen, Kanala auzoko Hirigintza Plangintzak antolatu beharreko eremua zehaztu zuena (Gautegiz Arteaga eta Sukarrieta herriena da), eraikin kopurua nabarmen handituta, 28 hektareako espazio batean. Azkenik, indargabetu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2010ean emandako epai irmoaren bidez, itsasertza eta artadi kantauriarrak babesteko eremutzat kalifikatuta zeuden espazioak deskalifikatzeagatik.

Jarduera ekonomikoetarako eremuak antolatzeari dagokionez (industrialdeak eta merkataritza guneak), kontuan hartu behar da Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (2004). Plan horren barruan badira eskualdean oraindik gauzatu gabe dauden bi ekintza: Urdaibaiko eskualde mailako poligono berria Muxikan (25-50 ha); eta, bestetik, Bermeoko portuko eskualdeko industrialde berria (5-10 ha).

Bizkaia Egiten estrategiak (2019-2023) Busturialdeko suhiltzaile parke berriaren proiektua jasotzen du, gaur egun Bizkaiko Foru Aldundia eraikitzen ari dena Arratzuko udalerriko lurretan.

■ *Mugikortasunerako eta garraiorako azpiegituekin* lotutako kapituluari ekingo diogu orain. Bizkaiko errepideen planaren esparruan, lurralde ekintzako planak (LEP edo plan bereziak) onartu dira, errepideen ingurabideak edo saihesbideak eraikitzeko. Alde horretatik, 1985ean egin zen Mundakako herrigunearen lehen saihesbideari beste batzuk gehitu zaizkio, honako tresna hauen bidez:

- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala (1999).
- Gernikako Saihesbidearen Lurralde Ekintzako Plana (LEP) (2000).
- Bermeoko Saihesbidearen Lurralde Ekintzako Plana (LEP) (2010).
- Zornotza-Muxika zatia egiteko Lurralde Ekintzako Plana (LEP) (2011).

Gernikarako saihesbidea bi fasetan eraiki eta jarri zen abian: ekialdeko irtenbidea 2003an inauguratu zen eta iparraldekoa, berriz, 2010ean. Bestalde, ibilgailuen trafikoaren ordezko irtenbidea 2015ean jarri zen martxan Bermeon, eta hirigunera zuzenean sartzeko aukera ematen duen saihesbidearen adarra 2021ean ireki da ibilgailuentzat. Trafikoa herriguneetatik ateratzeko irtenbideen artean, Muxikako saihesbidea eraiki gabe geratu da, 1998ko JSEGEn aurreikusita zegoena. Eta herrien arteko sarbide korridoreen artean, Nabarniz eta Aulestiaren arteko lotura hobetzea, historikoki eskatua izan dena, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren JSEGEn ere islatua.

Eskualderako sarbide handi ugarien artean, 2018an inauguratu zen Urdinbideko tunela, Autzaganeko gainean (Amorebieta-Etxano), arazo geologikoengatik eta, gero, enpresa arazoengatik obrak atzeratu ondoren. Zorroan dauden jardueren artean dago Okako (Muxika) sigi-saga egiten duen errepidearen alternatiba eraikitzea, eta, eskualdearen beste muturrean, Sollube mendiko lurpeko korridore handia eraikitzea, Bermeoko herria eta portua Mungiako bide banaketako zentroarekin lotuko dituena. Oraingoz, horren ordez, Sollubeko mendatera igotzeko egungo errepidea birmoldatuko dela iragarri da.

Beste garraiobide batzuei eta haien azpiegiturei dagokienez, trena da protagonista, eta funtsezkoa izan da eskualdea garatzeko eta bertako biztanleen joan-etorrietarako. Iparraldetik hegoaldera du ardatza eta herriak lotzen ditu Bermeon, Mundakan, Sukarrietan, Busturian, Foruan, Gernika-Lumon eta Muxikan dituen geltokiekin; gero lineak jarraitu egiten du Zornotzara eta Bilbora. Trenbidea osoa modernizatu da eskualdetik igarotzean, eta geltokiak eta trenbide pasaguneak ere berritu dira. Pasabide batzuk eraiki dira, esate baterako Urbieta eta Astrako biak, Gernika-Lumon eraikiak. Hala ere, jarduera nagusiak gauzatu gabe geratu dira, hala nola Zornotza-Bermeo trenbidea zati batzuetan bitan banatzea (Urdaibaiko JSEGE programan islatua dagoena), eta trenbidezko salgaien trafikoa sustatzea. Proiektu horrek lehen urratsa ikusi bazuen ere Bermeoko merkataritza portuan barneratu zen adarra eraiki zenean, salgaien konboiekin hainbat astez proba egin ondoren, gero aukera hori ez zen aktibatu eskualdean jarduera eta garraio alternatiborako baliabide gisa, eta baztertu egin da gerorako.

Azpiegiturei buruzko atal hau amaitzeko, espazio bat eskainiko diogu bizikleta erabiltzeari eta sustatzeari, garraiobide gisa eta eskualderako bisita garbi gisa erabil dadin. Bizkaiko Bizikleteta Plan Zuzentzailean (2003-2016) aurreikusita zegoen Busturialdea-Urdaibain 58 kilometroko bidegorria eraikitzea; horietatik 30,9 kilometro jada eginak zeuden, 1,2 egiten ari ziren eta 2,5 proiektatuta, 2019ko abenduko datuen arabera. Azpiegitura horretatik, Forua-Busturia ardatza nabarmenduko dugu, eta alboko zati gisa Arratzu eta Gernika lotzen dituena. Bermeo-Muxika eskualdeko bidegorriaren bizkarrezurra osatu gabe dago.

8. PLANGINTZAREN IKUSPEGI INTEGRALA

Ondorio gisa, Busturialdea-Urdaibai eskualdearen eremuaren plangintza nola dagoen ageri da hurrengo irudian (ikus hurrengo orrialdea), ustez bereren lurraldearen eta paisaia berezi horretan bizi den gizartearen kudeaketa integratua egiteko aukera emango luketen planen proposamenarekin.

Gaur egungo plangintzaren (indarrean dagoena) eta etorkizuneko plangintzaren (irekia) irudi horretan, eremu guztiak hartu nahi dira kontuan, giza jarduerarako eta biodibertsitatea eta beste ondare elementu

Plangintza	
2030 Agenda Busturialdea-Urdaibai	—
Busturialdeko Landa Garapeneko Programa (LGP) 2020	2015
Ingurumena	
UBEren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP)	2016
Urdaibai, KBE eta HBBE Kudeatzeko Dokumentuak, Gaztelugatxe	2013
Urdaibaiko Uren Saneamendurako LEP	2006
Urdaibaiko Uren Hornidurarako LEP	2020
Busturialdea-Urdaibaiko Klima eta Energia Jasangarriko Plana	—
Busturialdea-Urdaibaiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (HPKP)	—
Busturialdea-Urdaibaiko Paisaiaren Ekintza Plana (PEP)	—
Kultura ondarea	
Busturialdea-Urdaibaiko Kultura Ondarearen Plana	—
Sozioekonomikoa	
UBEko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE)	—
Busturialdea-Urdaibaiko Turismoaren Plan Estrategikoa 2020	2017
Busturialdea-Urdaibaiko 3R Prestakuntza eta Enplegu Plana	—
Soziala	
Busturialldea-Urdaibaiko Haurren eta Erronka Demografikoaren Plana	—
Busturialdea-Urdaibaiko Gazte Plana	—
Busturialdea-Urdaibai Lagunkoia, adinekoekin	—
Busturialdeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana	—
Busturialdeko Mankomunitatearen Immigrazio Plana	2021
Bermeoko Bizikidetza eta Aniztasun Plana 2021	2018
UBEko Garapen Iraunkorraren Arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana (PICE-IGHP)	2015
Lurralde antolamendua eta azpiegiturak	
Busturialdea/Lea-Artibaiko Lurralde Plan Partziala	2016
Busturialdea-Urdaibaiko Mugikortasun Jasangarria Plana	—
Bermeoko Portua-Mundaka Plan Berezia	2018
Urdaibaiko Trenbide Sarearen Planai	—

* Urterik ez duten ekintzak eskualdean desiragarriak edo beharrezkoak direnak dira, edo onartuta egon beharko lukete eta oraindik ez daude.

eta ondasun komun batzuk kontserbatzeko bizi espazioa sustatzeko, betiere kalitateko lurraldean, orain eta etorkizunean, hau da, lurralde jasangarrian. Busturialdea-Urdaibaik, nazioarteko lankidetza-ikerketa proiektu honetako («Gatazka egoeran dauden lurraldeak») beste lurraldeek bezala, eta Biosferak berak ere, bizitzaren iraunkortasunerako gaitasuna izan behar dute.

■ Garapen Jasangarriko Helburuei begira egindako *plangintza integratuari* erreparatzen badiogu, oraindik ez dago 2030 Agenda abian edo parte hartze publikoko prozesuan —ez eskualdekoa, ez tokikoa—. Agian, UBEko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE) berriak bere gain hartuko du eginkizun hori.

■ *Ingurumenaren* dimentsioari dagokionez, natura kontserbatzeko eta biodibertsitatea zaintzeko arloak planifikatuta daude, baita kontsumorako urena eta hondakin urena ere. Hala ere, ez dago plangintzarik hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan, nahiz eta Urdaibai hondakin ekoizle handia den, bertan bizi den 45.000 laguneko biztanleriarekin eta etortzen diren bisitari eta turista mordoarekin. *Klima aldaketaren* arloan ere ez dago eskualde mailako plangintzarik, arrisku naturalen arloan landu beharreko alderdi garrantzitsu batzuk baditu ere, bai kostaldera begiratzen badugu (olatuen oldarra), bai arro hidrografikora begiratzen badugu (uholde arriskua). Gaur egun, kostaldeko Ea herri txikia da klima erronkari aurre egiteko plana duena, eta berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko proiektuei ekin die energia berriztagarrien erabilera sustatzeko proiektuen bidez. Beste herri batzuk hasi dira prebentzio lan horretan, Bermeoko Tonpoi eremuko ingurumena lehengoratzeko proiektuekin, besteak beste. Azkenik, Busturialdea-Urdaibai eskualdea kalitate eszeniko handiko eremutzat hartzen bada eta Urdaibaiko Turismo Jasangarriaren Europako Gutunaren bidez turismo helmuga gisa sustatu nahi bada, landa paisaia zaindu, lehengoratu eta balioetsi behar du, gaur egun oso degradatua baitago eukaliptoaren monolaborantza masiboarekin lotutako baso jarduera intentsiboagatik.

■ *Kultura ondarearen* arloan, tokiko jarduerak gorabehera, lurralde gabezia nabarmena da, eta tokiko eragileek nabarmendu dute beharrezkoa dela inbentario orokor bat eta eskualdeko elementu materialen eta immaterialen balioa nabarmentzeko plan bat izatea, ikuspegi

orokorra emango duena, oso garrantzitsua, eta dinamika lokalista edo monotematikoak gainditzen dituzten prozesuak eta proiektuak aktibatzeko aukera emango duena.

■ Pertsonen aurpegietara ikuspegi *sozialetik* iristen bagara, nabarmentzekoa da haurtzaroari eta nerabezaroari begirako plangintzarik ez dagoela. Gazteen programazioak udal eremua gainditu beharko luke, Urremendi Landa Garapen Elkarteak egiten duen lanaren arrastoari jarraituz.

Era berean, beste programa batzuekin batera, hala nola irisgarritasunari eta paisaiari buruzkoak, oso positiboa litzateke eskualde osoa Lagunkoia izatea, adinekoentzat abegikorra. Alde horretatik, lekuak eta inguruneak pertsona helduentzat atseginak direnean, haurrentzat (Umeen Herria, neskatoentzako eta mutikoentzako herriak) eta behar bereziak dituzten pertsonentzat ere egokitzen dira, emakumeentzat arriskutsuak diren puntu beltzak kentzen dira, etab. Habitata hobetu egiten da funtzionaltasunean, emozionaltasunean eta erakargarritasunean. Eta ateak samurki irekitzen zaizkie adineko bisitariei eta turistei, bai eta helmuga humanizatuak bilatzen dituzten beste gizatalde guztiei ere.

Alderdi sozialak aztertzen jarraitzen badugu, tokian-tokian eta eskualdeetan egituratzen ari diren emakumeen eta kolektibo feministen sareak, eta ikusirik eskualdeko neskatoen eta emakumeen arazo zabal eta askotarikoa, oinarritik egindako jarduera plana bultzatu beharko litzateke, beharrizan eta arazo ugariei (besteak beste, errespetuzko espazioak, lan prekarietatea, aukera berdintasuna, lana eta amatasuna-aitatasuna bateratzeko zailtasunak, eta, indarkeria matxistaren gaitzaren aurka borrokatu behar dela ahantzi gabe) aurre egiteko tresnak eskainiko dituena. Zailtasun horiek areagotu egiten dira pertsona migratuei buruz ari garenean, bereziki emakumeak badira.

■ *Lurralde antolamenduak* Busturialdeko Lurralde Plan Partzialean jartzen du arreta. Plan horrek ildo estrategiko nagusiak ezarri ditu, eta udaleko hirigintza plangintzan eta plangintza sektorial edo tematikoan zehaztu behar dira, etxebizitza azpiegitura berrien aurreikuspen handiak baititu. Antolamendu tresna garrantzitsu horretan, bai eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planan (EKZP) bertan ere, ikusten da azpiegitura berde-urdina ez dela Bizkaiko lurralde zabal horretan integratzen, nahiz eta natura-ondare balio ugari izan, babes eremu deklaratuak

izan, eta lurralde kalitatea hobetzeko eta klima erronkari aurre egiteko ekintzak behar izan.

■ Azkenik, errepide, portu eta ekipamendu *azpiegiturek* beti hartzen dituzte lehen orrialdeak, eta, alde horretatik, eskualderako aurreikusitako proiektu handiek saneamendu plana amaitzea eskatzen dute lehenik, gero, edateko uraren hornidura bermatzea tokiko baliabideetatik abiatuta, eta, azkenik, mugikortasun multifuntzionala, hurbilekoa eta praktikoa bultzatzea tokikotik (udal bizikleta bideak eta Muxika-Bermeo bidegorriaren eskualdeko ardatza), eta jasangarria ingurumenari begira, trenean eta BizkaiBus zerbitzuan oinarrituta.

9. GOBERNANTZA HORIZONTALA

Aztertu diren planen garapena eta plan horietan eskualderako giltzarritzat hartu diren jarduerak behar bezala aurrera eramateko, toki erakundeak entitatez eta tresnez hornitu dira, tokiko gobernu organo konbentzionaletatik haratago doazenak.

Plangintza integralaren ikuspegitik begiratuta, abiapuntu gisa aipatzekoa da Urdaibai-Busturialdea Udaltalde 21 sortu zela 2003an, Tokiko Agenda 21 bultzatzeko eta eskualdeko herri txikiei laguntza solidarioa emateko.

Ingurumen kudeaketari dagokionez, historikoki gehien nabarmentzen dena da ura planifikatzeko eta kudeatzeko eskualdeko erakundeen batasuna (Busturialdea, Oxina, Muspemun). Erakunde horiek bat egin dute Busturialdeko Ur Partzuergoarekin, eta orain Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko prozesuan dago partzuergo hori.

Hondakinei dagokienez, Muspemunek kudeatzen zituen hondakinak eta Bermeoko errausteko labea. Airean eta kostaldean kutsadura handia sortzen zuen labe horrek, eta 2003an itxi zuten, Europako araudiak behartuta. Ondoren, Busturialdeko Mankomunitatea sortu zen 2010ean, Busturialdeko udalerriek hondakinak mankomunitatean kudeatzeko.

2003. urtean, UBEko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE) erakunde arteko Jarraipen batzordea eratu zen, baina bakarrik 2006. urtera arte egon zen martxan.

2003. urte horretan bertan, Gernikako Industrialdea, S. A. erakundea aldatu eta Busturialdeko Industrialdea, S. A. bihurtu zen,

SPRI sozietateari lotua, Muxikan ezarriko zen eskualdeko jarduera ekonomikoen poligonoa bultzatzeko. Enpresa parke berria planifikatu zen eta lurren erosketa kudeatu zen, baina, orube zabala eskuratu arren, ez da gauzatu, tokiko babes politiko faltagatik eta eskualdeak duen defizit hidrikoagatik, besteak beste.

Hirugarren sektoreko jarduerari dagokionez, Busturialdea-Urdaibaiko Turismo Mahaia 2010ean formalizatu zen, ordezkaritza publiko eta pribatuarekin. Hartan parte hartzen dute, besteak beste, Udalek, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Urremendik edo, enpresa sustatzaileen sektorearen ordezkari gisa, Tourdaibai erakundeak (Urdaibaiko turismo jasangarriko elkartea).

Sustatutako beste jarduera bat izan da Busturialdea-Urdaibaiko Lehiakortasun Mahaia, eskualdean finkatutako enpresa handien eta Busturialdea-Urdaibaiko erakunde publikoen artean.

Lurralde eta hirigintza plangintzari dagokionez, udalek Udal Plangintzako Aholku Batzordea antolatu dute, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak egiteko prozesuei laguntzeko.

Garapen integral, parte hartzaile eta partekaturako nabarmenenak diren gabezia gisa, alde batetik, 2030erako Tokiko Agendaren parte hartze foroak daude, eta, bestetik, Busturialdea-Urdaibaiko Garapen Agentzia, funtsezko ekintza izanik ere urte asko baitaramatza egiteke.

Azkenik, gobernantzari buruzko iruzkin labur honen azken zertzelada emateko, nabari da izugarria dela egin beharreko lana. Esperientzia asimetriko gisa, Mundakako udalerriko Udala Zabaltzen gardentasun ataria dugu, eta, aitzitik, Gernika-Lumoko Udalaren gardentasun politikarik eza, azkena geratu baita Dyntra *(Dynamic Transparency Index*, hau da gardentasun-indize dinamikoa*)* sistemaren Bizkaiko udalerrien zerrendan.

10. ONDORIOAK

Azken batean, XXI. mendearen hasieratik indarrean egon diren Administrazioaren planak eta gauzatu diren edo egin gabe geratu diren jarduerak aztertu ondoren, gobernantzaren ikuspegia alde batera utzi gabe, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- Busturialdea-Urdaibaik plan eta programa ugari ditu, XXI. mendean zehar proiektuen bidez garatu eta gauzatu direnak.

- Urdaibaiko Biosfera Erreserba suspergarria izan da lurraldearen ikuspegi integrala duen plangintza asmo horrentzat, baina baldintzatzaile politikoak oztopo edo atzerapen izan dira oinarrizko proiektuak aurrera eramateko.
- Gegun, erakundeen arteko koordinazioa nabari da eskualderako funtsezkoak diren planak eta programak formulatzeko orduan, baina gardentasun eta parte hartze falta dago. Horregatik, espero da eskualdeko ekintza gaitasunekin eta interesatu guztiekin partekatzea hausnarketa eta plangintza prozesu horiek.
- Eskualdean inbertsio handiak egin dira, baina oraindik ez dira estrategikotzat jotzen diren proiektu batzuk burutu.
- Gobernantza horizontalak oraindik urrats garrantzitsuak eman behar ditu eskualdean, bai gardentasun politiketan, bai parte hartzea bultzatzeko politiketan, funtzionamendu demokratikoaren oinarriak indartzeko, pertsonen eta gizataldeen inplikazioa sustatzeko, eta, hala, gizarte osoak partekatutako, sustatutako eta ebaluatutako planak eta jarduerak sortzeko.

11. DOKUMENTU ERREFERENTZIAK

ARANA EIGUREN, Xabier (2019): «Retos ambientales del territorio e instrumentos de educación ambiental para la transformación socio-cultural», in Jokin ALBERDI eta María OIANGUREN (koord.): *Narrativas de resistencia y solidaridad. V Jornadas Antimilitaristas y de Memoria Histórica de Gernika en Astra*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz (Red Gernika Documentos, 19).

— Alfonso DUBOIS, Jokin ALBERDI, María OIANGUREN, Efren ARESKURRINAGA, Andreas SCHÄFTER eta Ana ETXARTE (2019): *Kasu-ikerketa: Urdaibai (Euskal Herria). Egitasmoak ezagutuz eta diagnostikoak kolektiboki partekatuz*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz (Gernika Sarea). «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» proiektua. Eskuragarri hemen: <https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2020/04/EC-Urdaibai-digital-EU.pdf>.

BERMEOKO UDALA: <www.bermeo.eus>.

— (2001): *Bermeoko Hirigune Historikoaren Birgaitze Integraturako Plan Berezia.*

— (2009): *Bermeoko Tokiko Immigrazio Plana 2009-2012.*

— (2012): *Bermeoko Edertze Plana*.
— (2018a): *Bermeo, herri lagunkoia adinekoekin 2018-2020*.
— (2018b): *Bermeoko Tonpoi inguruko Paisaiaren Ekintza Plana*.
— (2018c): *Bermeoko Bizikidetza eta Aniztasun Plana 2018-2021*.
— (2019): *Bermeoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2019-2022*.

Bizkaiko Foru Aldundia: <www.bizkaia.eus>.
— (2000): *Gernikako Saihesbidearen Lurralde Ekintzako Plana*.
— (2005): *Bizkaiko Uri Hondahinak Kudeatzeko II. Plan Integrala (BUHKPI) 2005-2016*. Eskuragarri hemen: <https://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO9/Temas/Pdf/II%20PIGRUB%2005-16.%20Eusk.pdf?hash=782bd3b3ba50bfeff4868145384fe507&idioma=EU>.
— (2010): *Bermeoko Saihesbidearen Lurralde Ekintzako Plana*.
— (2011): *Amorebieta-Muxika zatia egiteko Lurralde Ekintzako Plana*.
— (2014): *Gernika-Markinako eskualde egituraren Lurraldearen zatiko Plana*. Behin betiko onarpenaren dokumentua. Eskuragarri hemen: <https://www.bizkaia.eus/hirigintza/lurraldekozatiegitasmoa/gernika/aprobacion_definitiva/Documentacion_escrita/VI_EECIA.pdf?hash=40e74d5135f3818e7d0f3d1eb57b51ca>.
— (2017): 31/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gernika-Markinako eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/04/1601620e.pdf>.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Busturialdeko Immigrazio Planak, <www.busturialdekomankomunitatea.org>.

Busturialdeko Ur Patzuergoa: <www.busturialdekoura.com>.
— (2006): *Iragarkia, Urdaibaiko Saneamendurako Lurralde Ekintzako Plana behin betiko onartzeari buruzkoa*.
— (2020): *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Uren Hornidurarako Lurralde Ekintzako Planaren behin betiko onarpena*.

Eusko Jaurlaritza (1998): 258/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Jarduera Sozioekonomikoen

Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua onartzen duena. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1998/10/9804699a.pdf>.

— (2003): *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Energia eta Ingurumen Arloko Plana 2003-2010.*

— (2009): *Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2009-2015.* Vitoria-Gazteiz, Ihobe. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/contenidos/plan/estrategia_urdaibai/eu_estrateg/adjuntos/estrategia_urdaibai.pdf>.

— (2010): *Urdaibaiko Garapen Iraunkorrerako proiektua. Garapen sozioekonomiko eredua. Behin betiko dokumentua.* Vitoria-Gazteiz, Eusko Jaurlaritza. Eskuragarri hemen: <https://bideoak2.euskadi.eus/2010/06/18/urdaibai/propuesta_Urdaibai.pdf>.

— (2013): 358/2013 Dekretua, ekainaren 4koa. Honen bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden garrantzi komunitarioko 4 leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio neurriak. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/12/1305570e.shtml>.

— (2015): *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Garapen iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana (PICE-IGHP) 2015-2025,* Vitoria-Gazteiz, Eusko Jaurlaritza. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/pice/eu_def/adjuntos/IGHP.pdf>.

— (2016): Decreto 139/2016 Dekretua, irailaren 27koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duena. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/11/1605040e.pdf>.

— (2020): Agindua, 2020ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Bermeoko portua antolatzeko plan bereziaren 3. aldaketa hasieran onesten duena. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/bermeoko-portuko-plan-bereziaren-hirugarren-aldaketa-puntualaren-hasierako-onespena/web01-a2lurral/eu/>.

— Hazi eta Urremendi LGE (2015): *Busturialdea. Eskualdeko Garapen Programa 2015-2020.* Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pdrs_comarcales/eu_def/adjuntos/LGP_BUSTURIALDEA_osoa.pdf>.

GERNIKA-LUMOKO UDALA: <www.gernika-lumo.eus>.
— (2016): *Gernika-Lumoko Paisaiaren Ekintza Plana: Oka ibaiaren ingurunea (Arabieta-Errenteria)*.
— (2020): *Gernika-Lumoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2021-2024*.

URREMENDI (LANDA GARAPEN ELKARTEA) (2009): *Busturialdeko herri txikietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana 2009-2012*.
— (2012): *Busturialdea-Urdaibaiko Turismoaren Plan Estrategikoa. Busturialdea-Urdaibai jomuga 2017 diseinatzen*. Eskuragarri hemen: <http://urremendi.org/uploads/TOMO%20I%20euskeraz.pdf>.

I. ERANSKINA. **BUSTURIALDEA-URDAIBAI ESKUALDEKO PLANETATIK ETA PROGRAMETATIK ABIATUTA GAUZATUTAKO ESKU HARTZEAK, ADIBIDE GISA (2000-2020)**

Jarduketa	Urtea	Erakundea
Ekimenak eta zerbitzuak		
Bakearen eta Kulturen Urtea (Gernika-Lumo).	2012	Eusko Jaurlaritza.
Busturialdeko enpresen ideia lehiaketa.	2014	Udalak, Urremendi, Bizkaiko Foru Aldundia.
Ijito ekimena.		Bermeoko Udala.
Eskola bidea Gernika-Lumo.	2016	Guraso elkarteak, Gernika-Lumoko Udala, Eusko Jaurlaritza.
Eskola bidea Bermeo.	2019	Guraso elkarteak, Bermeoko Udala, Eusko Jaurlaritza.
Bermeo Tuna World Capital.	2018	Bermeoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, AZTI fundazioa, kontserba sektorea.
Genero berdintasunerako zerbitzua Bermeo.	2017	Bermeoko Udala.
Genero berdintasunerako zerbitzua Gernika-Lumo.	2018	Gernika-Lumoko Udala.
Bermeo Lagunkoia adinekoekin.	2019	Bermeoko Udala.
Urdaibaiko Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna.	2020	Eusko Jaurlaritza.
Ekipamenduak		
Madariaga dorretxea.	2008	Eusko Jaurlaritza.
Kafe Antzokia.	2008	Bermeoko Udala.
Matxitxakoko zetazeoen eta itsas hegaztien behatokia.	2014	Eusko Jaurlaritza.
Arrolagune.	2014	Arratzuko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia.

Astra, kultur sorkuntzako fabrika soziala.	2012	Eusko Jaurlaritza, Gernika-Lumoko Udala, Kolektibitateak.
Bekoportala.	2019	Bermeoko Udala.
Larrezabale. Arte-arte, Kultura eta gastronomia espazioa (berriro inauguratuta).	2005	Busturiako Udala.
Gertu Bermeo. Arreta integralerako bulegoak.	2018	Bizkaiko Foru Aldundia.
Gertu Gernika-Lumo. Arreta integralerako bulegoak.	2019	Bizkaiko Foru Aldundia.
Erreten Lamerako jolastokia.	2020	Bermeoko Udala.
Azpiegiturak		
Lamiaran-Aranburu poligonoa.	2000	Eusko Jaurlaritza.
Elkartegi-langunea Arratzu.	2017	Bizkaiko Foru Aldundia.
Elkartegi-langunea Gernika.	2019	Bizkaiko Foru Aldundia.
Arrain merkatua zabaltzea, Bermeo.	2020	Eusko Jaurlaritza.
Busturialdeko suhiltzaile etxea (Arratzu).	2021	Bizkaiko Foru Aldundia.
Benito Barrueta babes ofizialeko etxebizitzak (Bermeo).	2007	Eusko Jaurlaritza.
Lurgorri babes ofizialeko etxebizitzak (Gernika-Lumo).	2008 eta 2011	Eusko Jaurlaritza.
San Martin babes publikoko etxebizitzak (Bermeo).	2010	Bizkaiko Foru Aldundia, Bermeoko Udala.
Ereñoko babes publikoko etxebizitzak.	2010	Bizkaiko Foru Aldundia, Ereñoko udala.
Nabarnizeko babes publikoko etxebizitzak.	2013	Bizkaiko Foru Aldundia.
Sukarrietako babes publikoko etxebizitzak.	2012	Bizkaiko Foru Aldundia, Sukarrietako Udala.
Gernikako saihesbidea.	2003 eta 2010	Bizkaiko Foru Aldundia.

Bermeoko saihesbidea.	2010 eta 2021	Bizkaiko Foru Aldundia.
Urdinbideko tunela (Autzagane).	2018	Bizkaiko Foru Aldundia.
Foru-Murueta bidegorria-bizikleta bidea.	2007	Bizkaiko Foru Aldundia.
Arratzuko bidegorria-bizikleta bidea.	2012	Bizkaiko Foru Aldundia.
Muxikako bidegorria-bizikleta bidea.	2020	Bizkaiko Foru Aldundia.
Urdaibai bide berdea. Gernika-Lumotik Ibarrangelura.	2012	Eusko Jaurlaritza.

II. ERANSKINA. **BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO GOBERNANTZARAKO ERAKUNDEAK ETA ORGANOAK**

Udalekoak

- Udalbatzaren osoko bilkurak.
- Udal batzorde informatiboak.
- Arloko batzordeak.
- Jai batzordeak.
- Udal plangintzako aholku batzordea.
- Bermeoko Berdintasunerako Kontseilu Feministа (2019).

Eskualdekoak

- Busturialdeko Ur Partzuergoko Kontseilu Nagusia eta Batzorde Betearazlea.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Batzar Nagusia eta Batzar Iraunkorra.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zaingo-batzordearen eta Lankidetza Kontseilua.
- Urremendi Landa Garapen Elkartearen batzarrak eta bilerak.
- Busturialdeko Industrialdea, S.A. (2003).
- Busturialdeko Mankomunitatea (2010).
- Busturialdea-Urdaibaiko Turismo Mahaia (2010).

Argitalpen hau Busturialdea-Urdaibairen gaineko jakintzari begira ekarpen garrantzitsua da. Eskualdea ezagutzen duten pertsona adituen begirada zorrotz eta konprometituak jasotzen ditu, oso lausengarria ez den argazki bat erakusten dutenak arlo ekonomiko, sozial eta ingurumenekotik so: nekazaritza, arrantza eta industriaren sektoreen egonkortzea; turismo masibo batek eragindako ingurumen-mehatxua, eskualdeari mesede urria ekarriko diona; langabezia eta lan-prekarietatea gazte eta emakumeen artean; lurzorua eta etxebizitza eskuratzeko zailtasun gero eta handiagoak; komunitate etorkinak gizarteratzeko eragozpenak eta txirotasun-poltsen eta gizarte-bazterkeriaren ikusezintasuna; nortasun eta kultura-ondarearen galera; uren kutsadura, defizit hidrikoa eta monolaborantza basogintzan; plangintza aldakorra eta garapen ekonomikoari begirako baterako estrategia falta; lidergorik eza, eta komunitate eta instituzioen arteko komunikaziorik eza.

Eskualdearen erretratu honen aurrean, lurraldean dagoeneko badiren gaitasunak indartu eta solasaldi deliberaziozko baten espazio sozialki inklusiboagoak artikulatzearen alde uste osoko apurtu irmoa egiten da, iraunkortasunean eta gizarte-justizian oinarritutako plan estrategiko partekatu eta alternatiboak irudikatu, adostu eta abian jartzeko lagungarri izango direnak, instituzioekin komunikazioa mantenduz.

Xabier Arana Eiguren Biologia Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). UPV/EHUko Ingurumena Ebaluatu eta Berreskuratzeko Unibertsitate Masterra. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari izan zen (1996-2007). Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurumen Hezkuntzako Ataleko burua da.

Rosa de la Asunción Sanz Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean. Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Foroa dinamizatu du, EAEko hainbat udalerritan berdintasun arloko planetako aholkularia izan da eta Busturialdean gizarte laguntzaile lanetan aritu da.

Ramón Zallo Elgezabal Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua eta Informazio Zientzietan doktorea da. Ikus-entzunezko Komunikazioko katedraduna izan da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle emeritua. 1978az geroztik, egitura, ekonomia eta kultura- eta komunikazio-politiketan espezializatu zen.

ISBN: 978-84-09-37317-8

9 788409 373178